

Instituzio-irratirako idazketa eta gidoligintza



2014ko iraila

1000

Irratirako idazketa eta gidoigintza

Arantza Gutierrez Paz

Udako Euskal **Unibertsitatea**
Bilbo, 2000



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

«Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da»

© Arantza Gutierrez Paz

© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-8438-008-4

Lege-gordailua: BI-2368-00

Inprimategia: SERVISISTEM, Bilbo

Azaleko diseinua: Iñigo Ordozgoiti

Hizkuntza-zuzenketa arduraduna: Jose Ramon Etxebarria Bilbao

Banatzailak: UEU. Concha Jenerala 25, 4. BILBO telf. 94-4217145

e-mail: argitalpenak@ueu.org www.ueu.org

Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

Etxeko mutilei: Manu, Haritz eta Iker

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| SARRERA..... | 11 |
| 1. IRRATI-ESTUDIOA | 13 |
| 1.1. Sistema analogikoak | 14 |
| 1.1.1. Zinta irekia edo bobinaren magnetofonoa | 14 |
| 1.1.2. Disko-platoa | 15 |
| 1.1.3. Kartutxerak | 15 |
| 1.1.4. Pletina (kasetea) | 15 |
| 1.2. Sistema digitalak | 15 |
| 1.2.1. Disko trinkoak | 15 |
| 1.2.2. DVD-Audioa (Digital Versatile Disc)..... | 16 |
| 1.2.3. Minidiskoa | 17 |
| 1.2.4. DAMS (Digital Audio Mass Storage) | 17 |
| 1.2.5. DAT (Digital Audio-Tape)..... | 17 |
| 1.2.6. DCC (Digital Compact Cassette) | 18 |
| 1.2.7. Magneto optikoa (floptical) | 18 |
| 1.3. Nahasketa-mahaia | 19 |
| 1.4. Disko gogorreko sistemak | 19 |
| 1.5. ISDN (Zerbitzu integratuen sare digitala) | 20 |
| 2. IRRATI-HIZKUNTZA | 21 |
| 2.1. Hitz esana | 21 |
| 2.1.1. Irrati-hitza esateko idazkera | 21 |
| 2.2. Musika | 25 |
| 2.2.1. Irrati-musikaren funtzioak | 25 |
| 2.2.2. Musika, irratsaio modura | 27 |
| 2.2.3. Musika, irrati-hizkuntzaren elementu modura | 28 |
| 2.3. Irrati-hotsa | 30 |
| 2.3.1. Hotsa informaziorako oztopo gisa | 31 |
| 2.3.2. Hotsa, errealitatearen dokumentu informatibo modura. ... | 32 |
| 2.3.3. Soinu-efektuak | 34 |
| 2.3.4. Soinu-efektuen adierazkortasuna | 35 |

| | |
|---|----|
| 2.4. Isiltasuna | 36 |
| 2.4.1. Isiltasuna, komunikazio-etena | 36 |
| 2.4.2. Isiltasuna puntuazio-zeinu modura | 37 |
| 2.4.3. Isiltasuna, esanahi baten adierazlea | 38 |
| 2.5. Erritmoa irrati-adierazpenean | 39 |
| 2.5.1. Erritmoaren eta soinu-elementuen konbinazioa | 39 |
| 2.5.2. Erritmoa eta estiloa | 40 |
| 2.5.3. Irratsaio-motak eta erritmoa | 41 |
| 2.6. Irrati-muntaketa | 42 |
| 2.6.1. Soinuen arteko lotura | 42 |
| 2.6.2. Muntaketa-motak | 43 |
| 2.6.3. Teknologia berrien eragina irrati-muntaketan | 45 |
| 2.7. Denbora eta inguruaren azalpena irratian | 46 |
| 2.7.1. Inguruaren azalpena | 46 |
| 2.7.2. Denboraren azalpena irratian | 48 |
| | |
| 3. IRRATI-GIDOIA | 51 |
| 3.1. Irrati-gidoiaren definizioa | 51 |
| 3.2. Gidoi-motak | 53 |
| 3.2.1. Gidoi literarioa | 53 |
| 3.2.2. Gidoi teknikoa | 53 |
| 3.2.3. Eskaleta | 53 |
| 3.2.4. Pauta | 54 |
| 3.2.5. <i>Hot clock</i> edo erlojua | 54 |
| 3.3. Gidoien diseinua | 55 |
| 3.3.1. Gidoi amerikarra (amerikar erara egindakoa) | 55 |
| 3.3.2. Gidoi europarra (europar erara egindakoa) | 55 |
| 3.4. Gidoiaren egitura | 56 |
| 3.4.1. Testuaren tipografia eta aurkezpen formala | 59 |
| 3.4.2. Irakurketa erraztuz | 60 |
| | |
| 4. IRRATSAIOAREN ERAKETA | 65 |
| 4.1. Irratsaioaren definizioa | 65 |
| 4.2. Irratsaio-motak | 65 |
| 4.2.1. Informazio-saioak | 65 |
| 4.2.2. Mistoak | 66 |
| 4.2.3. Musika-saioak | 67 |
| 4.2.4. Saio dramatikoak | 67 |
| 4.2.5. Denbora-pasakoak – Aisialdia | 68 |
| 4.3. Irratsaio baten eraketa | 68 |

| | |
|--|-----|
| 4.4. Irratsaio-motak eta eta gidoiak | 71 |
| 4.4.1. Albistegietako gidoia | 71 |
| 4.4.2. Magazinen gidoia | 75 |
| 4.4.3. Irratiko saio dramatikoak | 78 |
| 4.4.4. Gidoirik gabeko irratsaioak | 83 |
| 4.4.5. Publizitate-taxuerak | 86 |
| | |
| GEHIGARRIA: GIDOI BATZUEN ADIBIDE PRAKTIKOAK | 93 |
| I. Aurretiko pauta | 93 |
| II. Eskaketa osoa | 94 |
| III. Gidoi literarioa | 95 |
| IV. Gidoi teknikoa | 96 |
| V. Gidoi amerikarra | 97 |
| VI. Gidoi europarra | 98 |
| VII. Albistegien gidoia | 99 |
| VIII. Magazin baten gidoia | 103 |
| IX. Dramatikoen gidoia | 105 |
| | |
| BIBLIOGRAFIA | 107 |

Sarrera

Eskuetan duzun liburu hau ez da irrati-adierazpenari buruzko saiakera, irrati-ekoizpenean erabilgarria izateko helburua duen eskuliburu baizik. Beraz, hemen irratiari buruzko esparru teorikoen azterketa baino gehiago, irrati-idazketan eta gidoigintzan baliagarriak izan daitezkeen aholkuak eskaintzen saiatzen da egilea.

Komunikazioari buruzko testuen artean, prentsarako idazkera eta telebistarako gidoigintzari buruzko lanak erraz aurkitzen diren bitartean, irrati ia gehienetan baztertua izaten da, komunikabide honi buruzko teoriak ikus-entzunezko hizkuntzari buruzko liburuetan atal bat baino betetzen ez duelarik.

Eskuliburu honetan, berriz, irrati eta komunikabide honen lengoaia edo hizkuntza propioa azaltzen dira. Irratiak entzumenean eragiten badu ere, errealitate oso bat islatzen du, hiru dimentsioduna eta usainez betea. Entzunezko baliabideen bidez errealitate oso hori biziartzten die entzuleei, eta hauek etxean, autoan edo lantegian jasotzen dute, beste zerbait egiten duten bitartean..., edo gaueko bakardadea bete-tzeko nahian; beraz, irratiak bere hizkuntza garatu behar du, bere adierazpen-baliabideak sakonduz.

Baina entzunezko baliabideez —hitza, musika, hotsa eta isiltasuna, alegia— baliatzeaz gain, irratiak teknologia erabiltzen du soinu berriak sortzeko. Beraz, ezin da irratiaren alde teknikoa baztertu; eta zentzu horretan, teknologia berriak irrati-ohiturak eta lan-erak aldatuz doaz poliki-poliki, lengoaia berriak sortzeko bidean. Zentzu horretan, igarleek aurkakoa aurreratu arren, irrati bizirik dagoela esan dezakegu, eta oraindik ere aukera berriak eskaini ahal izango dizkigu.

Hala eta guztiz ere, komunikabide honetan presaka eta azkarregi ibiltzea izan dira —eta badira gaur egun ere— bidaia-lagunak, eta horrek kalte egin dio irratiari. Horregatik, batzuek irrati-adierazpenik ez dagoela azaltzen dute, edo, beste era batez esanda, irratiak bere hizkuntza propiorik ez duela eta errutina edo ohitura batzuen errepikapenak aurrera daramatzala, helburu zehatzik izan gabe.

Ikasleen artean ere oso hedatuta dago irratiari aritzeko ondo hitz egin baino behar ez dela dioen ideia edo ustea. Gutxi dira, ordea, hitzaren dohaina daukatenak, eta gehienek teknika batzuk ikasi behar dituzte mikrofonoaren aurrean jarri baino lehenago. Halaber, hitz egiten jakitea ez da nahikoa irratiari. Horretarako hitza ez ezik, beste baliabide asko ere erabiltzen eta nahasten jakin behar da, harmonia lortuz. Horregatik, baliabideen nahasketa hori ezin da inprobisatu edo bat-batean egin;

ondo taxutu behar da eta, horretarako, ezinbesteko tresna gidoia da: aditu askok diotenez «*inprobisaziorik onena idatzita dagoena da*».

Beraz, lau atal nagusitan banatu dugu testu hau. Lehenengoan, oso laburki esanda bada ere, irrati-estudioa, irratilariaren lantegia, azaltzen da, horretan aurkitzen diren elementu tekniko nagusiak aipatuz. Gaur egun, sistema analogiko eta digitalak batera bizi dira irrati-emandegi askotan, eta biak erabiltzen dira uhinak aireratzeko orduan; beraz, biak ezagutu behar dira, digitalizazioak sistema analogikoen desagertzea ekartzen badu ere.

Bigarren atalean, irrati-hizkuntza osatzen dituzten elementuak azaltzen dira: hitza, musika, hotsa eta isiltasuna. Honez gain, elementu hauek irrati-diskurtsoa adierazteko nola nahasten eta konbinatzen diren ere azaltzen da.

Ondoren, hirugarren atalean, gidoiaren inguruan ari da egilea. Erabiltzen diren gidoi-mota nagusienak azaltzeaz gain, kontuan hartu behar diren elementuak irakasten dira, modu zehatz eta errazean.

Amaitzeko, irratsaio ezberdinei dagozkien gidoi-motak azaltzen dira. Laugarren atalean, gehien erabiltzen diren irratsaio-taxuerak sailkatzeaz gain, bakoitzari dagokion gidoi-mota zehazten da. Honez gain, publizitate-taxuerak azaltzen dira, eta baita irratiko publizitateko hizkuntzari buruzko zenbait apunte eskaini ere.

1. Irrati-estudioa

Irrati-ekoizpena estudioan sortzen da; hori da irradi-emandegiko leku magikoa. Bertan, hitza, musika-hotsak eta isiluneak nahasten dira, diskurtso osoa osatzeko. Irrati-kate handietako estudio handiek zein herriko emandegietako txikiek xarma bera dute, lehenengoetan tramankulu gehiago aurkitu arren. Bai lehenengoetan bai besteetan soinuak mezu ezberdinak aireratzen dituzte, entretenitu, hezi edota laguntzeko asmo soilarekin.

Irrati-estudioan oso bereizirik dauden bi alde aurkitzen ditugu, bata bestearen aurrean kokatuta. Orokorki, isolatutako kristalezko horma batek bereizten ditu bi zonalde edo gune hauek, batetik bestean gertatzen dena ikus daitekeelarik. Era berean, bien arteko ikus-komunikazioa ere posiblea izaten da.

a) Mintzalekua: zonalde honetan hizlariak kokatzen dira. Bertatik hitz egiten dute irratsaioetan parte hartzen duten guztiek; esatari, gonbidatu, antzezle eta kaze-tariak, alegia.

Mintzalekuan oinarrizko bi elementu kokatzen dira:

- a) mikrofonoak:** mota askotakoak izaten dira behar ezberdinei egokituak, erabilienak, dinamikoak edo bobinakoak izaten dira.
- b) entzungailuak:** mintzalekuaren eta kontrol-gelaren arteko komunikazioa errazteaz gain, hizlariak airean dagoenaren berri izateko tresna baliagarriak dira.

Honez gain, erlojua ere aurkitu ahal da zonalde honetan, denboraren kontrola ezinbestekoa baita hizlariarentzat.

b) Kontrol-gela: bertan soinu-teknikaria dago. Halaber, tramankulu edo tresna teknikoak kokatzen dira, hala nola, konpaktuak, pletinak, nahasketa-mahaia e.a. Mintzalekuan daudenekin komunikatzeko mikrofonoak eta entzungailuak ere egoten dira kontrol-geletan.

Azken urteotan, teknologia berriak emandegietan sartu ahala, estudioen banaketa ere aldatuz doa. Ez da batere bitxia izaten mintzalekuaren eta kontrol-

-zonaldearen artean banaketarik ez aurkitzea. Adibidez, bi aldeak batzen dituen gela batetik hitz egin dezake esatariak, baliabide tekniko guztiak maneiatzen dituen bitartean, autokontrola bideratuz. Beste kasuetan, esatariak alde aurretik grabaturik, irratsaioak edo zatiak aireratzen ditu teknikariak kontroletik, mintzalekua hutsik dagoen bitartean. Dena dela, banaketa fisikorik aurkitu ez arren, eta teknologia eta mintzamena nahasten badira ere, bi zonalde hauek beti ezberdintzen dira irrati-prozesuan.

Kontrol-gelan irratsaioen errealizazioan beharrezkoak diren soinu-iturriak daude. Bi motatako tresnak ditugu erabilitako teknikaren arabera: analogikoak eta digitalak.¹

1.1. SISTEMA ANALOGIKOAK

Sistema analogikoetan, jatorrizko soinu-seinaleak eta tresna elektronikotik sortzen den seinaleak analogikoak izan behar dute. Hau da, jatorrian sortutako seinale akustikoa eta bitartekaritza teknikoaren bidez lortzen dena ahal diren antzekoenak izateak neurtzen du ekipoen fidelitasuna eta, bide batez, produkzioaren kalitatea.

1.1.1. Zinta irekia edo bobina-magnetofonoa

Zinta magnetikoan oinarrituriko grabaketa-sistema da. Soinua grabatu eta entzuteko erabiltzen da. Abiadura ezberdinetan funtzionatu ahal du —15, 7 1/2 eta 3 3/4 baliokoetan—; abiadura azkartzen dugunean, zintaren iraupena ere bikoizten da. Era berean, grabaketa-abiadura entzundako soinuaren kalitatearekin lotuta dago: zinta astiroago doanean, bobinaren iraupena luzeagoa bada ere, soinu-kalitatea eskasagoa da. Dena dela, eta lan-beharrei egokituta, beti kontuan hartu behar da grabaketan erabilitako abiadura, eta hori bera erabili entzuteko orduan.

Beste aldetik, bobina-magnetofonoetan zinta zuzenean manipula daiteke, baita eskuarekin ere; horregatik oso erabiliak izan dira muntaketan eta edizioan. Gaur egun, sistema digitalek ordezkatu dute bobina-magnetofonoa, azkarragoak eta zehatzagoak izateaz gain, sortutako produktuek kalitate handiagoa eskaintzen dute eta.

Magnetofonoak pista bakarrekoak zein pista anitzekoak —multipistak— izan daitezke. Pista anitzeko aparatuetan elementu ezberdinak pista banatan grabatu ahal dira, muntaketan konbinatu ahal izateko.

1. Ingelesezko *digital* hitzetik hartu dugu adjetiboa, frantsesez *numerique* hitza erabili arren.

1.1.2. Disko-platoa

Azetato-diskoetan edo biniloetan grabaturikoa entzun ahal izateko erabiliak dira. Irratian erabilitako platoetan orratza nahi den toki zehatzean utz daiteke, hasteko prest, nahi den esaldi musikaletik has dadin, eta “negarra” deituriko efektua gainditzeko —etxeko aparatuetan, berriz, diskoak abiadura txikiagoz hasten direla eta, efektua nabaritzen da—. Aparatu hauek desagertzen ari dira eman-degi gehienetan, disko trinkodun (CD) sistemak ordezkaturak.

1.1.3. Kartutxerak

Kartutxoa, barruan amaigabeko zinta duen ontzi plastikoa da. Inpultsuen bidezko grabaketa-sistemak grabaturiko tartearen hasiera eta amaiera ezartzen du. Erabili ondoren, kartutxoa hurrengo inpultsuraino aurreratzen da automatikoki. Kartutxeraren bidez oso erabiliak diren grabaketa labur asko airera daitezke: sintoniak, soinu-boladak, publizitate-taketak, etab. Ez da hasiera-puntuak bilatzen ibili behar, bilaketa hori sistemak egiten du eta.

Kartutxera hauek poliki-poliki desagertzen ari dira, sistema digitaletan ordezkaturak.

1.1.4. Pletina (kasetea)

Kaseteek ez dituzte bobinek eskaintzen dituzten manipulazio-aukerak ematen; hala ere, ekipo mugikorretan erabil daitezke, oso tamaina egokia baitute —hasiera batean, prentsaurrekoak edo gertaeren soinuak grabatzeko ekipo handiegia eta pisudunak eraman behar ziren; gaur egun, aldiz, grabagailu txikiak erabiltzen dira—.

Kasete analogikoen desabantaila nabariena soinu-kalitatearen galera da: grabaketaz grabaketa —zinta batetik bestera— soinu-informazioa galduz doa, hotsak edo akatsak ugaritzen dira eta kalitatea galtzen da.

1.2. SISTEMA DIGITALAK

1.2.1. Disko trinkoak

Sistema analogikoak baino kalitate hobea eskaintzen du disko trinkoak edo *Compact-Disc* delakoak (CD). Audio-seinalea itxura digitalaz kodifikaturak dago eta prozedura optikoaren bidez irakurtzen da. Disko trinkoan soinua alde batean grabaturik dago zulo txiki edo hutsune txikietan. Laser izpiak zulo horiek irakurtzen ditu —barrualdetik kanpoalderantz—, eta zenbaki formara bihurtzen du jasotako informazioa: hau da, irakurtzen duen tokian, zuloa egon ala ez egotearen arabera, 0

edo 1 irakurtzen du laserrak. Informazio hau D/A —Digital/Analogiko— konbertsore edo bihurgailu batera eramaten du sistemak, bertan audio-seinale analogiko bihurtuz.

Prozedura osoan diskoarekiko kontaktu fisikorik ez dagoenez, zaila da diskoa matxuratzea. Era berean, mantenimendua askoz errazagoa da, diskoak oso gogorrak baitira. Halaber, hautsak eta atzamarrek ez dituzte hondatzen.

Beste aldetik, binilo-diskoak baino txikiagoak izan arren —120 mm-ko diametroa—, grabaketa-denbora zabalagoa izaten da —74 minutu inguru—. Beraz, irratiko diskotekan biltzea ere errazagoa izaten da.

Irratian erabiltzen diren disko trinko gehienak aurretik grabaturikoak badira ere (eta musika erreproduzitzeko erabiltzen dira), egon badaude graba daitezkeen disko trinkoak edo CD-Rom izenekoak. Grabaketa-sistema honen abantaila eskaintzen duen kalitatea bada ere, sistemak desabantaila bat du: behin grabatuta, ezin da ezabatu edo ganean berriro grabatu, ezta grabaketa berri bat hasi, diskoa beterik ez balego ere. Horregatik, sistema hau oso kalitate handiko kopiak edo *masterrak* egiteko erabiltzen da, eta baita publizitatean edo irratsaioen kalitatezko frogak egiteko ere.

Irrati-muntaketak egiterakoan, ondoko abantaila eskaintzen du: ebakiak zehazki koka eta atera daitezke. Era berean, hasiera-puntua memorizatu eta errepika daiteke eta, honez gain, emanaldia aurretik programa daiteke. Disko trinkoen aparatu batzuetan disko bat baino gehiago programa daitezke.

1.2.2. DVD-Audioa (Digital Versatile Disc)

DVD, CD-Roma hobetzen duen sistema da. Audio-kalitate handia eskaintzeaz gain, disko trinkoek eskaintzen ez duten bi aldetan grabatzeko aukera ere ematen du. Kapazitateari dagokionez, 4,7 GB alde batean eta 8,5 GB bikoitzetan gorde ditzake diskoak. Horregatik, DVD batean musika-talde baten ekoizpen diskografiko osoa —eta horren informazio grafikoa eta ikus-entzunezkoa ere bai— gordezea ahalbidetzen du sistemak.

DVD-Audioaz gain, honako hauek ere aurki ditzakegu: DVD-ROM, DVD-Video, DVD-R eta DVD-RAM.

Gaur egun dauden disko trinkoetarako ekipoekiko konpatiblea edo bateragarria da DVD delakoa eta ez da oso erabilia audioa entzuteko; hala ere, Internetetik musika-artxiiboak grabatzeko sistema egokia izan daiteke, kalitate bikaina lortzen baita (MPEG konpresio-sistema erabiltzen du eta).

1.2.3. Minidiskoa

Minidiskoa grabaketa- eta edizio-sistema digitala da; izatez etxeko kontsumo-rako sortu bazen ere, profesionalak ere erabiltzen dute. Disko trinkoa edo CD-an erabilitako antzeko prozedura optiko baten bidez, audio-seinalea disko txiki batean grabatu eta erreproduzitzen da laser izpiaren bidez. Datu teknikoei dagokienez, mini-diskoan erabilitako sistema ATRAC izenekoa da, 5etik 1erako konpresioaz, eta muestreo frekuentzia 44,1 kHz-ekoa izanik.

Kartutxo baten barruan kokatzen da diskoa, eta kaxa horrek babesten du. Diskoaren tamaina txikiak —72×68 mm— oso maneiagarri bihurtzen dute ekipo garaigarrietan erabili ahal izateko.

60', 74' eta 80'-ko iraupena duten minidiskoak daude eta soinu-informazioa *track* edo tarte ezberdinetan bana daiteke, eta baita hauek moztu, borraratu, konbinatu eta mugitu ere, hau da, editatu. *Track* bakoitzean dagoen informazioa ezagutzeaz gain, nahi den une zehatzetan berreskura daiteke. Horregatik, irrati-emandegi askotan kartutxeraren funtzioa ordezkatu du eta oso erabilia da publizitatea eta irratsaioen adierazleak, soinu-boladak eta beste tarte laburrak grabatzeko eta emititzeko.

Disko trinkoen funtzionamendu bera izan arren, horien aldean abantaila batzuk eskaintzen ditu:

- Tamaina txikiagoa du grabaketa-iraupen berdina izan arren.
- Informazioa behin eta berriz graba daiteke, eta editatzeko (hau da, nahi ditugun konbinaketak egiteko) aukera ematen du.
- Kolpeek edo bibrazioek diskoaren seinale-jasotzea oztopatu arren, erreproduzio zuzena eskaintzen du beti; hau da, ez da disko trinkoetan gertatzen den "saltoa" ematen.

1.2.4. DAMS (*Digital Audio Mass Storage*)

Hau ere kartutxeren ordeztu erabiltzeko sistema da, publizitate-taketak emititzeko diseinatuta baitago. Disko gogor batean publizitate-ziriak memorizatzen dira; sistemak 0,5 segundotan koka eta aurki ditzake, ordena emanez gero, eta ondoren hasiera-puntutik ematen ditu.

1.2.5. DAT (*Digital Audio-Tape*)

DAT izenekoa bi kanaleko grabaketa-sistema digitala da, kasete-itxurakoa. Bi motatako sistemak daude: S-DAT (buruak finkoak ditu) eta R-DAT (buruak jirutzen dira); lehenengoa baztertu zen bitartean, bestea DAT izenekoa da.

Grabaketa-sistema honen oinarria kasete txiki baten barruan dagoen zinta magnetikoa da; zinta hori jirutzen den danbor batean kokaturiko buruen bidez grabatzen da. Zinta metalezkoa edo burdina oxido eta bario oxidozkoa izaten da, eta bere zabalera 3,81 mm-koa da; esan dugunez, zinta hau 73×54×10,5 mm-ko tamaina duen kasete baten barruan dago.

DAT sistema honek oso kalitate bikaina eskaini ahal dio soinu-teknikariari; baina kontsumo pribatuari zuzenduriko DAT-ak ere badaude. Beraz, kalitatearen arabera hiru laginketa-frekuentzia aurki ditzakegu sistema honetan: a) 48 kHz-ekoa: kalitate handiko grabaketa profesionaletan; b) 44,1 kHz-ekoa (CD-kalitatea): aurretik grabaturiko zintetan eta c) 32 kHz-ekoa: irrati-hedapenean.

Kasete analogikoak baino txikiagoak diren zintak erabiltzen dira, iraupen luzeagoa izan arren —120 minutu graba daitezke—. Sistema digitala denez, zinta berean grabaketa asko egin daitezke kalitatea galdu gabe, eta erabilera mugagabea da. Hala eta guztiz ere, desabantaila bat du: informazioa berreskuratzeko orduan, ezin da berehala jaso, zinta baita.

DAT sistema oso erabilia izaten da kontzertuak edo irratsaioak grabatzeko orduan, kalitate bikaina eskaintzen baitu; askotan, beste grabaketa batzuk —disko trinkoetan edo...— egiteko *master* edo lehenengo kopia modura erabiltzen da.

1.2.6. DCC (Digital Compact Cassette)

Philips etxeak sortutako kasete digitala da DCC izenekoa. Buru bakarrekoa bada ere, ez du DATen sistema erabiltzen, zintaren formulazioa eta mekanika oso ezberdinak baitira sistema bietan.

DCCk 18 biteko audio digital estereoa grabatu eta erreproduzitzen du, eta hiru laginketa-frekuentzia ezberdin erabiltzen ditu: 48 kHz, 44,1 kHz eta 32 kHz. MPEG-1 trinkotasun-sistema erabiltzen du eta 4tik 1erako konpresioa.

DCC eta kasete analogikoaren tamaina berbera da eta bi sistemak konpatibreak edo bateragarriak dira edo, hobeto esanda, zinta analogikoak kasete digitalak irakur ditzake.

Kasete digital honetan ez dago ezabatzeko bururik, eta aurreko pistaren gainean egiten da grabaketa.

1.2.7. Magneto optikoa (floptical)

Grabaketa magneto-optikoak (MO) oso partikula magnetiko txikiak erabiltzen ditu informazio digitala kodetzeko, zinta digital magnetikoan egindakoak bezala. Baina grabaketa magneto-optikoa, berriz, ez da zinta baten gainean oinarritzen,

disco batean baizik. Era berean laser izpiak lerrotzen ditu partikulak eta ez buru magnetikoak; eta partikula horiek berotu behar ditu sistemak. Prozesu honek diskoa behin baino gehiagotan grabatzea ahalbidetzen du. Sistema honen desabantailak honako hauek dira: ezin da CD arruntekin bateragarri egin, garestia da eta grabatzeko kapazitate murrizta du.

Sistema magneto-optikoa *softwarea* grabatzeko oso egokia da, eta, horregatik, disko gogorrean grabaturiko informazioa —disko gogorreko audio sistemetatik irratian— gordetzeko erabiltzen da.

1.3. NAHASKETA-MAHAIA

Aipaturiko soinu-iturriak nahasketa-mahai batera heltzen dira eta hortik manipula daitezke irratsaioa egiteko orduan. Mahai digitalak eta analogikoak batera bizi dira gaur egun.

Nahasketa-mahaira, mikrofono, telefono, pletina eta abarretatik heldutako seinalea jasotzen da eta “*fader*” edo erregeleta baten bidez konbinatu eta nahasten dira.

Honez gain, mahaian audio-maila ere kontrola eta alda daiteke, eta soinu-efektuak ere sartzten dira —batzuetan heldutako seinalea hobetzeko asmoz—. Era berean, nahasketa-mahaian iragazkiak edo filtroak izaten dira; hauen bidez hotsak edo nahi ez diren soinu-seinaleak ken daitezke.

1.4. DISKO GOGORREKO SISTEMAK

Orain arte azaldutako sistema digitalak mugikorrek dira; hau da, informazioa eraman daitekeen disko edo zinta txiki batean grabatzen da. Horiez gain, irrati-emandegi askotan disko gogorreko sistemak edo ordenagailuen bidezkoak sartu dira: DALET-Digigram, VIVA, MAR SYSTEM, DINESYS (Dinesat 4,2), ANTEX Mpeg-32K, LINUX, besteak beste.

Sistema ezberdinak izan arren, kapazitate eta erabilpen konkretuei egokituak, orokorrean antzeko funtzionamendu-eredua izaten dute. Kapazitate handiko sistema gogorrean irrati-emanaldian parte hartuko duten soinu edo informazio guztiak graba daitezke: sintoniak, errafagak edo soinu-boladak, soinu-efektuak, publizitate-taketak, abestiak, gai musikalak..., eta baita telefonoz egindako elkarrizketak edo kronikak ere.

Grabaketaren ondoren, elementu horiek guztiak nahastu eta editatu egin daitezke irratsaioaren beharren arabera. Hor geratzen dira, beharrezkoa denean era-

biliak izateko, artxiboetan gehiegi bilatu gabe, edozein momentutan eskuragarri, segundo batzuk itxaron orduko.

Kalitate digitalaz, elkarrizketetan zehar izandako akatsak —uuu!!, beno!... eta honelako makulu-hitzak— ken daitezke, eta baita informazioa oztopatzen duten elementuak ere. Eta editatze hori mozketak edo ebaki-puntuak nabaritu gabe egin daiteke, hau da, manipulazio mekanikoan gertatzen diren arazoak nabarmendu gabe.

Muntaketak egiteko orduan, soinu-nahasketa errazagoa izaten da pista anitzeko editoreei esker. Parametroak sartuz gero, musika, hitza eta efektuak nahi diren planoetan jar daitezke, ordenagailuaren aurrean, aintzinean saio dramatikoak egiteko erabiltzen ziren estudio erraldoiak erabili gabe. Beraz, sistema erabiltzen duenaren sormen-ahalmenaren arabera, disko gogorraren barruan soinu-mundu osoa era daiteke, sistema analogiko edo mekanikoek sortzen zuten munduaren mugarik gabekoa dena.

Emanaldi automatikoa eskaintzeko aukera ere ematen dute sistema digital finkoek. Sistemen arabera, ordenagailuaren memorian hainbat ordu graba daitezke, eta grabatutakoa emanaldi automatikoaren bidez aireratu, inork kontrolatu gabe. Esan dugunez, memoria-kapazitatearen arabera, emanaldi honen autonomia handiagoa edo murriztagoa izan daiteke.

1.5. ISDN (ZERBITZU INTEGRATUEN SARE DIGITALA)

Produktzio- eta errealizazio-sistemak digitalizatu diren legez, informazioa jaso eta bidaltzeko sistemak ere digitalizatu egiten dira irratietan askotan. Estudioarekin harremanetan jartzen zuen bide mikrofonikoa ordezkatzen du ISDN telefono-lineak —Sistema Integratuen Sare Digitalak alegia—.

ISDN lineak telefono-linea arruntan salneurria du, baina informazioa bidaltzeko eskaintzen duen aukera askoz handiagoa da. Esaterako, datuak bidaltzeko orduan, telefono-linea normalaren konexio-abiadura 33 kbp-koa den bitartean, ISDNen abiadura 128 kbp-ra hel daiteke.

Era berean, soinu-informazioa estereo-kalitatearekin bidaltzeko aukera dago. Aukera honek estereoz emititzeko era ematen badu ere, musika-emanaldietan soilik erabiltzen ari da gehienetan, kalitate oneko grabaketak lortzeko. Honako honetan jasotako informazioa —musika— disko trinkoetan edo DATean grabatu ohi da. Zentzu honetan, zenbait erretransmisioetan, ISDNen bidezko transferentziek lehen bide mikrofonikoen bidez egiten zirenak ordezkatu dituzte.

2. Irrati-hizkuntza

Zentzumen guztiek eman dizkioten sentrazioen bidez jasotzen du mundua gizakiak. Irratiak, berriz, entzumenaren aldetik bakarrik eskaintzen dio mundu hori. Beraz, irratian entzute-adierazkortasunaren bidez agertzen da errealitatea; hala ere, entzuleak osotasunean jasotzeko pertzepzioa izaten du.

Entzute-adierazkortasunari dagokionean, honako ahalbide hauek erabiltzen dira: gizakien hizkuntza artikulatua —hitza—, hizkuntza harmonikoa —musika—, animalien eta gauzen hizkuntza —hots edo zaratak— eta isiltasuna. Horien arabera irrati-adierazpena osatzen duten lau azpisistemaz hitz egin daiteke: komunikazio mintzatuaren azpisistema, musikala, hotsena eta isiltasunarena.

R. Balsebre-k honela definitzen du irratiaren soinu-mezua: naturak, musika-tresnek edo pertsonak sortutako eta irrati-lengoiaren erreperitorioen arabera sailkatutako hots-segida ordenatu, jarraitu eta esanguratsua. (BALSEBRE: 1994, 20 or.).

2.1. HITZ ESANA

Hitz esana honela defini dezakegu: gizakiak ideia bat azaltzeko asmoz sortzen dituen artikulaturiko soinuen multzoa, alegia, gizakiak artikulatzen dituen seinale entzungarriak.

Zalantzarik gabe, irratian hitzak oso garrantzia handia du, irrati-adierazpenaren funtsezko elementua delarik. Irratsaio gehienetan hizlaria idatzitako testuaren gainean ari bada ere, entzuleak hizkuntza naturalean eraturiko mezua balitz bezala jaso behar du, hau da, ez du irakurketa nabaritu behar.

Hori dela eta, irratiarako idatzitako testuak ozena behar du izan. Horregatik, naturaltasuna eta freskotasuna oso garrantzitsuak dira idazteko orduan. Beraz, testuek hurbilago egon behar dute hizkuntza naturaletik hizkuntza literariotik —gramatika-arau hertsietatik— baino.

2.1.1. Irrati-hitza: esateko idazkera

Irratiarako idazteak baditu bere berezitasunak, adibidez, prentsarako idazkerarekin konparatzen badugu. Irratiarako idazteko orduan kontuan hartu behar diren aholku hauek azaldu ohi dira:

1. Urrezko araua honako hau da: ahozko hizkuntza erabili behar da. Hau da, ESATEKO idatzi behar da, mezua eskuratzeko orduan entzuleak gutxieneko ahalegina egin dezan. Horretarako, beharrezkoa da:

- a) Hizkuntza naturala erabiltzea: hau da, hizkuntza ikasiegitik ihes egitea, esandako hitza ahal den naturalen entzun dadin. Horretarako, mikrofonoaren aurrean jarri baino lehenago, oso komenigarria da testuak idatzi ondoren ozenki irakurtzea eta, halaber, beste norbaitek idatzitako testuak norberaren esateko erari egokitzea.
- b) Egitura gramatikal xume eta sinpleak erabiltzea, batzuetan literarioki egokienak izan ez arren. Horrek ez du esan nahi, arau gramatikalak kontuan hartu eta errespetatu behar ez direnik. Beraz, sintaxiaren arauak hitzez hitz jarraitu baino gehiago, esaten duguna era naturalean mantendu behar da, beti ere ulermenaren zerbitzuan.
- c) Lagunarteko hizkuntza erabiltzea; baina honek ez du esan nahi arruntgia izan behar duenik. Honez gain, estilo zuzena izaten da egokiena: aditz aktiboak egokiagoak dira pasiboak baino, orainaldia lehenaldia baino, eta adierazlea subjuntiboa baino. Era berean, ahal den neurrian, ez dira perifrasiak erabili behar, testua astunduko lukete eta; hobe da horren ordeztu aditz zuzena erabiltzea. Esaterako, «*aipamena egin*» edo «*azalpenak eman*» bezalako adierazpenak baino hobeto «*aipatu*» edo «*azaldu*» aditzak erabiliko dira.

2. Ideiak argi azaldu.

Irratian erabilitako hizkuntzak argia behar du izan. Honez gain, ideiak argitasunez aurkeztu behar dira, entzuleak askotan arretarik gabe aditzen baitu. Horretarako, oso garrantzitsua da:

- a) Zer esan nahi dugun jakitea: alde batetik, eman nahi dugun informazioa edo mezua argi izatea, eta, bide batez, garrantzitsuena azpimarratzea. Batzuetan azaltzen den gertaeraren subjektua azpimarratu nahi den bitartean, besteetan gertaera bera da garrantzitsuena. Horrek eragina izango du azalpenaren ordenan.

Adibidez,

«*Clemente futbol-entrenatzaileak futbola uzten duela azaldu du gaur goizean eman duen prentsa-aurreko batean.*».

Hemen argi dago garrantzitsuena pertsonaiak egindakoa iragartzea dela.

«*Clemente futbol-entrenatzaileak prentsaurreko bat eskaini du gaur goizean. Bertan futbola utziko duela iragarri du.*».

Honetan, hizlariak prentsaurrekoa egin izana azpimarratzen du, nahiz eta hor albisterik ez egon. Honelako adibide asko aurkitzen dira, esatari berrien ahotan batez ere.

- b) Datu gehiegi ez ematea, beharrezkoak edo garrantzitsuak ez direnak alde batera utziz edo enoratuz. Esaterako, ekonomiari buruzko albisteetan edo zenbaki asko azaltzen direnean, datuak biribildu egiten dira, eta ez dira zehatz-mehatz ematen ulermen onaren mesederako.

Adibidez,

«Kutxak 13.564 milioi pezeta irabazi zituen iaz»

esan beharrean, honela azalduko genuke:

«Kutxak 13 mila milioi pezeta inguru irabazi zituen iaz».

«487 pertsona hil dira istripuaren ondorioz» esan beharrean, *«ia 500 pertsona hil dira istripuaren ondorioz».*

3. Esaldi laburrak erabiltzen dira, menpekoen erabilera saihetsiz, estilo zuzena erabiltzea komenigarriagoa izaten baita. Norbaiten hitzak azaldu nahi direnean, horien adierazpen zuzenak —grabatutakoak edo zuzenean— ematen dira, ahal den neurrian; jaso ez badira, horien laburpena egingo da. Inoiz ez da hitzez hitz esandakoa lehenengo pertsonan errepikatuko, entzuleak adierazpenak hizlariarenak berarenak direla pentsa dezake eta.

4. Zehatza izan behar da. Esaldiak argi eta zehatzak izan daitezten, ez dira kontzeptu abstraktuak erabili behar.

Adibidez,

«Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeen ehuneko laurogei isilik geratzen dira» esan baino askoz zehatzagoa —argiagoa— izan daiteke honela esatea *«...hamar emakumetatik zortzi isilik geratzen dira»*

Pertsona eta gauzen izenak aipatu. Pertsonaiaren kargua aipatu behar denean, komenigarria izaten da lehenengo kargua aipatu eta ondoren izen propioa esatea; hots, ez da aposizioa erabili behar.

Adibidez,

«Eusko Jaurlaritzako lehendakari Juan Jose Ibarretxek irratian azaldu zuen legez...» esatea komeni da, eta ez *«Juan Jose Ibarretxek, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, irratian azaldu zuen legez...».*

5. Ahal den neurrian, ez dira erabiliko ez teknizismoak ez hitz landuegiak. Teknizismoak erabiltzea ezinbestekoa denean, hauen esanahia azaldu behar da, entzule guztiek uler dezaten, entzuleak oso heterogeneoak izaten baitira, eta kultur zein gizarte-maila ezberdinetakoak dira eta. Guztientzat hitz egin behar da, eta ez eman ezer jakintzat. Batzuetan, hizlariak berak ez du hitza ulertzen eta, hala ere, erabiltzen du; horrek komunikazioa oztopatzen du, izan ere, ulertzen ez duenak nekez azalduko dio ezer entzuleari.

Behar-beharrezkoa denean, hitz espezializatu edo teknikoaren esanahia argitu behar da edo, bestela, ulergarria egingo duen testuinguruan kokatu. Azkenaldi honetan modan jarri da irratian *pauta* edo *eskaletari* buruzko aipua egitea, entzuleek horiek zer diren jakin behar balute bezala.

Adibidez:

«*Albisteari hasiera baino lehenago titularren bateria*» dio hizlariak entzuleak zer den jakin beharko lukeelakoan. Hobeto litzateke honela esatea: «... *beste albiste batzuk aurreratuko ditugu titularretan*».

6. Atzerritar hitzak ere ekidin behar dira, horren ordez euskarazkoak erabiliz. Maileguei dagokienean, Iparralde zein Hegoaldeko entzuleek ulertuko luketena kontuan hartu behar da, batez ere emandegiaren hedapen-eremua Euskal Herri osoa denean. Gaztelaniatik edo frantsesetik hartutako maileguak ulertezinak izan daitezke batzuentzat edo besteentzat. Adibidez, «auto» hitza egokiagoa da askotan erabiltzen den «kotxea» baino, azken honek gaztelaniaren erreferentzia du eta.

Atzerritar izen berezi dagokionez, jatorrizko ahoskera jakiten denean, errespetatu egiten da. Dena den, hori ez da oso arau finkoa eta batzuetan bakoitzaren hizkuntzaren arabera egokitu behar da ahoskera, izena ulergarria izan dadin, batez ere jatorrizko hitzaren ahoskera ezagutzen ez denean. Hala ere, arazorik izan ez dadin, testuan esango den moduan idaztea komeni da, ahoskera hori oso zuzena ez balitz ere.

7. Entzuleak datuak edo informazioa nahastu ahal dituzenean, argitu egin behar da puntu hori. Esaterako, «*milioi*» eta «*bilioi*» bezalako hitz antzekoak ondo bereizi behar dira («*milioi, emez*» edo «*bilioi, bez*», esan ohi da). Hitz edo kontzeptu ezezagun edo berri bat sartu nahi denean, horrekin batera bere sinonimo edo azalpen zehatza gehituko da.

8. Klixeak baztertu egin behar dira. Informazioari kalitatea murrizten diote, olerkerietan erabilitako errima errazen efektu bera baitute, eta entzuleak berehala jakin baitezake esaldia nola amaituko den.

Kluxeak erabiliz gero, hiru arriskutan eror daitezke: testua barregarria gertatzea, informazio nahikorik ez ematea edo esaldia behar ez den moduan korapilatzea.

Adibidez, esatari askok hitz berberak erabiltzen dituzte saioa hasteko edo atal ezberdinak bereizteko «*Egun, on, lagunak, zuekin berriz ere ...*» edo «*..orain Euskal Herrira itzultzen gara informazio berrien bila...*» entzuleak zer esango duen aurreratu ahal duelarik. Esaldi ezagunak ez errepikatzeko, aurkezpen berriak pentsatu edota idaztea litzateke onena, eta ez hainbeste bat-batean asmatzea.

9. Errepikapenak erabiltzea. Informazioa edo mezua ulertzeko, oso garrantzia handia dutenean, beharrezkoa egiten da esaldi, izen, hitz edota ideia errepikatzea. Irratian, entzulea behin eta berriz kokatu behar da. Esandakoaren haria gal ez dezan, datu berriak ematen diren heinean, aurretik azaldutakoak berreskuratzen dira. Gainera, entzule batzuek emanaldia hasieratik jarraitzen duten bitartean, beste batzuk, berriz, hasita dagoela gehitzen dira.

Adibidez, honako eskema erabiliko genuke albiste bat emateko orduan: informazio garrantzitsua/datu berria/errepikaturiko datu bat/datu berria... Telefono eta helbideak ere behin baino gehiagotan ematea komeni da.

2.2. MUSIKA

Musika honelaxe defini dezakegu: ahotsa edo musika-tresnen soinuen konbinazio artistikoa, zeinaren bidez ideiak, sentimenduak edo zirrarak azaldu eta sentipen atseginak sortzen diren.

Oro har, musikaren mezu semantikoa mugatua den bitartean, informazio estetikoa oso signifikantza edo esanahi handia du.

Irrati-musika, berez, programazioaren partaide autonomo modura ager daiteke edo, hitzarekin edota hotsekin lotuta, irrati-diskurtso oso baten partaide gisa. Hori dela eta, funtzio ezberdinak bete ditzake.

2.2.1. Irrati-musikaren funtzioak:

a) Funtzio semantikoa

Irrati-musikaren funtzio semantikoari garrantzia handia eman zaio. Funtzio hau emandegi zein irratsaioen sintonietan nabarmentzen da bereziki, irratsaioa identifikatzen duen gai edo tema musikala baita sintonia. Honetan, musikak aho-enuntziatua ordezkatzeko duen eta, berez, esanahi osoa eskaintzen du. Entzuleak ezagutzen duelako jaso ahal dezake informazio semantikoa: sintonia entzun bezain pronto, entzuleak badaki zein emandegi edo irratsaio entzuten ari den. Bien arteko identifikazio zuzena gertatzen da, eta horregatik, irratsaioek urte askotan sintonia bera mantentzen dute —batzuetan garai edo musika-joera berriei egokitu arren—, entzulearen fideltasunean oinarritzen baita kode semantiko honen deskodifikatzea.

b) Girotze-funtzioa

Beste batzuetan, eszena edo une zehatz bat girotzeko erabiltzen da musika, giroa edo egoera berezi bat sortzeko asmoz. Beraz, aukeraturiko tema musikalak azaldu edo azpimarratu nahi den eszenarekin bat egin behar du, eta nahi den sentimendua adierazi: hori dela eta, eszena alai bada, musikak ere alaitasuna adieraziko luke; eszena goibeletan, berriz, musika tristeagoa edo serioagoa erabiliko litza-teke.

c) Kokapen-funtzioa

Musikak toki geografiko batean kokatu ahal du entzulea. Sanbak Kariben kokatzen duen bitartean, tangoak Argentinarraino eramanezake. Era berean, pertsonaiak egoera edo leku zehatz batean kokatu nahi direnean, tokiari egokitutako musika erabiliko da. Adibidez, zirkoko musika eszena zirko batean gertatzen bada; eta rock-kontzertu batean, berriz, rock and rolla entzungo da bigarren planoan.

d) Entretenitzeko funtzioa

Zalantzarik gabe, musika-irratsaioen funtzio nagusia entretenitzea da. Bere gustuen arabera, entzuleak musika-mota bat edo beste aukeratzen du, eta portaera horrek mota askotako irratsaio musikalak egitera bultzatu ditu irradi-programatzaileak. Emandegi batzuek musika-programazio espezializatuak eskaintzen dituzte: *Euskadi Gaztea*, *RNE-Radio Clásica* edo *Radio Sinfo* irratiek, esaterako. Beste batzuek, berriz, programazio generalista edo irratsaio ezberdin askotakoa eskaini arren, musika tartekatzen dute irratsaioetan zehar, entzuleak entretenitzeko helburu bakarraz.

e) Puntuazio-funtzioa

Musika puntuazio-zeinuen ordez erabiltzen da irradi-diskurtsoan. Gortinilla, zubi eta musika-boladek diskurtso idatzian koma eta puntuak duten funtzio bera izaten dute. Zentzu horretan, irratsaioak edo irratsaioen barruko atalak bereizteko funtzioa betetzen du musikak.

Honez gain, musika-puntuazio hau irradi-diskurtsoa azpimarratu edo komentatzeko ere erabili ohi da. Adibidez, esaldi bat amaitzeko erabiltzen duen musikak esandakoari kontrapuntu ironikoa jarri ahal dio, errubrika barregarri moduan, edo, alderantziz, hitzen larritasuna azpimarratu ahal du.

f) Funtzio estetikoa

Orain arte, azaldukoaz gain, musikak emozio eta gozamen estetikoa ere eragiten ditu entzulearengan.

Irrati-musikari dagokionez, oinarrizko bi funtzio estetiko bereiz daitezke (BALSEBRE: 1994, 102 or.):

- Funtzio adierazkorra: musikak konnotatzen duen mugimendu afektiboak emozio zehatza eragiten du, soinu-giro berezia sortuz. Musika batzuek

entzulea dantzatera bultzatzen duten bitartean, beste batzuek, berriz, hausnarketa edo lasaitasuna eragiten dute.

- Funtzio deskriptiboa: musikak paisaia bat deskribatzen du, ekintzaren eszena kokatzen du eta irrati-kontakizunaren gertaerak suertatzen diren lekua azaltzen du, baina ez nahitaez era zuzenean, kokapen-funtzioan azaldu dugun moduan, atmosfera bat iradokiz baizik; adibidez, Vivaldi-ren Lau Urtaroak edo Haydn-en Eztei-martxa.

2.2.2. Musika, irratsaio modura

Irratian musika bere izate edo entitate propioaz ere ager daiteke, irratsaioen eduki nagusia osatuz. Hain zuzen ere, FMren garapena musika-saioetan oinarritu zen, estereofoniari lotuta.

a) Top 40 izeneko irratsaioak

Euskadi Gaztea, 40 Principales... eta antzeko irrati-programazioetan musikak garrantzia handia du eta, berarekin batera, *disc-jockey* delakoak. Irrati-programaziorako mota hau 40ko hamarkadan sortu zen Estatu Batuetan, Europan pixka bat geroago arrakasta handia lortu zuelarik. Irrati-formula musikal hau Frekuentzia Modulatuan kokatzen da batik bat, eta entzule gazteei zuzentzen zaie. Irratsaio-mota hau abestien zerrenda batean oinarritzen da, eta *disc-jockey*aren iruzkinak abestien gainean zamalkatzen dute hitza, aurreko tema hurrengoarekin lotuz.

Formula honen aldaera batzuk daude, batez ere gaztetasuna atzean utzi duten nostalgikoei zuzendutako irrati-formulek eskaintzen dutenak: PRISA komunikazio-talde espainiarraren Cadena Dial edo M-80 eta holakoak dira horren adibideak.

Azken urteotan, aldaketa bat sumatu da irrati-formula musikal hauetan: hasieran, *disc-jockey* anonimo bereiztezinak —ahots eta estilo berekoak— bilatzen ziren bitartean, gaur, berriz, formula pertsonalagoak nahiago izaten dira, entzule eta esatariaren arteko lotura emozionala bultzatuz. Nolanahi dela, programazio hauetan funtsezko elementua musika izaten da.

b) Musika klasikoari buruzko irratsaioak

Musika klasikoak funtzio estetiko bat betetzen du, zalantzarik gabe. Horregatik, irratian musika klasikoak ere bere lekua du, oso entzuleria zehatza izan arren. Hauetan, hizlariak ez du ia parte hartzen, bere funtzioa tema musikala aurkeztea izanik. Irratsaio hauen iraupena luzea izaten da eta ia etenaldirik gabe eskaintzen da musika. Radio Sinfo da honen adibide bat.

c) Musika herritarra edo folklorikoa

Musika herritarrak eta folklorikoak osatzen du beste irrati-programazio mota bat. Estatu Batuetan *country* musika eskaintzen dituzten programazioak arrakasta-

tsuenak dira eta entzuleria kopurutsuenak izaten dituzte. Irratsaio horietan, funtzio estetikoak baino gehiago, entzuleekiko hurbiltasuna edo zaletasuna bilatzen da. Horretan datza harrera ona: entzuleak oso hurbil sentitzen duen musika eskaintzen da, eta entzuleak ezagutzen du eta askotan abesten du aditzen duen bitartean.

d) Musika espezializatua

Entzule zehatzei zuzenduta, irratsaio batzuetan oso espezializatua den musika-mota eskaintzen da: *jazz, blues, heavy, hard core*, etab. Hauetan, entzuleria espezializatuen zaletasuna betetzea izaten da helburua, eta bide batez oso publizitate espezializatua bereganatzea. Hala ere, musika batzuk baztertuak edo gutxiengoak izaten dira, eta zaila da programazio-parrila konbentzionaletan aurkitzea.

Teknologia berriekin, Internet-en eta DAB-emanaldien etorrerarekin, musika-irratsaio hauek ere aukeran egongo omen dira, musika espezializatuaren zale direnen kontsumorako, ordaintzeko kuota baten truke.

2.2.3. Musika, irrati-hizkuntzaren elementu modura

Musikak puntuazio-funtzioa betetzen du programazioan zehar, irrati-diskursoaren erritmoa ezarriz. Honez gain, irratsaioetan tartekatzen diren pasarte musikaliek funtzio semantikoa ere izaten dute, hitzen bidez azaldutako mezua azpimarratu, iruzkindu edota kontrajartzen dute eta.

Funtzio estetikoak ahaztu gabe —irratsaioan tartekatzen den musikak ere gozamenaren eragiten baitu—, hona hemen irratsaioan zehar tartekatzen diren pasarte musikal nagusiak:

a) Sintonia: irratsaio zehatz batekin identifikatzen den musika izaten da. Entzuleak ezagutu behar du irratsaioa entzutean —musika eta irratsaioa loturik baitaude—; hain zuzen ere, horretan datza sintoniaren garrantzia.

Honetan funtzio semantikoa oso garrantzitsua da, sintoniak berak irratsaio osoa aurkezten baitio entzuleari eta honek mezua —X irratsaioa hastear dagoela, alegia— identifikatzen baitu.

b) Adierazlea: sintonia irratsaio batekin beharrean, musika irrati-emandegi osoarekin identifikatzen denean, adierazlea deitzen zaio.

Sintoniak eta adierazleak ez dira urte askotan aldatu ohi, garai eta erritmo berrietara egokitzen badira ere. Irratsaioek beren sintonia propioa duten legez, irrati-emandegiek adierazle propioa dute. Honi esker, entzuleak emankizuna dialeko zein puntutan dagoen koka dezake. Hemen ere, aurretik musika ezagutzea oso garrantzitsua da, kode semantikoa ulertu ahal izateko.

c) **Kareta:** sintoniari irratsaioa aurkezten duen testua —izena, edukia laburtzen duen esaldia...— gehitzen zaionean, kareta dugu.

d) **Sarrera musikala:** irratsaio baten zati edo tema batera sartzeko balio duen tema musikala da. Ideia edo irudi zehatz batekin gertatzen den elkarte konbentzionala eta arketipikoaren bidez, entzuleak badaki zein izango den hurrengo eszena, inork espreski iragarri aurretik.

e) **Itxiera musikala:** sintoniak irratsaioaren hasiera-puntua ezartzen duen bezala, beste tema musikal batek ixten du, entzuleari amaiera heldu dela ohartaraziz. Gehienetan, sintonian erabilitako tema musikala bera izaten da, irratsaioaren marka osatuz eta beste elementuetatik bereiziz.

Bestetan, irratsaioa itxi beharrean, horren barruko sekzio edo atalak bereizteko erabiltzen da itxiera musikala, agur modura.

f) **Gortina musikala:** Irratsaio baten sekuentziak, edukiak edo atalak bereizten dituen tema musikal laburra izaten da. Eszena baten aurrean egiten denean, ondoren esango dena iragartzen du eta, horren atzean, esatariak komentatu egiten du, txalotuz edo zentsuratuz. Era berean, saio dramatikoetan antzokietako gortinen funtzioa du, eszenak bereiztea hain zuzen ere.

Setik 15 segundora bitarteko iraupena egokituz jotzen bada ere, hau ez da arau finkoa eta beharrak iraun behar duen denbora ezartzen duela diote gidoi-egileek. Baliabide egokia izan arren, ez da gehiegitan erabili behar, gehikeriak komunikazioa oztopatu ahalko luke eta.

g) **Musika-bolada:** gortinen antzekoa, laburragoa izaten da. Atalak bereizten ditu irratsaio baten barruan. Informazio-saioetan oso erabiliak izaten dira albisteen blokeak banantzeko, eta hauetan aparteko puntuaren funtzioa izaten du. Era berean, erritmoa ezartzeko funtzioa ere badu: musika labur honen errepikapenak gai batetik besterako igarobidea adierazten du, irrati-jarraikitasun tematikoa zatituz eta zati bakoitzaren iraupena ezarriz.

h) **Kolpe musikala:** oso musika-zati laburra izaten da, bat, bi edo hiru akordek osatutakoa, gorago doan modulazio tonalaz eta *in crescendo* emandako amaieraz. Funtzio bati enfasia emateko erabiltzen da. Boladen antzekoa denez, ez dago oso mugatuta bien arteko ezberdintasunak zein diren, funtzio ezberdinak izan arren: musika-boladak bi esaldi banantzen dituen bitartean, kolpeak esaldia azpimarratzen du.

i) **Tema musikala:** entzuten denean, musika honek pertsonaia baten presentzia edo ekintza zehatz baten gertaera adierazten du. Adibidez, oso ezaguna da Pantera Arrosa agertzen denean entzuten den tema musikala.

Balsebre-ren esanetan, irrati-draman tema musikalak ahozko ekintza eta espazio-denbora unitate zehatz batean batzen ditu, *flash-back* —atzera begira—, paralelismo-denbora edo jarraikortasuna errearen apurketaren berri ematen duelarik; hau da, *continuum* espazio-denborala apurtzen du, dimentsio sinbolikoak sartuz. Zentzu honetan, tema musikala egoeraren informazio semantiko moduan ulertzen da, denboraren eta leku-jarraikortasunaren arteko apurketa gertatzen denean (BALSEBRE: 1994, 101 or.)

j) Koltxoi edo fondo musikala: lehenengo planoan dauden hitzak —edota hotsak kasu zehatz batzuetan— lagunduz entzuten den musika izaten da, bigarren planoan kokatua. Hau da, bi soinua aldi berean entzuten direnean, bata besteari koltxoi-funtzioa bete ohi du, bigarrena hondoan —eta, beraz, maila baxuagoan— kokatzen delarik. Batzuetan esandako mezua azpimarratzen duen bitartean, bestetan testu lirikoaren funtzio estetiko indartzen du. Giroitze-funtzioa ere bete dezake koltxoi musikalak.

Oso erabilia izan arren, kontu handiz erabili behar da, hitzaldia oztopatu ahal du eta (batzuetan moteldu egiten du erritmoa). Koltxoi musikalak hitzaldiarekin bat etorri behar du; hau da, ez da edozein musika erabili behar, esandakoari egokিতutako estilo musikala baizik.

Koltxoi edo hondo modura erabiltzen den musikak instrumentala izan behar du, bestela abestiaren hitzek esandakoaren ulermena oztopatuko luke eta. Era berean, hitzen azpitik entzun behar da, ahozko diskurtso osoa jaso ahal dezan.

2.3. IRRATI-HOTSAK ETA ZARATAK

Hiztegiak honako definizioa ematen digu hotsari buruz: irrati-hotsa edo irrati-zarata artikulatu gabea den soinua, nahasgarria eta gutxi gorabehera ozena.

Esan dugunez, irrati-hotsa artikulaturik gabeko soinua da, edo beste modu batez esanda, hitzik sortzen ez duen soinua da irrati-hotsa: karruskatze, oinots, zistu, kirriskatze eta beste egintzetatik sortzen diren soinu edo oihuak adibidez. Bestetan, berriz, hitzek osaturikoak baina argitasun fonetikorik gabe egiten diren soinuak ere irrati-hots moduan sailkatzen dira: esaterako, umeen algara ikastolako patioan. Kasu honetan, umeez hizkuntza mintzatua erabili arren, guztien hitzen batuketak ulertzen ez den soinua sortzen du, hotsa, alegia.

Soinu linguistiko guztien lehenbiziko eta behar-beharrezko eskabidea da hotsa. Nahasgarritasuna, nahaste-borraste edo anabasaren kontzeptuari dagokio. Hau dela eta, ezin da errealtatea ondo jaso edo hauteman; bi gauza ezberdin edo gehiagoren arteko nahasketa gertatzen denez, galdu egiten da argitasuna.

Lehenbiziko giza komunikazioa, artikulatu gabeak diren soinu naturalak sortuz egiten da: negarra, barrea, etab. Giza lengoaiaren sorrera hotsetan edo keinuetan oinarritzea alde batera utzita, egia esan, hizkuntza artikulatua sortu aurrez bada oihuz osaturiko aurrelengoia bat.

Hotsaren hautemate edo pertzepzioa oso subjektiboa da. Zentzu horretan, entzulearentzat atsegina edo desatsegina izan daiteke.

2.3.1. Zarata informaziorako oztopo gisa

Hotsaren aspektu ezkorra da. Zentzu honetan, zarata ordena baten aldaketa-elementua da, oztopoa, desartikulatua den zerbait. Informazioaren aurkako aspektua da.

Informazio-teoriaren ikuspuntutik, hauxe da zarata: seinale zakar batzuk, txikiak zein handiak, edonola, edozein ordenatan, inolako erritmorik gabe eta lehentasunik gabe aurkezten direnak. Seinaleak kanalean dituen anplitude edo zabaltasun ahalgarri guztiak aldi berean agertzen dira, imajina ditzakegun erritmo guztietan, eta, aldi berean, zaratak ez dauka batere erritmorik.

Bi zarata-mota bereiz daitezke: teknikoak, erabilitako ekipoetatik nahiz seinale eroalearen perturbazioetatik datozenak, eta semantikoak, zeinuen nahasketan sorturikoak. Lehenengoak mezuaren entzungarritasunaren aurka doazen bitartean, semantikoek mezuaren ulermena oztopatzen dute.

Zarata semantikoak erabilitako zeinuen esanguraren deskodifikazio edo kodifikazio txar batean sortzen direnak dira. Ezin zaizkio alde linguistikoari bakarrik lotu, irrati-lengoaiaren osagai guztiei baizik: hitzei, musikari, efektuei, isilunei eta baita beren konbinaketa eta nahasketari ere. Mezua ez dago argi eta garbi kodifikaturik, zenbait konnotazio sorrarazten ditu, oso konplexua delako, edo informazio gehiegiz josita dagoelako... Zarata semantiko hauek igorle kodifikatzaileengan zein jasotzaileengan sor daitezke. Igorleak ideia argirik ez edukitzeagatik, entzungarritasunaren kodeketa kaskarragatik eta jasolearen baitan deskodifikatzeko prestakuntza ezagatik edo ulertzeko hitz-urritasunagatik sor daitezke.

Zarata kodifikazioan bertan gerta daiteke, beste mezuekiko konnotazioetan, testuinguruan, herri bakoitzak egiten duen hitz-erabileran, mezuaren gehiegizko abiaduran, kontzeptu konplexu eta zail bat azaltzeko denbora-faltan, kontzeptu gehiegi izatean edo aukeraturiko soinuen kalitate txarrean.

Irratiaren ikuspegitik, zaratak diren hots-mota hauek ekiditen saiatzen da irratilaria, mezuen audio-elaborazioan, argitasuna, xehetasuna eta zehaztasuna bilatzeko, entzuleei argi helarazteko helburuz.

2.3.2. *Hotsa, errealitatearen dokumentu informatibo modura.*

Sekzio honetan dokumentu- edo lekukotasun-funtzioa betetzen duen hotsari buruz arituko gara. Hots argia eta garbia da, entzuleari errealitateak sortzen duen soinua helarazten diona. Irrati-hotsa mezu baten hedapenean sortzen den oztopo izan ahal izateaz gain, sistema adierazkorra ere izan daiteke, aho-sistema, isiltasun-sistema edo sistema musikala diren bezala.

Gure entzumena askotan hotsez josita izaten dugu, kaleko edo inguruetakozaratak direla eta. Ia hots gehienei ez diegu arretarik ematen, interes berezia sortzen digutenean izan ezik. Irratiak agerian uzten ditu hotsaren balio eta ahalbide adierazkorrak, argazkietan nahi gabe agertzen diren hondoko elementuak bezala. Hots ba-tzuk jaso eta beste batzuk baztertzen ditu. Hortaz, oso aintzakotzat hartzeko moduko bitartekotza gertatzen da, batez ere informazio-ikuspegitik eta hotsaren balio dokumentaletik ikusita. Teknikak ez du errealitatea den bezala islatzen, aldakuntza batzuen bidez baizik, manipulatzeko asmorik egon ez arren.

Errealitatean sortzen diren hotsak, hau da, hots dokumentalak, honako atal hauetan sailka daitezke:

a) Naturako hotsak.

Atal honetan, esparru fisiko-geografikoko hotsez gain, gizakiok sortutako tramankulu edo aparatuetatik —aldakuntzak eginez sortuak barne— ere sartzen dira. Beraz, geografiatik datozkigun hotsak gehi bere erliebe eta mugak eraldatzen dituen kulturatik sortzen direnak. Hiru mota bereiz daitezke:

- Naturalak: garrasiak, xuxurlak, etab. Izaki bizidun zein bizigabeetatik datozenak dira, giza hizkuntza artikulatua alde batera utzita. Atal honetan animalien kodeak ere sartzen dira, eta halaber, fenomeno atmosferikoetatik sorturiko hotsak: trumoiak, ibaiko ur-jarioaren hotsa...
- Artifizialak: Gizakiak sortutako aparatu, tresna, tramankulu, erreminta eta abarretatik sortuak.
- Mistoak edo hots naturak eta artifizialen nahasketak direnak.

b) Hots mimetikoak.

Animalien imitazioak dira, eta baita gizakiarenak ere. Sail honetan generadore eta sintetizagailuek sorturiko hotsak ere sartzen dira.

- Mimesi naturalaren bidezko hotsak: Gorputzen gainazalek sortzen duten berezko hots-oihartzuna; animaliek egindakoak; giza imitazioa, talde

bereko beste pertsona batzuen nahiz animalien nahiz gauzakien: danbadak, tiroak..., onomatopoiak.

- Mimesi artifizialen bidezko hotsak: gizakiak sorturiko aparatuen bidez errealitate naturalak imitatzea: haizegailu batek ateratzen duen durunda, musika deskriptiboa, erritmo baten imitazioa, etab.
- Mimesi mistoa: hots naturalak artifizialak direnekin nahasten dira, hots berriak sortzeko. Sintetizagailu, nahasgailu, ordenagailu eta abarretatik sorturiko hots ez-harmonikoak, adibidez.

c) Hots tekniko edo teknifikatua.

Irratian integraturiko audio-kate batetik hotsa da. Aurrean dagoen errealitateak jasotzen den soinua iragazia da, irratiko aparatuen teknikak berak aldatua edo transformatua, eta aparatuen bidez nahasketak, iragazketa edo filtrazioak, oihartzunak, modulazioak, etab. lortzen dira. Ezaugarri nagusia fidelitatea da, ekipoek daukaten soinuak sartzean zeukan kalitate bera irteetan ere emateko.

Hiru maila bereiz daitezke:

- Irratiak, sistema tekniko gisa, funtzio mimetikoak betetzen du, eta mikrofonoaren inguruan sortzen diren soinu guztiak —jatorriko iturria edozein izanik— erreproduzitzen saiatzen da. Ezaugarri garrantzitsua, beraz, errealitatearekiko analogia da.
- Ekipoen ezaugarri propioak direla eta, transformazio teknikoak. Barne-hotsak, iragazki, oihartzun, modulazio eta abarren bidez egindakoak. Irratiak burutzen duen bitartekotza-funtzioa, alegia.
- Hots bizkarroiak, sistema kanalizatzailetik landa sortzen direnak: interferentziak, txistuak, etab.

Izan ere, irratia audio-munduko sistema adierazkor gisa, hotsa hiru mailaren menpean dago:

- Sortzen den errealitateko audio-barrutiaren menpean.
- Bere eraketan irratia-sistema teknikoak sortzen duen eraldaketaren menpean.
- Sartzen den audio-barruti berriaren menpean, bai beste sistemekiko (hitz, musika, isilune edo beste hotsekiko) aldibereotasun-dimentsioari dagokionez, bai jarraitasun-dimentsioari dagokionez: audio-jarraitasun narratiboa.

2.3.3. *Soinu-efektuak*

Orain arte aipatu diren hotsak —naturalak zein artifizialak— errealitatean jasotzen ziren bitartean, soinu-efektuez hitz egiten denean, askotan simulazioaz ari gara; hau da, jatorrian artifizialki egindako zarata bat errealitatean sorturiko baten antza du, nahiz eta zerikusi zuzenik ez izan. Adibidez, euriaren zarata lortzeko zela-fan-papera erabiltzen den bitartean, tiro-hotsa zuzenean grabatuko bagenu, ez genuke identifikatuko... Soinu-efektuek existitzen ez diren zaratak sortzen dituzte eta erreal modura agertzen dira entzulearentzat.

Hori dela eta, Balsebre-ren soinu-efektuen definizioa ontzat eman ahal da: «*artikulatu gabeko edo egitura musikala duten soinuek itxuratzen dituzten soinu-tankeren bildumak, iturri artifizial edo naturalek sortuak eta errealitatea objektibo zein subjektiboki berrezartzen dutenak, irudi bat eraikiz*». (BALSEBRE: 1994, 125 or.)

Soinu-efektuek, logikoak direnean eta jendeak ulertzen dituenen, “irudia” gogoan finkatzeko laguntzen dute. Horregatik, efektu hauek identifikatzeko errazak izan behar dute. Hotsak irudi-mundua sortzen du. Irrati-hotsen balio dokumentala errealitateak sorturiko soinuarekin hotsak duen antzekotasuneko erlazioaren aurkakoa da eta baita errealitatea ebokatzeko hotsak daukan gaitasunaren aurkakoa ere. Hau da, errealitateko soinuen arteko erlazio hau entzuleak zehazten du.

Lehenengo irrati-ekoizleak berehala konturatu ziren soinu horien garrantziaz: hizlari batek itsasoan zehar egindako bidaldi bati buruz hitz egiten zuen bitartean, tropikoko txorien eta itsasoko soinuak erabiltzen ziren entzulea paradisu hartara eramateko asmoz. Efektuak zuzenean egiten ziren eta edozein tresna zen baliogarri —ahoa, panderoak, edalontziak, kanpaiak...—. Oso preziatuak izaten ziren zarataren profesional onenak, eta irratitik zinemaren mundurako saltoa eman zuten askok, bide berriak zabalduz.

Gaur egun soinu-efektuak diskoetan bilduta saltzen dira eta gutxi egiten dira zuzenean. Batzuetan, ordenagailuz edo sintetizadoreen bidez ere egin daitezke. Iturrien arabera, honako efektu hauek bereiz daitezke:

- Artxiboko efektuak: balio dokumentalagatik artxibaturiko efektuak izaten dira. Balio informatiboa badute ere, girotzeko erabil daitezke.
- Kanpoko iturrietatik jasotako hotsak, aurretiaz disko, zinta eta abarretan grabaturikoak. Edozein dendatan eros daitezke efektuen bildumak —disko zein CD-Rom-etan—.
- Iturri sortzaileetako edozein puntutan zuzenean jasotako hotsak. Errealitatek zerbait hartzen da, zuzenean zein diferituan emititzeko. Hautaketa gertatzen da, hots batzuk gehiago edo gutxiago nabarmentzeko. Honetarako, prezisio handiko mikrofonoak ezarri behar dira.

- Gelako efektuak: grabalekuan egindakoak. Oso gutxitan erabiltzen dira gaur egun irratan. Soinu-teknikariek egiten zituzten eta, ordenagailuen bidezko efektuek ordezkatu dituzte.
- Efektu bereziak: ordenagailuz edo sintetizadoreen bidez egindakoak, hau da, soinu-mahaian edo ordenagailuan bertan sortuak.

2.3.4. Soinu-efektuen adierazkortasuna

Irrati-emandegi bakoitzean espezialistak bere sekretuak ditu efektu bereziak sortzeko. Irratilariek hots horiek erabiltzen dituzte, errealitate jakin bat zehazteko edo egoera bat girotzeko. Alde batetik, errealitate zuzenean jasotako hotsak daude —hots diagetikoak—, eta bestetik, irrati-emandegiak sartutakoak eta errealtateari ez dagozkionak —extradiagetikoak—. Hots diagetikoek errealismo-inpresioa indartzeko balio duten bitartean, hots extradiagetikoek medio honen edozein funtzio adierazkor bete dezakete: giroa, misterioak, etab. Hots diagetikoak, egoera naturalean dagoen errealitatearen jasotze zuzenetik sortzen dira, eta extradiagetikoak errealitate hori zehazteko sorkuntza artifizialetik. Bien helburua honako hau da: errealtateari hurbilketa egitea soinuaren bidez, batak bide naturaletik eta besteak artifizialetik. Horregatik esan daiteke lehenbizikoak informazioaren arloari dagozkioa eta bigarrenak, berriz, fikzioarenari.

Orokorrean, hotsen adierazkortasuna honako puntu hauetan laburbil daiteke:

1. Gertaera edo egoera dramatiko bateko giroa narratzea. Irudia sortzen dute hotsek, eta dekoratuek duten funtzioa bera izaten dute: ezin da lekua ikusi, baina bai bertako soinuak entzun.

2. Informazio edo narrazio bateko hondo-funtzioa betetzea. Adibidez, kaleko korrespontsalak hitz egiten duenean, hondoan entzuten diren soinuek egiantzekotasuna ematen diote informazioari.

3. Informazioa, audio-dokumentu bihurtzea. Zenbait egoeratan, sorturiko zarak tek esandako hitzek bezainbeste informazio eskaintzen dute. Esaterako, kale-istiluen zuzeneko hotsek.

4. Egintza, adierazpen edo gertaera bat azpimarratu edo lagungarri gisa erabiltzea. Adibidez, barreak entzuten dira norbaitek zerbait barregarri esaten duenean, edo txaloak, adostasuna, poztasuna edo atxikimendua adierazteko.

5. Hitzen zein musikaren erreduantzia balioestea. Esaterako, hezgakin bati buruz hitz egiten da, eta, lehen, gero edo batera, hegazkinak sortzen duen hotsa entzuten da.

6. Behar diren egoeretan, hitza ordezkatzeari. Publizitatean sarritan erabiltzen da. Txaloei publikoaren poztasuna askoz hobeto adierazten dute hizlari baten iruzkinak baino.

7. Musika, isilune eta hitzak kontrapunteatzea. Esaterako, isiltasuna apurtzen duen oihua edo esandakoa gezurtatzen duen aho-puzkerra.

8. Egoera bat intentsifikatzea, nahi den giroa lortu ahal izateko. Beste hots batzuen barrutian sartzen den hotsa da, bere efektu bat nabarmenarazteko. Hotsaren barruko hotsa da. Adibidez, lehenengo planoan pertsona batzuen oihuak argitasunez entzuten diren bitartean, hondoan, oihuak ere entzun daitezke, baina esandakoa nabaritu gabe; azken hauen funtzioa lehenengo planoan entzuten dena indartzea da.

9. Egoera, diskurtsoa... zehazteko eta finkatzeko, horren “soinu-argazkia” eraikitzea.

2.4. ISILTASUNA

Isiltasuna definitzeko orduan, ezezkia erabili behar dugu, isiltasuna soinu-eza baita; hau da, irratian ez ahotsik, ez musikarik ez zaratarik ez dagoenean izaten da isiltasuna. Baina, objektiboki elementu edo baliabide hauen gabezia bada ere, isiltasuna irradi-adierazpenaren eta narragintzaren elementu garrantzitsua da. Zenbait adituk azaltzen duten legez, subjektibotasunaren adierazlea izan daiteke isiltasuna, elementu piko-dramatikoa den neurrian. (ORTIZ eta VOLPINI: 1995, 59-60 orr.)

Dena dela, irratitari dagokionez, isiltasun-mota bakarra baino gehiago daudela esan daiteke; izan ere, baliabide honen erabilerak duen asmoaren arabera, komunikazio-prozesuan izandako akatsa, puntuazio-zeinua edo irradi-hizkuntzaren funtzeko elementu adierazgarria izan daiteke.

2.4.1. Isiltasuna, komunikazio-etena

Isiltasuna agertzen denean, entzulearekiko komunikazioan etena gertatzen da eta entzulea seinalea berreskuratzen saiatzen da. Entzuleak dialeko puntuan nahi duen emanaldi-seinalea aurkitzen ez duenean —edo txarto heltzen zaionean—, dialeko beste puntu batera jotzen du, seinalea berreskuratzeko helburuz; beraz, honek programazio berri batekin topatzea ekar dezake. Zentzu horretan, irradi-komunikatzaileek beldur diote isiltasunari, I. Aguilar-ek azaltzen duen legez (AGUILAR: 1992, 12. or.). Horregatik, emandegietatik seinalea ahal den ondoen heltzen eta mantentzen saiatzen dira. Teknologia berriek, eta ordenagailuen bidezko programazio automatikoei konkretuki, frekuentzia eguneko 24 orduz bete ahal izatea errazten dute, dialean hutsunerik sor ez dadin eta entzuleek emandegiko sintonia gal ez dezaten.

Isiltasunari dagokionez, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan:

- Isiltasuna akats teknikoaren ondorioz gerta daiteke, nahi gabe. Kasu honean errearen adierazle hutsa litzateke, esanahi semantikorik gabekoa.
- Dena dela, isiltasunak harridura sortzen du entzulearengan. Isiltasunaren aurrean soinua bilatzeaz gain —dialean seinalea berreskuratzen saiatuz—, erne jartzen da, arreta gabeko entzunaldia itxaron-egoerara eramanez, soinua berreskuratu arte. Isilunea luzatzen bada, entzuleak komunikazioa eten egin dela ulertuko du.
- Isiltasunak deserostasuna sortzen du. Besteekiko komunikazioan ere isiltasunak betetzen saiatzen gara, batez ere hurbiltasun-egoeretan, etxeko igogailuan, adibidez.
- Zer esan jakiten ez denean, isiltasuna adierazgarria izaten da, hizlariaren ezintasuna agerian uzten du eta. Horregatik, hizlariak mikrofono aurrean jarri aurretik jakin behar du zer esan nahi duen, bere hitzaldia ondo prestatu behar du, inprobisaziorako tarte txikia utziz —inprobisaziorik onena idatzita dagoena dela esaten da, akatsik ez izateko—. Beraz, oso garrantzi handia du gidoia edo, gutxienez, edukien eskema bat egiteak. Era berean, elkarrizketetan, elkarrizketatuaren isiltasunak ekiditen saiatu behar da. Publikoki hitz egiten duten pertsonaiekin arazoak ez dauden bitartean, eguneko protagonistarekin eta kale-jende arruntarekin, berriz, arazoak suerta daitezke, hauek ez baitute jendaurrean mintzatzeko ohiturarik; beraz, oso ondo prestatu behar da galdeketa, eta ahal den dokumentaziorik handiena bildu, monosilaboekin erantzuten duten elkarrizketatuen aurrean.

2.4.2. Isiltasuna puntuazio-zeinu modura

Isiltasunak irradi-komunikazioan etena sor dezakeen arren, isiluneak beharrezkoak dira irradi-azalpenean. Esatariak etenaldiak egin behar ditu arnasa hartzeko, baita pentsamenduak ordenan jartzeko ere.

Esan dugunez, diskurtsoan isilune laburrak egiten dira, guztiz beharrezkoak direnak; beraz, aditu batzuek “isiltasuna” eta “isiluneak” bereizten dituzte (AGUI-LAR: 1992, 18-19. orr.):

- Isiluneak laburragoak dira isiltasunak baino: isilaldia 3 segundo baino laburragoa denean isilune laburra dugu, azalpenean beharrezkoa dena; 3-5 segundo edo gehiagoko iraupena duenean, aldiz, isiltasunaz mintzatzen ari gara.
- Isilune laburraren bidez arnasa hartzeko etenalditxoa egiten du hizlariak, eta isiltasunarekin, berriz, zerbait adierazi, esandakoa azpimarratu edota hausnarketa bultzatu nahi du.
- Isilunearen balio nagusia gramatikala da, idatzitako testuan komak edo puntuak duten balio bera, alegia. Isiltasunak, berriz, balio semantikoa du, zerbait esan nahi du.

- Isiltasuna adierazgarria izan daiteke; isilunea, berez, ez da adierazgarria, beste elementuekin nahastua edo testuinguru zehatz batean ez bada —in-tentzio zehatzez erabiltzen denean, alegia—.
- Isiluneek erritmoa ezartzen duten bitartean, isiltasunak diskurtsoa apur-tzen du, eta horrekin batera, erritmoa ere bai, etena gertatzen baita.

2.4.3. *Isiltasuna, esanahi baten adierazlea*

Isiltasunak zerbait adieraz dezan, egiteko borondate subjektiboa izan behar da. Hau da, hizlariak edo komunikatzaileak zerbait adierazteko asmotan sortu behar du isiltasun hori, eta ez nahi gabe —akats teknikoaren ondorioz adibidez—. Zentzu horretan, isiltasunaren erabilera askotarikoa da:

- Isiltasunak hizlariak esaten duena azpimarratzen du; horrela, esandakoaz hausnarketa txiki bat egiteko aukera ematen dio entzuleari isilaldi labur-raren bidez. Zentzu honetan, isilaldia ez da luzeegia izan behar, ez du bost edo sei segundo baino gehiago iraun behar.
- Honez gain, isiltasunak diskurtsoaren erritmoa moteltzen du. Horregatik, gaueko irratsaioetan asko erabiltzen da baliabide hau. Erritmo motela, pausa luzeagoak, hausnarketa- edo gogoeta-uneak izaten dira gaueko irratsaioen ezaugarri nabarrienak. Baliabide hauen bidez, entzuleak bere bakardadean pentsatzeko aukera izan dezan bilatzen du hizlariak, baita bestearen mezuak entzun ditzan ere. Honekin lotuta, gauean —egun osoan lan egin edo ikasten egon eta gero— gure erritmo biologikoak moteldu egin dira, eta entzuleek erritmo lasaiagoa duen solasaldia nahia-go dute, goizeko edo eguneko arintasuna baino gehiago.
- Beste aldetik, isiltasunak objektiboki ausentzia edo eza adierazten badu ere, gure pertzepzio psikologikoan, berriz, presentzia azpimarratu ahal du. Hizlariak astiroago hitz egin eta isiluneak tartekatzen dituenean, entzu-leak horren hitzak indar handiagoz jasoko ditu eta, aldi berean, hurbilago. Entzulearekiko distantzia psikologikoa ere motzagoa izaten da, gertuago-koa. Pertsonen arteko komunikazioan, konfiantza handia dagoenean, ez da asko esan beharrik elkarri ulertzeko, eta isiltasunak deserotasuna baino gehiago konfiantzarako jarrera bultzatzen du.
- Dramatizazio-baliabide moduan, isiltasunak tentsioa sortzen du, itxaron-egoera sortzen du. Psikologikoki, gizakiak era ezberdinez jaso ahal ditu bestearen isiltasunak:
 - a) Mehatxu modura, etsaiaren aurrean batez ere. Kontrakoa isilik dagoe-nean, emango duen hurrengo urratsa edo esango duena itxaroten da. Kontakizun dramatikoetan isiltasunak areagotu egiten du gertatuko denaren aurreko beldur-sentsazioa, etorriko denaren aurreko tentsioa...

- b) Lasaigarri modura. Lagunaren isiltasuna, berriz, lasaitasunez jasotzen da. Gaueko irratsaioetako hizlariaren isiltasuna honako talde honetan kokatuko genuke, lagunaren arteko solasaldian gertatzen den bezala.
- c) Elkarren arteko konplizitate edo adiskidetasunaren isla ere izan daiteke: ez dago hitz egin beharrik, gauzak berez ulertzen direnean.

2.5. **ERRITMOA IRRATI-ADIERAZPENEAN**

Denboran, irratsaioak sekuentzietan jasotzen dira; hauek arinago edo astiroago konbinatzeak ezartzen du irrati-erritmoa. Are gehiago, sekuentzia bakoitza osatzen duten soinu-planoak eta sekuentziak elkarren ondoan eta gainean jartzearen ondorioz sortzen da erritmoa. Beraz, irrati-muntaketak ezartzen du erritmoa. Hain zuzen ere, muntaketan tartekatzen diren isilune-, trantsizio- eta inflexio-puntuek ezartzen dute erritmoa.

Erritmoa ezartzeko orduan, honako faktore hauek hartu behar dira kontuan:

- a) Edukien aniztasuna eta iraupena; eta baita ere hauek errepikatzen diren aldizkotasun edo periodikotasuna. Eduki asko eta errepikaturiko kadentzia batez azaltzen direnean, erritmoa arinagoa izaten da, eta bloke luze gutxitan banatzen denean, berriz, moteldu egiten da.
- b) Hizlariaren irakurketa-abiadura edo hitz egiteko *tempoa*. Azkarrago irakurtzen denean, erritmoa ere bizkortu egiten da.
- c) Edukien tratamendua: sakonagoa denean, erritmoa ere motelagoa izaten da, xehetasunetan gelditzen delako; titularretan edo azalez azaltzen direnean, berriz, erritmoa arindu egiten da.
- d) Irratsaioaren taxuera edo formatua. Hizlari edo atal asko dituzten irratsaioetan erritmoa bizkorragoa da esatari bakarreko saioetan baino.
- e) Jarraikortasun-elementuak. Sintoniek, musika-boladek eta beste elementu askok ezartzen dute irratsaioaren erritmoa.

2.5.1. **Erritmoaren eta soinu-elementuen konbinazioa**

Erritmoa irrati-lengoiaren baliabideen konbinazioak ezartzen du; hau gidoian bertan markatzen da. Hala ere, batzuetan, irratsaioak berak ezartzen du erritmoa, aurreko planifikazioan —gidoian— elementuen garapen-ordena hori aurreikusi ez arren, batez ere zuzeneko tarte edo irratsaioetan ekintzak azkarregi suertatzen direnean edo.

Erritmoa ezartzeko orduan, soinu-elementu guztiak hartu behar ditugu kontuan; dena dela, hitzari dagokionez, erritmoa bi modu ezberdinez lor daiteke: irakurketa erritmikoaren bidez —azkarrago edo motelagoa—, eta hizlari-kopurua ugarituz.

Beste aldetik, soinu-baliabideak —musika-boladak, gortina edo kolpe musikalak— maiz erabiltzeak eta azkar egindako azalpenek ere azkartzen dute irratsaioaren erritmoa.

Erritmoa ezartzeko beste baliabide bat, isiluneen erabilera izan daiteke. Aurreko puntuan azaldu denez, isiluneak arnasa hartzeko egin behar dira, eta baita pentsamenduak ordenan jartzeko ere. Isilune hauek irakurketa edo azalpenaren erritmoa motelitzen dute; beraz, kontu handiz erabili behar dira, entzulearengan antsietaterik ez sortzeko.

2.5.2. Erritmoa eta estiloa

Irrati-emandegiaren estiloak ezartzen du askotan irratsaioen erritmoa. Esaterako, gazteei zuzendutako programazio musikalek erritmo arinagoa izaten dute musika klasikoari buruzkoek baino.

Era berean, erabilitako formato edo taxuerak ezartzen du erritmoa. Magazine-tan elementu askok parte hartzen dute epe laburrean: kronikek, informazioek, korrespondentsalen partehartzeak, entzuleen deiek..., erritmo bizkorra ezarriz. Beste irratsaioetan, aldiz, moteldu egiten da erritmoa, eta musikaz gozatzeko edo hitzaren magiaz eramana izateko aukera izaten du entzuleak.

Honekin lotuta, irratsaioaren emanaldi-orduak ere ezartzen du erritmoa. Ordu-tegiaren arabera, hiru programazio-atal nagusi banatzen dira:

a) Goizekoa:

- Honen barruan goizaldeko irratsaioak ditugu —goizeko 4etatik 7etara, gutxi gorabehera...—. Erritmo apalaz hasten badira ere, erritmo hori arinduz doa irratsaioa garatzen den heinean.
- Erritmoa askoz gehiago bizkortzen da 7etatik 9etara; ordu horietan, irratsaio gehienetan, entzuleak iratzartzeaz gain, informazio asko ematen da, baina sakondu gabe. Eguneko agendek eta titularrek izaten dute leku nagusia, eta baita trafiko eta eguraldiari buruzko informazioek ere. Irratsaioan zehar ordua ere maiztasun handiz azaltzen da.
- 9etatik 14etara: magazinek osatzen dute irratsaioen parrilla. Erritmoa arina da, batez ere edukien aniztasunak markatuta; baina edukiak sakontzen dira eta solasaldirako parada dago.

b) Arratsaldekoa (15etatik 24etara)

- Bazkaldu ondoren, albisteak entzun eta gero, irratsaioen erritmoa moteltu egiten da berriro ere. Kultura edo musikarako lekua dago; hizlari askoko irratsaioretatik hizlari bakar edo hizlari gutxiko irratsaiotara pasatzen da. Edukien aniztasuna dago oraindik, baina goizeko presak baztertu egiten dira.

c) Gauekoa (00etatik aurrera)

- Lo egin ezinik dabiltzanei edo gautxoriei zuzendutako irratsaio hauetan, arreta handiagoa izaten da. Kirol-saiok erritmoa jarri arren, solasaldirako, intimitaterako, besteen solasaldiak entzuteko denboraldia izaten da gaua. Beraz, erritmoa ere moteldu egiten da, eta lasaitasunerako orduak dira.

2.5.3. Irratsaio-motak eta erritmoa

Ordutegiaren arabera, irratsaiok erritmo arinagoa edo motelagoa ezartzen duten moduan, erabilitako irradi-generoek zeresan handia dute erritmoari dagokionean:

- Informazio-saiotan erritmoa azkarra izaten da. Alde batetik, irakurketa dinamikoa izaten da, eta ia ez dago isilunerik. Informazioa jario baten antzera eskaintzen da: informazio asko eta azkar ematen dira, hizlari askoren eskutik. Titularrek, soinu-baliabideen ugaritasunak, etab. ezartzen dute erritmo arin hori —batzuetan, frenetiko—.
- Kirol-saiotan ere erritmoa oso arina izaten da. Zuzeneko futbol- edo kirol-emanaldietan, zelaian gertatzen denak ezartzen du erritmoa. Adibidez, jokaldi interesgarrietan erritmoa arintzen da, hizlariak azkarrago hitz egiten du, ahots-intentsitatea ere indartuz (erritmoa gora doa, tantoa edo gola lortu arte, ondoren, une lasai batean sartzeko...). Hizlariaren erritmoa eta jokoaren interesa batera doaz.
- Gaueko saiotan (*talk-show*etan): erritmoa leuntzen da, hitzaldia lasaia da, pausaldiak izaten dira, besteak esandakoa entzuten da, irakurketa ere lasaia izaten da, hausnarketa edo erreflexiorako guneak sortuz...). Kultur saiotan ere, esaten denak oso garrantzi handia du eta, beraz, arreta handiz entzun behar dute interesatuta dauden entzuleek.
- Umeentzako saiok erritmo alaiak izaten dira; hauetan, soinu-errekurtso asko eta eduki ezberdinak nahasten dira, umeek arreta berehala galitzen dute eta. Honez gain, hizlarien irakurketa arina da, hizkuntza naturalaren antzekoa.
- Magazinetan erritmoa gidariak ezartzen du. Halaber, erritmoa ezartzeko orduan, oso garrantzia handia dute edukiak nola banatzen diren. Ordena

ezartzeko orduan, kontuan hartu behar da edukien oreka, une aspergarriak —edo frenetikoegiak— egon ez daitezen.

2.6. IRRATI-MUNTAKETA

Irrati-hizkuntzaren lau elementuen nahasketaren bidez, irrati-istorioak aurrera jotzen du, entzulearengan irudia sortuz. Beraz, entzuleak jasotako soinuen bidez unitertso osoa —hiru dimentsioduna, hots, soinuz, irudiz eta usainez betea— imajinatu behar du. Hori dela eta, oso garrantzitsua da irrati-hizkuntzaren konbinazioa, gertaera narratiboa aurrera eramateko orduan.

Balsebre-ren definizioaren arabera, irrati-muntaketa honako hau da: irrati-adierazpenaren soinu-elementuen —isiltasuna barne— ondoan jartze edo gainezartze sintagmatikoa; eta gainean errealtatea (des)itxuratzen duten irratiaren soinu-erproduktzioaren elementu ezberdinen manipulazio tekniko (BALSEBRE: 1994). Hau da, irrati-muntaketan bi aspektu hartu behar ditugu kontuan: tekniko eta adierazgarria.

Teknikari dagokionez, soinu ezberdinak konbinatzeko, behar-beharrezkoa dugu nahas-mahaia; bertara iturri ezberdinetatik datozen soinuak heltzen dira, eta erregeleten bidez, aukeratu eta nahastu ahal dira soinu horiek, gidoian azaldutako pauta edo jarraibideen arabera eta beti ere irrati-errealizatzailearen helburuak betetzeko asmoz. *Fader* edo mahaiko erregeleten bidez soinuen plano ezberdinak adieraz eta, era berean, manipula daitezke.

Muntaketa adierazpen-baliabidea da, eta honako helburu hauek izaten ditu:

- Grabaturiko materiala sekuentzia logikoaren arabera jartzea, aurretik egindako gidoian oinarrituta.
- Interes edo kalitate gutxiko elementuak baztertzea (nahi ez diren hotsak, soberan dauden soinuak...).
- Daukagun materiala emandako denborari egokitzea, gidoiaren arabera.
- Eszena sortzea. Pertsonaiak eta leku-denborak zehaztuz eta definituz.

2.6.1. Soinuen arteko lotura

Muntaketan oso funtsezkoa da soinu-planoen, eszenen eta sekuentzien arteko lotura. Elementu hauek lotzeko orduan, oso kontuan hartu behar da beren arteko *rac-cord*-a, hau da, soinu-mailen arteko jarraikortasuna; edo, beste era batez esanda, ez dira desnibelak nabaritu behar aurreko sekuentzia batetik hurrengora.

Teknikoki, sekuentzien arteko jarraikortasuna kontuan hartu behar den moduan, loturak edo trantsizioak ere zainduko dira batetik bestera. Hori dela eta, sekuentzia ezberdinak josteko orduan, honako lotura hauek erabil daitezke:

- Soinuen ondoan jartze edo koordinazioa. Oinarrizkoa da. Sekuentzia bat aurrekoari jarraitzen zaio eta hurrengoaren aurrekoa da. Soinu-saltoak ekidin behar dira eta, era berean, une egokia bilatu behar da, elementu edo sekuentzia berria sartzeko orduan.
- Bi soinen arteko fundidoa edo urtuketa. Aurreko soinua poliki-poliki desagertuz doan bitartean, beste iturri bat sartzen da. Une batez, gurutzatzen direnean, soinu biak maila berean sartzen dira.
- Soinu baten desagerpena edo amaiera. Soinua astiro-astiro itzaliz doa isil-tasuneraino; ez da bi soinen arteko nahasketarik ematen, desagertzen dena amaitzen denean, hurrengoa entzuten hasten baita.
- Soinuen gainean jartzea. Soinu bi edo soinu gehiago aldi berean jartzen dira. Hitza musikaren gainean muntatzen denean, edo efektu batzuk hondo-modura erabiltzen direnean ematen da; batek bestearen koltxoi-funtzioa betetzen du.
- Musika-bolada. Batzuetan bi sekuentzia ezberdin lotzeko musika-zati txikia edo bolada tartekatzen da.
- Baliabide teknikoak. Nahasketa-mahaiak eskaintzen dituen aukeren arabera: *gonga*, ordu-seinaleak, eta horrelako soinuek lotzen dituzte jarraian doazen bi sekuentzia.

2.6.2. Muntaketa-motak

Irrati-muntaketaren bidez, soinu-elementu edo sekuentziak ordena baten arabera lotzen dira. Errealitateetik hartutako soinuak nahasten dira, eta baita manipulatzen —moztu, luzatu...— ere, soinu, lengoia edota mezu berriak sortzeko helburuz. Soinuak errealitatean bezala ordenatu ez arren, horren konbinazioak errealitate-itxura mantentzen du.

Era berean, muntaketan, soinu-amarruak eta teknologia sormenaren alde eta azaldu nahi den asmo adierazlearen alde jartzen dira edo jar daitezke (askotan, lan-ohiturek eta presak oztopatzen dute sormen-lana).

Beraz, errealitatea islatu edo sormena landu ahal dela eta, muntaketa egiteko orduan bi modu nagusiz egin daitekeela esan dezakegu: modu errealistaz eta modu kontzeptualaz.

a) Muntaketa errealista edo deskriptiboa: soinu-elementu guztiak errealitatea imitatzen duen sekuentzia baten arabera nahasten dira. Errealitatea deskribatu edo azaldu egiten da soinen bidez. Eszena honetan inguruko soinuek garrantzia handia dute, baina ez dira gehiegi erabili behar.

b) Muntaketa kontzeptuala: soinuak baino gehiago, sentsazioak edo giroak sortzen saiatzen da. Musikak eta efektuek ez dute errealitatea azaltzen; aldiz, kode emozionalak edo animikoak sortzen saiatzen dira. Ideiak azaltzen dira.

Adibidez, udaberria azaltzeko:

a) *Muntaketa errealistan: txorien abestiak eta haize epelaren zarata, eta baita xomorroen soinuak entzun daitezke. Udaberrian naturan soinu asko entzun daitezke eta hauek jaso eta islatu.*

b) *Muntaketa kontzeptualean: udaberriko zentzumenen leherketa eta alaitasuna adierazten duen musika erabil daiteke, jaioberri baten lehenengo barrea...*

Soinu-elementu edota sekuentzien ordenaren arabera, honako muntaketa-mota hauek daude:

a) Muntaketa narratiboa. Denboraren tratamenduari eta sekuentzien denbora-ordenari dagokiona.

— Denboraren tratamenduaren arabera, hiru aukera ditugu:

- Gertaeren denbora eta emanaldiaren denbora bat bera izatea. Hau da, gertaerak zuzenean ematen dira eta gertaeren iraupena errespetatzen da: futbol-partiduak, adibidez.
- Irrati-denbora laburragoa da gertaerarena baino: ordu edo egunetan luzatu den gertaera baten erreportajeetan, esaterako.
- Irrati-denbora luzeagoa da gertaeraren iraupena baino: gai bati buruz azterketa sakona egiten denean, ikuspuntu eta iritzi ezberdinak jasoz, edo sekuentziak sekuentzia miatuz: adibidez, sekuentzia bera lekuko askok azaltzen dute leku edo ikuspuntu ezberdinetatik.

— Denbora-ordenari dagokionez, narrazioak mota desberdinetakoak izan daitezke:

- Linealak: gertaeren ordena kronologikoa mantentzen denean.
- *Flash back* edo atzetik aurrerako ordenakoak: orainalditik iraganera joaten denean, edo, iraganerako salto bat dagoenean.
- Txandakako edo aldiberekoak: gertaera bat ikuspuntu ezberdinetatik azaltzen denean edo gertaera batzuk aldi berean azaltzen direnean; esaterako, *karrusel* izeneko taxueretan. Honetan, alde berean gertatzen ari diren sekuentziak azaltzen dira: adibidez, *karruseletan* alde berean jokatzeko ari diren futbol-partidu ezberdinak azaltzen direnean.

b) Muntaketa ideologikoa. Kasu honetan manipulazioa ematen da. Sekuentzien nahasketaren bidez, horietan azaltzen ez den ideia orokor bat adierazten da.

Adibidez, testuingurutik ateratako adierazpenen manipulazio interesatua; bertan pertsonak azaldutako iritziak interes ideologiko baten arabera konbinatzen dira.

c) Muntaketa erritmikoa. Soinu-elementu edo sekuentziak erritmo baten arabera konbinatzen dira. Hori hizlarien azalpenak txandakatuz, musika edo isiluneak tartekatuz edo bestela ere lortzen da.

2.6.3. *Teknologia berrien eragina irrati-muntaketan*

Sistema analogikoen bidezko muntaketan, edizio-lanetan alegia, trebezia beharrezkoa zen sekuentzia ezberdinak lotzeko orduan. Bobina edo zinta irekia erabiltzeko orduan, teknikariak bi aukera zituen muntaketa egiterakoan: aukeratutako zatiak moztea —artaziaz edo beste tresnaren bidez— eta itsastea; edo, bestela, aukeratutako zatiak bigarren zinta batean grabatzea, behar ez zena baztertuz. Lehenengo ariketan zinta-metroak galtzen ziren bitartean, bigarreanean, ostera, grabazio-kalitatea —belaunaldi bat— galtzen zen, jatorrizko zintatik bestera pasatzean. Bietan oso zaila izaten zen jatorrian grabaturiko hotsak edo bazterturiko hitz batzuk borratzea, eta beraz, audio-teknikariek egin behar zituzten muntaketa gehienak, eta ez hizlariak berek.

Gaur, berriz, sistema digitalek —DAT, minidisk, ordenagailu, eta abarrek—asko erraztu dute irrati-muntaketa. Alde batetik, sistema digitalek soinu-kalitate bikaina eskaintzen dute, grabaketaz grabaketa ia galtzen ez dena, eta beste aldetik, hotsak edo bazterturiko materiala mozteko ariketa errazagoa izaten da, eta, beraz, kazetariek, idazleek berek, egin ahal dute muntaketa, teknikan oso trebeak izan ez arren.

Beraz, teknologia berriek muntaketak erraztu dituztela eta, sormen handiko produktuak egin daitezke, soinu-baliabide ezberdinak nahastuz; eta zentzu horretan, digitalizazioak irrati-ikuskitzuna aberastu ahal duela esan daiteke. Dena dela, tresna berriek ez dituzte kasu askotan ohiturak aldatu, eta aldaketak edo hobekuntzak bi eremutan baino ez dira nabaritzen: publizitatean eta musika-emankizunetan.

Iragarkiak egiteko orduan, sormena da muga bakarra. Gaur egun, ordenagailuek aukera asko eskaintzen dizkiete sortzaileei, soinu-baliabideekin publizitate-produktu bikainak eskaintzeko orduan. Halaber, publizitate-arduradunek iragarkia produktiotik emanaldirako prozesua zuzentzeaz gain, horren kudeaketa administratiboa ere ordenagailutik egin dezakete: adibidez, bezeroari iragarkia zenbat emanaldiran programatu den esan diezaiokete eta horren arabera ordainketa jaso.

Beste aldetik, musika alorrean, *compact-disc* edo disko trinkoaren kalitatea lortu du irrati digitalak. Emandegi askotan, *ISDN* edo sistema integratuen sare digitalaren bidez kontzertuak edo musika-saioak disko gogorrean edo DATean grabatzen dira, eta horrela kopiak —salmentarako— egin daitezke. Etorkizuneko irratian emankizun hauek entzulearen aukeran jarri ahal izango direla aurrirakusten da; adibi-

dez, entzuleak bere hiri edo estatutik kanpo egingo den kontzertua entzun ahal izango du zuzen-zuzenean, oso soinu-kalitate onaz, dohainik edo ordainduta. Teknologikoki gaur egun posiblea bada ere, aparatuen salneurria jaitsi beharko da, guztiontzat eskuragarri izango den errealitatea izan dadin.

Honez gain, Interneten bidez informazio-jarioa ia mugagabea da, eta soinuak ere eskaintzen dira hainbat lekutan. Irratiek audio hori erabil dezakete beren muntaietan, eta modu honetan oso urruti gertatzen direlako, bestetan eskuraezin lituzketen soinu-dokumentuak eskaini.

2.7. DENBORA ETA INGURUAREN AZALPENA IRRATIAN

Soinuak espazio osoa betetzen du, eta irrati-aparatutik edonora hedatzen da. Aldi berean, soinu-diskurtsoa izanda ere, zentzumen gehiagoz jasotzen du entzuleak. Honek irudietan pentsatu ahal du irratitik entzuten duen soinua, eta, beraz, irudikatzen dituen eszenak toki eta denboran garatzen dira. Kontakizunak leku eta denbora batean gertatzen dira, eta hauek beren azalpen propioa dute irrastian.

2.7.1. Inguruaren azalpena

Irrati-narrazioigintza estudio txiki batean sortzen da. Atzean geratu ziren estudio handiak, non antzezleak leku zehatzetan kokatzen ziren, antzokiko agertoki batean baleude bezala. Toki txiki horretan sorturiko kontakizunak, berriaz, espazio oso bat bete behar du. Irudietan lekua, espazioa, bi dimentsiotan ixten den bitartean, soinu-eremuan, irrastian, espazioa dinamikoa da, mugimenduan dago, hiru dimentsiotan adierazten da, osotasuna betez: goitik behera, aurretik atzera, ezkerretik eskuinera...

Aurreko atal batean esan denez, soinu-efektuek edo efektu bereziek tokia adierazteko balio dute, ekintza gertatzen den ingurua, alegia. Efektu hauen erabilerak sinegarritasuna ematen dio eszenari; hala ere, ez dira nahiko, ekintza gertatzen den lekua osotasunean adierazteko. Errealitatean gertatzen den legez, irrastian ere soinu batzuk urrun kokatzen diren bitartean, beste batzuk hurbilago egoten dira, hau da, ekintzak soinu-plano ezberdinetan gertatzen dira.

Irrastian honela definitu ahal da soinu-planoa: soinu-iturritik mikrofonoraino dagoen distantzia, edo, hobeto esanda, entzuleak distantzia hori jasotzen duen era. Hau da, entzuleak soinu batzuk mikrofonotik eta, halaber, berarengandik gertu dardela jasotzen duen bitartean, beste batzuk, aldiz, urrunago kokatzen ditu. Distantzia hori era ezberdinetan adieraz daiteke:

- Soinu-iturria mikrofonotik urrunduz eta hurbilduz. Hots, mikrofonoek mugimendu erreala jasotzen dute; aintzinako estudioetan antzezleak

- mugitu egiten ziren, eszenatokian bezala, mikrofonoak leku finko batean —sabaian normalean— kokatzen zirelarik.
- Nahasketa-mahaitik mikrofonoen erregeleta manipulatur: urrun dauden soinuak ahul entzun daitezen mikrofonoak jaitsiz, eta hurbilago daudenen intentsitatea indartzeko, berriz, igoz.
 - Ordenagailuz egindako efektu akustikoaren bidez: erreberberazioak, etab. Batzuetan espazio birtuala edo eszenatokia bikoizten da monitorearen pantailan, eta dagozkion parametroak —distantziak, egoera fisikoak, materialak...— sartu eta gero, sistema informatikoak berak behar duen intentsitatea ematen dio soinu bakoitzari, eszenan duen tokiaren arabera.

Esanenez, entzuleak jasotzen duen intentsitatearen arabera, soinu bakoitza hurbilago edo urrunago kokatzen du, hau da, plano ezberdinetan. Beraz irrati-narratziogintzan honako plano hauek bereizi ahal dira:

- Lehenengo planoa: soinu-iturria mikrofonotik oso gertu dagoenean. Entzuleak oso zuzen jasotzen du. Ez dago soinu-islarik. Hizlaria denean, honek astiro hitz egiten du, ahots leuna erabiliz, entzulearekiko hurbiltasuna —ez espazioan soilik, era pertsonalean ere bai— adieraziz. Batzuek plano honi plano intimoa edo lehen-lehenengo plano deritzote.
- Plano arrunta: giro normal batean gertatutako hitzaldi arrunta adierazteko erabiltzen da. Mikrofonoa hizlariarengandik 20 zentimetrora kokatzen da eta soinu-islak izaten dira. Batzuek lehenengo plano edo plano ertaina deitzen diote.
- Plano orokorra: soinu-iturria giro baten barruan kokatzen da eta soinu-islak nabaria izaten da. Soinu-iturria mikrofonotik urrun dago eta, beraz, entzulearengandik urrun. Batzuek plano horri “urruneko plano” esaten diote.
- Hauez gain, laugarren motako plano izaten da: bigarren plano edo hondoa. Izen honen barruan beste soinu nagusiaren laguntzailatzat agertzen diren soinuak sailkatzen dira; gehienetan ingurua edo giroa adierazteko erabiltzen dira. Musika bigarren plano batean agertzen da askotan, hizlariaren mintzaldia lagunduz, koltxoi musikal modura.

Plano ezberdin hauekin jokatur —pertsonaiak, hizlariak edo objektuak hurbilduz eta urrunduz— mugimendua sortzen da. Honek garrantzia handia du saio dramatikoetan batez ere, ekintzak gertatzen diren hiru dimentsioak adierazteko.

2.7.2. Denboraren azalpena irratian

Irratia zuzeneko komunikabidea dela esan ohi dugu. Mezuak zuzenean heltzen dira hizlariengandik entzulearengana; hala ere, azaltzen den guztia ez da zuzenean gertatzen, eta, beraz, azalpenean laburpenak —elipsiak— egoten dira.

Eszenan, ekintza batzuk zuzenean gertatzen diren bitartean, beste batzuk, aldiz, laburturik ezagutzen dira, norbaitek azalduta. Ezinezkoa da istorio osoa denbora errealean azaltzea; kontakizunean laburpenak daude, eta hizlarien hitzen bidez aurrera garatzen dira hainbat atal.

Irrati-muntaketaren bidez gertaeren ordena kronologikoa alda daiteke; esaterako, goizeko informatiboetako albisteak zaharrak izan daitezke gauean eta, goizekoak edo lehenengo orduetan gertatutakoak eman beharrean, geroago jazotakoak lehen postuan azaltzen dira.

Bestetan, futbol-emanaldi batean esaterako, aldi berean gertatutako ekintzak ager daitezke bata bestearen atzetik —adibidez, protagonista baten elkarrizketa tartekatzen da kontakizunaren erdian, edo beste futbol-zelaian gertatutakoa azaltzen da—, eta grabaturiko ekintzak tartekatzen dira, ekintzaren denbora errealean beste denbora bat sartuz.

Oso gutxitan erabili arren, atzerako itzulia —*feed back*— eman daiteke kontakizunetan, baina atzerako salto hau ulergaitza izan daiteke, azalpenean zehar argi uzten ez bada. Irratian ez dago idatzitako hitz edo irudien laguntzarik, denboran emandako saltoa adierazteko; horregatik, hizlariak berak esan behar du. Beraz, narratzailea oso garrantzitsua da irratian denbora adierazteko orduan, berak ekintza bere denboran kokatzen baitu.

— Irrati-narragintzaren eskema denborala honako hau izaten da:



— Era berean, ez dira sekuentzia osoak azaldu behar. Askotan, nahikoa izaten da eszena garrantzitsuenak azaltzea, tartean salto kronologikoak egin arren. Informazio gehiegi ematea, akzioa moteltzeaz gain, erredundantea suerta daiteke.

Adibidez,

*KONTROLA: ESKILARAK IGOTZEN DITUZTEN
PAUSOAK - DESKANTSILOAN - ATEKO TXIRRINA - BESTE
ALDETIK HURBILTZEN DIREN PAUSOAK (iragazita)*

NESKA (filtratuta edo iragazita): Kaixo, nor da?

MUTILA: Ireki, Txomin naiz!

KONTROLA: GILTZAREN EFEKTUA - ATEA IREKITZEN DA

NESKA: Atxilotu zintuztela uste nuen.

MUTILA: Zorte ona izan nuen!

KONTROLA: ATEA IXTEN DA - GILTZA

1

KONTROLA: POLIZIA- SIRENAK URRUN - KOLPEAK ATEAN

MUTILA: Ireki, Txomin naiz!

KONTROLA: ATEA IREKI ETA IXTEN DA

NESKA: Atxilotu zintuztela uste nuen.

MUTILA: Zorte ona izan nuen!

2

Bi eszena hauen artean, bigarrena (2) egokiagoa da, lehenengoa (1) baino.

- Egitura narratiboan, istorioa ulertzeko une garrantzitsuak aukeratzen dira, sobera dauden elementuak baztertuz. Irratiaren kasuan, irudirik ez dagoenez, eszenak soinuen bidez azaldu behar dira, entzuleek osotasunean jaso eta uler ditzaten. Beraz, pista nahiko emango zaizkie entzuleei “irudiak” imajina ditzaten.

3. Irrati-gidoia

Edozein irratsaio hasi aurretik, oso komenigarria da beti gidoi bat egitea. Irratilarri batzuek gidoiak diskurtsoari freskotasuna kentzen diola diote, baina gidoirik gabe hitz egiteak askotan porrot egitera eramaten gaitu. Akats gehiegi izatea, hizkuntza pobrea erabiltzea, hitz-erraztasuna galtzea..., horiexek dira gidoirik gabe aritzearen ondorio batzuk. Gidoi osoa ez bada ere, gutxienez *hot-clock* edo eskaleta bat egitea komeni da, irratsaioan zehar agertuko diren edukiak ordenatuta izan ditzagun.

3.1. IRRATI-GIDOIAREN DEFINIZIOA

Mariano Cebrian-ek honelaxe definitzen du irrati-gidoia: *hezurdura bat da, irratsaio bat osatzen duten ideia, kontzeptu eta adierazpen-sistemaren azalpena.* (CEBRIAN:1994). *Idatzitako azalpena* dela gehituko genioke definizio honi, gidoiak idatzita egon behar baitu.

J. Muñoz eta C. Gil idazleek, beren aldetik, honako definizio hau eman dute: *irratibidearen ezaugarriak kontuan hartuta, irratsaioaren eduki eta kontakizunaren azalpen osoa* (MUÑOZ ETA GIL: 1988)

Tarte ezberdinek osatzen dute irratsaioa, eta bakoitzak bere lekua izaten du. Eta gidoiak ezartzen ditu tarte ezberdin horien agerpen-ordena eta iraupena. Denbora ondo neurtuta izatea oso beharrezkoa da, batez ere katean emititzen denean edota publizitatea dagoenean: konexioak puntu-puntuan egin behar diren bitartean, publizitate-bezeroek iragarkiak kontratatzen dituztenean, zein unetan sartzea nahi duten ere ezartzen dute.

Gidoia irratsaioa egin baino lehenago eratu behar da; irratsaioaren hezurdura da mamiaz bete behar dena. Irratsaio askotan, aurretik ezarritako egitasmo finkoen gainean ari ohi da, egunez egun eduki-aldaketak sartzen direlarik. Bestetan, berriz, irratsaio bakoitzak espreski idatzitako gidoia erabiltzen du: monografikoetan edo egitura ezberdina duten irratsaioetan, kasurako, eta baita saio dramatikoetan ere. Dena dela, gidoia mikrofonoaren aurrean jarri baino lehenago amaitu behar da, eta uhinetara irten aurretik irakurriko eta zuzenduko da, behar diren oharrek eta aldaketak sartzeko; ondoren, aldaketa hauen berri eman beharko zaio soinu-teknikariari. Tresna baliogarria izan dadin, irrati-prozesuan parte hartzen duten guztien elkar-ulertzea erraztu beharko du gidoiak.

Honako faktore hauek baldintzatzen dute irratsaio baten gidoi-eraketa (BAREA eta MONTALVILLO: 1992, 55-56. orr.):

1. Emandegiaren eskemak edo estilo-liburuak.

Irrati-emandegiko estilo-liburuak eraginak izan ditzake gidoian sartzen diren elementuen ordenan; hau da, gidoia eratzeko orduan, emandegi horretan gauzak nola egin ohi diren kontuan hartu behar da. Besteak beste:

- Publizitatea sartzen den ala ez, eta iragarkiak ordu finkoetan biltzen diren ala irratsaioen arabera antolatzen diren —ohikoa, ordu finkoetan ematea izaten da, albistegiaren aurretik edo orduerdika ematen diren publizitate-tarteetan—.
- Programazioa errepikatzen diren ataletan banatzen den —irradi-formuletan bezala— ala atal isolatuek osatzen duten —irradi generalista edo konbentzionalean gertatzen den legez—. Lehenengo kasuan, gidoia aurretik ezarritako eredu batean oinarritzen den bitartean (adibidez, musika + iruzkina + musika + ...), bigarrean irratsaio bakoitza bere eredu propioari jarraitzen zaio.

2. Generoaren eskemak.

Irrati-generoaren arabera aldatzen da gidoia. Adibidez, albistegiak egunez egun errepikatzen den gidoi finko batean oinarritzen dira: albisteez gain, titularrak eta laburpenak sartu ohi dira. Magazinetan, berriz, atal finkoak egon arren, gidoia egiteko orduan askatasun handiagoa izaten dute egileek, saioak egitura zabalagoa izaten duelako. Partaidetasunean oinarrituriko irratsaioetan ezin izango da oso gidoi itxia erabili.

3. Lan-erak.

Denbora luzez elkarrekin lan egin duten pertsonen talde batek oso gidoi eskematikoak egiten ditu, gauza asko ulertuzat ematen baitira. Eskaleta bat nahikoa izaten da atal edo tarte ezberdinen ordena eta kokapena jakiteko, eta teknikaria, gidoia irakurri beharrean, mintzalekutik egiten zaizkion keinuez baliatzen da, sartu behar duen hurrengo soinu-iturria zein den jakiteko.

4. Sormena edo irudimena.

Norberak duen sormen-ahalmenaren arabera, gidoian nahasten diren elementuek produktu berria sortzen dute edo betiko eskemak errepikatzen dituzte. Batzuetan, egilearen estiloak eragina du gidoian, bere seilu propioa ezartzen baitu. Irratian oso gutxitan aurkitzen dira egilearen irratsaioak, baina hauen originaltasuna ezin dute asmatu kopiatzen dutenek.

Gidoia egiteko orduan edozein aukera hautatuta ere, kontuan hartu behar dena honako hau da: irrati-gidoiaren helburua, irratsaioa egiteko tresna baliogarria izatea

da. Beraz, gidoia tresna egokia izan dadin, ondo ulertu behar dute gidoia irrati-errealizazioan parte hartzen duten guztiek: hizlariak eta teknikariek, alegia.

3.2. GIDOI-MOTAK

3.2.1. Gidoi literarioa

Alde argumentala edo literarioa soilik azaltzen duen gidoia da, azalpen teknikorik gabea. Irratirako diseinua du, hau da, ozenki irakurritz entzuleak aditzeko moduan egon behar du idatzita. Gidoi-mota hau saio dramatikoetan, aurretik grabaturiko tartetan eta publizitatean erabiltzen da batez ere. Muntaketa konplexuetan ere gidoi literarioa erabiltzen da, zeinetan irratsaioaren garapen osoa azaltzen duen.

Hizlari bakoitzak irakurri behar dituen testu osoak azaltzeaz gain, planoak eta parte hartzen dituzten beste soinu-elementu batzuk jasotzen dira gidoian, zehaztapen teknikorik ez badago ere.

3.2.2. Gidoi teknikoa

Planoz plano agertzen den gidoi literarioa da, azalpen teknikoak ere gehituta dituen. Gidoi teknikoan xehetasun guztiak agertu behar dira, entzunezko elementu denak eta zein momentutan agertzen diren ere bai; horregatik, “gidoi osoa” deritzo batzuetan. Hau da, azalpen literarioan agertzen ziren ohar orokorrei, dagozkien datu zehatzak gehitzen zaizkie: diskoen izenburua, autorea, non hasi, noraino, iturri ezberdinak zein planotan sartzen diren, etab.

Gidoi teknikoa sormen-irratsaioetan eta lehenengo saioetan egin ohi da. Irratsaioa parrillan finkatzen den neurrian eta lan-taldeak ohitura batzuk ikasi eta bereganatu ahala, gidoi osoak egin beharrean, eskaleta teknikoak egiten dira.

3.2.3. Eskaleta

Antzerkiko *Scaletta* italiar hitzetik hartua da eskaleta izena. Irrati-gidoi baten eraketa-prozesuaren zati garrantzitsua da. Honetan eszena edo sekuentziak laburtuta eta ordena kronologikoan aurkezten dira soilik. Irrati-sekuentzien azalpenaren garapenean laguntzen duten oinarrizko elementuen eta ekintza berezien bilduma kronologiko eta taxutuak dira eskaletak.

Eskaletan irratsaioen atalak agertzen dira, minutuz minutu neurtu eta azalduta. Oso sinplifikaturiko gidoiak dira, eta eguneroko emankizun edo irratsaioetan erabiltzen dira.

Zehaztapen edo xehetasun teknikoak gehitzen zaizkionean, eskaleta tekniko edo osoa deritzo.

3.2.4. *Pauta*

Eskaletaren antzekoa, da. Pautan, edukien agerpen-ordena ezartzen da, zehaztapen teknikorik gabe. Irratsaioaren gidoi-eraketaren aurreko urratsa da.

Pauta irratsaio orokorrari dagokion bitartean, eskaleta irratsaio horren emaldi konkretuari dagokio. Hau da, pautan irratsaioaren egitura osatzen duten elementuak agertzen diren bitartean, eskaletan egun konkretu batean azalduko diren elementu edo sekuentziak azaltzen dira eta zehaztapen teknikoak ere bai.


Bi motatako pautak erabiltzen dira:

- Finkoa: pauta berdina erabiltzen da irratsaio guztietan —aldatzen dena irratsaio bakoitzaren eskaleta konkretua da—. Adibidez, pauta finko hauek albistegietan erabiltzen dira.
- Irekia edo askea: eguneroko edukien arabera egiten dena —eskaletan zehaztapenak gehitzen dira—. Abantailak izaten ditu eguneroko irratsaioa gaurkotasunari moldatzeko orduan. Pauta ireki hauek magazineta erabiltzen dira.

3.2.5. *Hot-clock edo erlojua*

Baliabide hau gidoiaren aurretiko eskema dugu edo oinarrizko gidioa —pauta bezala—. Itxura biribila du eta zatitan banatzen da —gazta edo tarta baten antzera—. Irratsaioa osatzen duen soinu-masa banatzen da: albisteak, elkarrizketak, publizitate-taketak, sarrerak, musika-tarteak, etab.

Hot-clock hau ezin da mintzalekutik kanpo erabili, eta bukatu gabeko eskematzat hartu behar da beti, eta ez gidoi osoaren ordezkotzat. Autokontrola egiteko oso baliagarria izaten da, edukiaren zein txanda den jakiteko orduan. Horregatik, oso erabilia da irrati-formulan, programazioa errepikatzen diren tarte edo sekuentzietan banatzen baita.



Hot-clock baten adibidea.

3.3. GIDOIEN DISEINUA

Irrati-emandegi bakoitzean edo irratsaio ezberdinetan gidoi-taxuera ezberdinak erabiltzen dira. Bakoitzak irratsaioaren beharrei ondoen egokitzen zaien gidoi-mota erabili behar du. Ondoko araua hartu behar da kontuan:

GIDOIAK ARGIA IZAN BEHAR DU

Gidoiak mintzalekuaren eta kontrol-gelaren arteko erlazioa erraztu behar du, eta, horregatik, elementu guztiak argi azaldu behar dira.

Diseinuari dagokionez, gehien erabiltzen diren gidoi-taxuerak honako hauek dira: amerikarra eta europarra.

3.3.1. Gidoi amerikarra (amerikar erara egindakoa)

Zutabe bakar batean aurkezten den gidoi tekniko da. Irakurgaiak eta xehetasun teknikoak bata bestearen ondoan idazten dira. Gune zabal bat utzi behar da bazterrean, beharrezkoak diren azalpen edo oharrek ipintzeko. Azalpen teknikoak letra larri edo maiuskulaz idatzi behar dira, eta alde literarioa minuskulaz, bi arloak ondo bereizteko.

3.3.2. Gidoi europarra (europar erara egindakoa)

Bi zutabetan agertzen da. Ezkerraldekoan soinuak eta xehetasun teknikoak idazten dira; eskuinaldekoan, berriz, testuak.

Honen aldaerak ere erabiltzen dira: zenbait saiotan —batez ere saio dramati-koetan eta irratsaio konplexuetan— hiru zutabe edo gehiago erabiltzen dira, soinu-planoak bereizteko helburuz.

Bai gidoi amerikarrean bai europarrean ere, orrialdearen ezker aldean sekuen-zia bakoitza sartzen den unea zehazten da. Eskualdean, berriz, irauten duen denbo-
ra azaltzen da.

Bi gidoi-mota hauen taxuera ezberdinak erabil daitezke, batez ere muntaketa zehatza behar duten saioetan: eszenen iraupen zehatza, planoen edo pertsonaien al-
daketa eta bestelako zehaztapenak, beste zutabe batean ager daitezke. Konplexu-
tasun handiko saioetan, mikrofono edo soinu-iturri bakoitzari egokituriko zutabea
gehi dakiokete gidoiari.

3.4. GIDOIAREN EGITURA

Gidoiaren helburua ahal den ulergarritasun handiena lortzea da. Bertan, irratsaioa osatuko duten elementu guztiak agertu behar dira, eta horrek indikazio guztiak —testuak eta azalpen teknikoak— jartzea exijitzen du.

Aipatu dugunez, gidoiak argia izan behar du. Beraz, hitz laburtuak, ikurrak edo argia ez den tipografia erabiltzeak oztopatu egin dezake irakurketa, zalantzak eta trabak sortuz eta horrela mezuaren ulermena eragotziz.

- Gidoi guztiak zenbait datu izan behar dituzte goialdean, beren identifikazio-
rako beharrezkoak direnak. Batzuetan, irrati-emandegian era normalizatuan
eta inprimatuan ematen dira: emandegia, audizioa, irratsaioa/atala, data, ordua,
egilea, iraupena, hizlariak, aktoreak-antzezleak, muntatzailea, soinu-tekni-
kariak, zuzendaria...
- Goitik behera, gidoiak zutabetan banatzen dira. Hauetan ondo bereizi behar
dira KONTROLari dagozkion zehaztapenak —maiuskulaz— eta **testua**
—minuskulaz—. Horrez gain, denborak eta iraupenak ere idatzi behar dira.
- Zeharretara, horizontalki, hizlariak irakurri behar dituzten testuak agertzen
dira, beraien ondoan hizlari bakoitzari dagokion zenbakia azalduz: esate
baterako, 1. HIZL., 2. HIZL... Ohar edo xehetasun hauek letra larriz
—maiuskulaz— idatzi behar dira, sangraturik, antzerki-gidoietan bezalaxe,
irakurriko den testutik bereizi ahal izateko.
- Testuek sangraturik joan behar dute, orriaren kantoitik 10-12 espaziora. Era
horretan eginez, nabarmenki agertuko dira, eta bazterrean irakurleentzako
oharrak idazteko lekua utziko da.

- Testuak eta kontrolari dagozkion datuak —diskoak, zintak...— oso ondo bereizi behar dira: zehaztapen teknikoak maiuskulaz doaz eta askotan azpi-marratuta edo lauki baten barruan.
- Gidoian, irratsaioan ager daitezkeen elementu guztiak azaldu behar dira, eta baita zehaztapen konkretuak ere. Beraz, besteak beste, honako datu hauek agertu behar dira:
 - Soinu-iturriak: diskoak, zintak, ordenagailua, mini-diskoak, etab...
 - Parte hartzen duten mikrofonoak eta nori dagozkion.
 - Gorabehera teknikoak: konexioak, telefono-deiak, grabaketen ebaketak, publizitate-taketak, ISDN/RDSI, etab.
 - Muntaketa: soinu-iturri bakoitza nola sartuko den, hots, bata bestearen ondoren, laguntzen, fundituaren bidez, etab... Ondo zehaztu behar dira muntaketari dagozkion azalpenak.
 - Denborak eta iraupenak: soinu-iturri bakoitza noiz sartzen den eta zenbat segundo edo minututan irauten duen.

Normalean, honako laburdura hauek erabiltzen dira:

L.P.: Lehen Planora. Soinu-iturria lehenengo planoan agertzen denean.

LAGUNTZEN: Soinu-iturria bigarren planoan edo hondooan entzuten denean.

LOTU: Soinu-iturri bat aurrekoaren ondoan sartzen denean.

FUNDITU: Aurreko soinu-iturria desagertzen den heinean, hurrengoa sartzen da poliki-poliki, eta une batez biak batera entzun daitezke.

AMAITU eta BUKATU: Soinu-iturria amaitzen denean, beste tarte bati pasabidea emateko.

Honako ohar hauek hartuko dira kontuan:

- Hasitako aginte edo zehaztapen teknikoak une edo momentu batean amaitu behar dira eta, beraz, gidoian agertu behar dira une horiek.
- Azalpen teknikoak soinu-iturria sartu aurretik idatziko dira, eta ez ondoren.

Adibidez, azpian azaltzen diren bi aukeren artean, lehenengoa (1) zuzena den bitartean, bigarrena (2) okerra da:

KONTROLA: SINTONIA (4") ETA LAGUNTZEN

1. HIZL.: *Beti bezala, gaur gure irratsaioan informazioa, denbora-pasakoak, aholkuak eta abar izango ditugu.*
2. HIZL.: *Zuekin egongo gara goizean zehar, laguntzen eta, zergatik ez, proposamen berriak egiten.*

KONTROLA: SINTONIA LP (4") ETA AMAITU ELKARRIZKETAREN HASIERAN

1. HIZL.: *Guztiok dakigu nor den Kepa Junkera. Beti akordeoi bati itsatsita imajinatzen dugu. Gaur berriz, musikaz gain beste gauza batzuei buruz hitz egiteko aukera izango dugu berarekin. Egunon Kepa!*

KEPA (KONEXIO TELEFONIKOA...)

1

KONTROLA: SINTONIA (4") ETA LAGUNTZEN

1. HIZL.: *Beti bezala, gaur gure irratsaioan informazioa, denbora-pasakoak, aholkuak eta abar izango ditugu.*
2. HIZL.: *Zuekin egongo gara goizean zehar, laguntzen eta, zergatik ez, proposamen berriak egiten.*

KONTROLA: SINTONIA LP (4")

1. HIZL.: *Guztiok dakigu nor den Kepa Junkera. Beti akordeoi bati itsatsita imajinatzen dugu. Gaur berriz, musikaz gain beste gauza batzuei buruz hitz egiteko aukera izango dugu berarekin. Egunon Kepa!*

KONTROLA: SINTONIA AMAITU

KEPA (KONEXIO TELEFONIKOA...)

2

3.4.1. Testuaren tipografia eta aurkezpen formala

Ozenki edo boz goraz irakurtzeko testuetan, behar-beharrezkoa da argitasuna; beraz, atal honetan testua ahal den argien ager dadin lagungarri diren zenbait aholku edo arau emango ditugu.

Idea bakoitzeko, orrialde bana erabili

Honako honetan, hainbat eskuliburutan ikus-entzunezko komunikabideetan eman ohi diren testuen tratamenduari buruzko aholku batzuk biltzen saiatu gara:

Letra-tipoa

Irratian irakurriko diren testuetan letra-tipo ertaina erabili behar da, ez handiegia, ez txikiegia.

Batzuek kontrakoa esan arren, letra xehez —hau da, hasierakoa maiuskulaz eta beste guztiak minuskulaz— idatzitako testuak hobeto irakurtzen dira letra larriz (maiuskulez soilik) idatzita daudenak baino. Era berean, minuskulaz idatzitako testuetan zerbait azpimarratu nahi dugunean, nahikoa izaten da bereizi nahi den hitza edo esaldia letra larriz idaztea.

Bi espaziotan idaztea izaten da komenigarriena, testua ahal den argiena izan dadin.

Orrialde-bazterrak

Orrialdeko alde batetik besteraino idatzitako testuak okerrago irakurtzen dira, bi aldeetan lekua uzten denean baino. Beraz, orrialde-bazterretan 2,5 cm-ko espazioa utzi ohi da (gutxi gorabehera), irakurketa errazteko asmoz.

Orrialde-buruak

Irratian, norberak idatzitako testuez gain, beste idazle, gidari edo kazetariak idatzitakoak ere irakurri behar dira askotan; beraz, eta saioen garapena ahal den errazena izan dadin, testu guztiak —batez ere albisteak direnean— identifikatu egin behar dira. Horretarako, honako elementu hauek agertu behar dira:

- Emandegia.
- Irratsaioaren izenburua.
- Atalaren izenburua.
- Data eta emanaldi-ordua.
- Kazetari edo hizlariaren inizialak edo izen-abizenak.
- Orrialde-zenbakia (oso garrantzitsua da ordena baten arabera garatzen diren saioetan, esaterako, albistegietan).

3.4.2. Irakurketa erraztuz

Zenbakiak

a) Batetik hamaikarainoko zenbakiak hizkiez idatzi behar dira (bat, bi, hiru...), hitz motzak eta, era berean, argiak baitira; zenbakiak, berriz, testuaren erdian nahas daitezke.

Bai: Hiru pertsona atxilotu dituzte droga-trafikoaren akusaziopean...

Ez: 3 pertsona atxilotu dituzte droga-trafikoaren akusaziopean...

b) 12tik 999ra bitarteko zenbakiak zifratan idatzi ohi dira, oso erraz irakur daitezken zenbakiak dira eta. Hala eta guztiz ere, zenbakiaren hitza erabiltzea onartzen da.

Beste 75 lagun zauri larriekin suertatu ziren...

Edo: Beste hirurogeita bost lagun zauri larriekin suertatu ziren.

c) Mila, milioi, bilioi hitzak erabili; hala ere, hauen aurreko zenbakiak azaltzeko, numeralak erabili ahal dira. Batetik hamaikarainoko zenbakiak ere hizkiz idatziko dira mila, milioi eta bilioi hitzarekin doazenean (hamaika mila, bi milioi, zazpi bilioi...). Hamaika mila, bi milioi, 75 mila, 500 milioi... Irakurtzen duen bitartean, aurkezleak ez du zenbakia markatzen duen komarik edo punturik aurkitu behar

Bai: 37 milioi 473 mila pezeta...

Ez: 37,473,000 pezeta...

d) Salbuespena urteak dira: zenbakiz edo zifratan idaztea komeni da, eta ez hitzez, azkarrago identifikatzen dira eta.

1999an, 2000.ean, 2000. urtean, 1974an, 1975ean...

e) Ordinalak, aldiz, hitzez idatzita erabiltzen dira.

Bai: Zazpigarren, bederatzigarren, laurogeita hamargarrena.

Ez: 7., 9., 90.a edo XII., IX., XCa.

f) Zenbakiekin batera doazen zeinu edo berbak laburtu gabe idatzi behar dira. "Ehuneko" bezalako hitzak osotasunean idatziko dira, eta ez % bezalako zeinuen bidez.

Bai: mila pezeta, 100 gramo, bi kilo, bost gradu, hiru minutu, zazpi ordu, ehuneko hamar.

Ez: 1000 pta., 100 gr, 2 kg, 5°, 3", 7 o, %10.

g) Frakzioak eta hamarrekoak (dezimalak) hizkiez idatzi behar dira beti:

Bai: Hiru laurden, bi koma hiru...

Ez: 3/4 edo 2,3

h) Testuinguru berdinean erabilitako zenbakiek itxura mantendu behar dute.

Bai: 24tik 10, edo hogeitalautik hamar...

Ez: 24tik hamar...

i) Orduak era naturalean esaten den moduan idatzi behar dira.

Bai: Goizeko sei t'erdietan edo gaueko bederatzietan...

Ez: Goizeko 6:30etan edo gaueko 21etan...

Laburdurak eta siglak

Ikus-entzuteko testuetan hitzak irakurtzen diren moduan agertu behar dira. Beraz, I-S-D-N, N-B-A, B-B-V-A bezalako siglak horrela idatziko lirakete. Arau hau, berriz, ez da aplikatzen hizkuntza arruntean hitz bihurtu diren siglei dagokionez, adibidez, DAT, IHES... eta antzeko hitzekin.

Erakunde berri batez hitz egiten denean, hobe da lehenengo aldiz izen osoa erabiltzea, ondoren siglekin ordezkatzeko, ulergarria izan dadin. Dena dela, ulertzeko arazoak daudenean, esaldi osoa erabiliko da, siglen orde.

Herri edo estatuen izenei dagokionez, osotasunean idaztea komeni da, eta ez sigletan: esaterako *Estatu Batuak* eta ez *EEBB* eta are gutxiago *USA*. Testu erdian holako siglak topatzeak, ahoz gora egindako irakurketa oztopatzen du, esanahia oso ondo ezagutu arren.

Pta., e.a. edo *or.* bezalako laburdurek ere zaildu egiten dute irakurketa. Horregatik, beti hitz osoa erabili behar da: *pezeta, eta abar, orrialde.*

Zuzenketak nola egin

Testua argi eta garbia izan behar da, irakurketa ahal den errazena izan dadin. Beraz, zuzenketak ere oso txukun agertu behar dira. Beraz, ezin dira ez geziak, ez izartxoak eta ezta bazterrean idatzitako hitzak erabili. Era berean, ez dira tarteko pasarteak testu amaieran jarriko, dagokien lekuan ohartu arren.

Testu hauetan, ahal den neurrian, letra-tipo bera erabiliko da zuzenketak egiteko orduan, eta jarri nahi diren tokia zehazki markatuko da. Zuzenketak argiak eta

irakurtzeko errazak izan behar dira. Eskuz egiten badira, inprenta-hizkiak erabiliko dira.

Lau era hauen bidez zuzen daitezke ikus-entzuteko testuak:

1. Zirrimarratuz; hitza edo esaldia estaliz.

Hamar mila pertsonak parte hartu zuten atzo gauean ospatu zen ^{jaialdian} ~~ekitaldian~~

2. Ordezkatuz; hitz edo esaldia estali eta berria gainean idatziz.

Hamar mila pertsonak parte hartu zuten atzo gauean ospatu zen jaialdian

3. Hitzak edo esaldiak gehituz; gehituriko esaldiari dagokion tokia argi azaldu behar da.

Hamar mila pertsona inguruk parte hartu zuen ^{atzo gauean ospatu zen}  jaialdian.

4. Zirrimarra zabala edo hedatua; behar ez diren hitz edo esaldi guztiak estaltzen diren bitartean, baliogarriak direnak ondo markatzen dira.

Hamar mila pertsonak ~~parte hartu zuten atzo ekitaldian~~ inguruk parte hartu zuten atzo ospatu zen jaialdian

Esaldi eta hitz osoak

Ahoskera edo irakurketa txarra saihesteko asmoz, ez ditugu hitzak esaldiaren amaieran zatitu behar, nahiz eta hori arau gramatikalen arabera onartua izan. Zatituriko hitzak irakurgaitzak dira eta naturala ez den geldiketa egitera behartzen dute hizlaria. Horregatik, hitz osoa lerroan sartzen ez denean, hobe da hurrengoan idaztea, hitza zatitzea baino.

Bai: Jaiotze-tasaren igoerak matrikulazioen igoera ekarriko duela uste dute hizkuntz agintariek.

Ez: Jaiotze-tasaren igoerak matrikulazioen igoera ekarriko duela uste dute hizkuntz agintariek.

Era berean, ez da pasartea orrialdearen amaieran moztu behar (eta esaldi batzuk hurrengoan idatzi), aurkezleak irakurketaren haria gal ez dezan.

Enfasia

Hitzak ozenki edo boz gora irakurtzeko idatzen direnean, enfasia tresna semantikoa izaten da. Irrati-kazetaritzan enfasia idatzitako esanahia argitu edo

aldatzeko baliogarria izaten da. Hitz bati edo esaldiari enfasia emanaz, agerian uzten da horren garrantzia.

Enfasia azaltzeko bi era daude:

a) Azpimarra:

1997an jaiotze-tasak gora egin du Euskal Autonomi Erkidegoan. Horrekin batera, eskolan matrikulatzen diren umeen kopurua handitu egin da lehenengo aldiz aurtan, azken urteetako joera aldatuz.

b) Azpimarratu edo bereizi nahi den esaldi edo hitza maiuskulaz idaztea:

1997an JAIOTZE-TASAK GORA egin du Euskal Autonomi Erkidegoan. Horrekin batera, eskolan matrikulatzen diren UMEEN KOPURUA HANDITU egin da LEHENENGO ALDIZ aurtan, azken urteetako joera aldatuz.

Etenaldi edo isiluneak markatu

Irratiko albisteek interpretazioa behar izaten dute; beraz, oso garrantzitsua izaten da irakurketaren erdian tartetxo edo pausaldiak egitea, horrela entzulearen arreta bereganatzeko. Horregatik, testuan ondo adierazi behar da zein unetan sartu nahi diren.

Letreatu eta ahoskera errazteko, ondo idatzi

Hitzak gaizki idatzita daudenean, ez dira ondo irakurtzen. Askotan gure komunikabideetan izen atzerritarrak txarto irakurtzen dira. Hori saihesteko, irakurtzen den bezala idaztea izaten da onena. Hitz atzerritar batek irakurtzeko arazoak sortuko dituela dakigunean, onena azpimarratzea edo letreatzea da.

4. Irratsaioaren eraketa

4.1. IRRATSAIOAREN DEFINIZIOA

Irratsaioa, irratitik, izenburu bakar baten azpian eta aurretik finkatu eta zehazturiko denbora-tarte batean eskaintzen den edukien bilduma taxutua da.

Marti i Marti-k honela definitzen du irratsaioa: *irradi-diskurtoan bereizita dagoen eta egitura propioa eta iraupen zehatza dituen edukien bilduma*. (MARTI i MARTI: 1990)

Beraz, argi azaltzen denez, eduki ezberdinek osatzen dute irratsaioa, eta hala ere, unitate moduan jasotzen dugu, irradi-diskurtoaren barruan bereizita. Honez, gain, finkatutako ordu batean ematen da eta aurretik ezarritako iraupena izaten du.

Hori dela eta, autore batzuek publizitatea irratsaio moduan sailkatzen duten bitartean, beste batzuek, berriz, irratsaioaren beharrezko zati gisa aztertzen dute. Liburu honetan, publizitateari tarte bat eskainiko diogu, irratsaio edo irradi-genero bereiztat joz. Hau da, publizitatea irratsaioen barruan koka badaiteke ere, gehiengotan, programazioan bereizita agertzen da eta, gainera, errealizazio-era berezitua izaten du eta gidoi-eraketa propioak ditu.

4.2. IRRATSAIO-MOTAK

Hiru elementu hartu behar dira kontuan irratsaioak sailkatzeko orduan: egitura, edukiak eta iraupena.

Horien arabera bost atal nagusitan sailkatu ahal dira irratsaioak:

4.2.1. Informazio-saioak

- Albiste-buletina: 3-5 minutuko iraupena duen albistegi laburra. Orduro eman ohi da, albistegiak sartzen diren orduetan izan ezik.
- Flasha: premiako albistearen aurrerapena, garatu gabea eta iraupen laburrekoa. Zerbait garrantzitsua gertatzen denean, albiste horri buruzko flash

antzekoa eman daiteke edozein irratsaioren barruan, albistegian luzatuko dela iragarritz.

- Albisteen aurrerapen eta laburpena: buletin antzekoa. Albistegi nagusien aurrean ematen denean, albisteen aurrerapena dugu; eta horren ondoren, esandako berrien laburpena egin ohi da.
- Albistegiak edo albiste-zerbitzu nagusiak: 30 - 60 minutuko iraupena izaten dute. Horrelakoetan informazioa sakontzen da eta albisteaz gain beste generoak ere erabiltzen dira: erreportajea, iruzkina, kronika, elkarrizketa... Irrati konbentzionaletan, emandegiaren irudia ordezkatzeko izaten dira, katearen sinesgarritasuna horretan datza eta. Emandegi batetik bestera aldatu ahal den egitura finkoa izaten dute.

Albistegietan, saioa gidatzen duen aurkezle bat edo gehiago izaten dira. Beren diskurtsoak albisteak lotzen ditu eta koherentzia ematen dio saioari, osatzen duten atalak batuz.

- Informazio-magazina: informazioa hari nagusitzat dituzten magazinak.
- Monografikoak edo Edizio Bereziak: albistegi hauek zerbait garrantzitsu gertatzen denean eman ohi dira. Ez dute ez egun ez ordu finkorik, eta aurretik iragarri ohi dira. Hauteskunde-eguneko edizio bereziak dira hauen adibide bat.
- Polemikaren antolaketa: hauen barruan mahai-inguruak, debateak eta honelakoak sartzen dira. Helburua, informazioa eskaintzea baino gehiago, iritzia ematea da; iritzi-generoa da.
- Informazio-saio mistoa: publizitatea sartzen duen albistegia.
- Informazio-saio handia: honen barruan kirol-emankizunak, futbol-partiduak eta holakoak ere kokatzen dira; iraupen luzekoak izan ohi dira.

4.2.2. Mistoak

- Magazinak: iraupen luzeko irratsaioak dira. Beren garapenean gaiak —denbora gutxiro— aldatzen dira; edo, bestetan, gertaera bat sakondu eta bere osotasunean ezagutzera jotzen da. Magazinetan, informazioa, musika, ikuskizuna, iritzia, publizitatea, elkarrizketak, kronikak, entzuleen partehartzea, etab. sartzen dira.

Bertan sartzen diren gaiak lotzeko, magazinak bi elementu ditu: gaurkotatutako informazioa eta aurkezlearen azalpenaren erakargarritasuna. Irra-

tsaio-mota hauetan pertsona askok hartzen dute parte, hizlari- eta kolaboratzaile-sare handia osatuz. Horietako batek irratsaioa gidatu ohi du. Estatu espainiarrean magazinaren arrakasta hizlari ezagunen ospearen gainean oinarritzen da eta, beraz, irratiaren *star-system* delakoari buruz hitz egiten da.

- Irrati-formulak: hauetan generoak nahasten dira. Iritzia, informazioa eta musika konbinatzen dira programazioa aurrera eramateko orduan. Formula hauen ezaugarri nagusia programazio-eskema baten errepikapena da. Gaiak ezberdinak izan arren, taxuera bakarreko programazioak izaten dira. Hedatuen dagoen irrati-formula, musikala izaten da. Taxuera hau gazteei zuzendutako irrati-formulek sortu zuten arren, gaur egun publiko eta gustu ezberdinei zuzendutako zerrendak egiten dira.

4.2.3. Musika-Saioak

- Musika-albistegia: musikari buruzko albistekak, elkarrizketak, disko berriak, ekitaldiak, kontzertuak, lehiaketak eta abarrek osaturiko informazio-bilduma eskaintzen dute albistegi hauek.
- Hits Parades edo disko-zerrendak: entzule edo irratsaioen arduradunek aukeratutako diskoen emanaldian oinarritzen dira. Zerrendak astero egin ohi dira, entzule edo aurkezleen arteko bozketen emaitzen arabera.
- Irratsaio Berezituak: musika-mota edo mugimendu batzuei buruzko informazioa eta entzunaldiak eskaintzen dituzte.
- Edizio Bereziak: gehien ematen diren edizio bereziak, zuzeneko kontzertuak izaten dira. Gaur egun, eta grabaketa-sistema digitalari esker, kalitate handiko emanaldiak eskaini ahal dituzte emandegiek. Etorkezian hurbilean entzuleek ordaintzearen truke kontzertu ezberdinak zuzenean entzuteko aukera izango dutela aurreikusten dute aditu askok.

4.2.4. Saio dramatikoak

Ia programazio guztietan oso baztertuta badaude ere, oso garrantzia handia izan zuten saio dramatikoek irratigintzaren lehenengo garaian. Irratirako espreski idatzita egon edo beste lanen moldaketak izan, honako irratsaio dramatikoek motak bereiz daitezke:

- Irrati-antzerkia: irratiari egokituriko antzezlanen emanaldia.
- Irrati-nobela: irrati-hizkuntzan moldaturiko eleberrien emankizuna.
- Seriala: atalka eskaintzen den irrati-nobela.
- Dokudrama: albiste edo gertaera baten antzezkiuna.

- Esketxa: irrati-antzezkiun laburra. Bi motatakoak izaten dira bereziki: umorezkoak —gertaera batzuen parodiak— edo publizitatezkoak.

4.2.5. Denbora-pasakoak – Aisialdia

- Lehiaketak: horietan entzuleen partehartzea bultzatzen da. Zuzenean egindako lehiaketetan ezinbestekoa da telefonoa.
- Umorea: umorea eta kritika askotan nahasten dira irratsaioetan. Umorezko saio gutxi egiten badira ere, ia magazin gehienetan tartea uzten zaio umoreari.
- Haurrentzako irratsaioak: telebistak eskaintzen duen irudi koloredunen munduarekin lehiatu ezin dutenez, irrati-emandegiek baztertu egin dute umeen mundua azkenengo hamarkadetan. Irrati lokaletan, berriz, haurrek beren leku propioak izaten dituzte, zeinetan nahi dituzten pertsonaiekin hitz egiteko eta gustukoa duten musika eskatzeko aukera izaten duten.
- Kultur irratsaioak: agendak, zinemari buruzko saioak, literaturari buruzkoak, etab... entretenitzeaz gain, hezitzeko helburua ere badute.
- Kirol-irratsaioak: kirola ez da falta emandegi gehienetan. Telebistetan bezala, futbolak leku pribilegiatua izaten du. Tokiko irratietan, kirol-talde lokalen inguruko albisteek entzuleria kopurutsua biltzen dute.

4.3. IRRATSAIO BATEN ERAKETA

Irratsaioa ez da pertsona baten lana, talde batena baizik. Lehenengo ideiatik Zero irratsaioa bitartean, asko izaten dira hasierako ideiaren gainean egindako aldaketak. Ondoren, airean egon eta gero, entzuleek sarituko dute —entzunez—egindako ahalegina; bestela, oraindik ere aldaketak egiteko aukera izango da. Irratsaioa argitarara ateratzeko zenbait urrats eman behar dira; atal honetan hasierako ideiatik ebaluazioraino sailkatu dira pauso horiek.

1. Ideia

Irratsaio bat egin baino lehen, ondo pentsatu behar da zer esan nahi den, zer-taz arituko den eta zein edukik osatua izango den. Oso gauza erraza badirudi ere, lehenengo pauso honek parte hartuko duten guztien iritzi bateratua eskatzen du, eta zaila izaten da hori lortzea. Normalean, hasi baino lehen, elkarrekin bilduta, egileek ideiak botatzen dituzte, irratsaioaren ideia osoa zehaztu arte.

Gauza bera gertatzen da irratsaioaren izenburuaz. Izena oso ondo pentsatua izaten da, programaren porrota edo arrakasta baldintza baitezake.

Batzuetan esaldi ezagunak edo esaera zaharrak erabili dira, SER irrati-katearen kasuan, esaterako: *Hoy por hoy*, *A vivir que son dos días*... Bestetan, izenburu azalgarriak baino gehiago, adierazgarriak bilatu dira: Euskadi Irratian, esaterako, *Goizean Behin*, *Euskal Grafitti*, *Boulevard* edo *Los amores de Ana* izeneko irratsaioak ditugu. Bestetan, zuzentzen duen pertsonaren izena azpimarratzen da izenburuan bertan: Jose María García-ren *SuperGarcía*, Julia Otero-ren *Las tardes de Julia* edo desagertutako Encarna Sánchez-en *Directamente Encarna* saioak dira adibide batzuk.

Aditu batzuen aburuz, irratsaioaren ideia finkatzeko orduan, hiru aspektu hartu behar dira kontuan:

a) Ideia tematikoa. Irratsaioaren edukiarekin zuzenean lotuta dagoena. Erdigune baten inguruan, saioan parte hartuko duten elementu guztiak biltzen dira: elkarrizketak, errealizazioa, etab.

b) Ideia narratiboa. Istorioa —errealia edo asmatutakoa— nola azalduko den arabera, irratsaioaren garapen osoa zehazten da.

c) Ideia poetikoa. Zeinu eta soinuak, eduki eta azalpenaren beraren gainetik, esanahi edo signifikantza estetikoan oinarritzen dira.

Beste aldetik, ideiak jatorrizkoak edo originalak izan daitezke edo beste lanen moldaketak edo egokipenak. Azken kasuan, jatorrizko laneko puntu garrantzitsuenak errespetatu behar dira.

2. Laburpena

Ideiaren idatzitako garapena edo kontakizuna da. Irratsaioaren istorioa edo edukia hitz gutxitan azaltzen da. Laburpenean aspektu garrantzitsuenak azpimarratzen dira: saioa nori zuzenduko zaion, lortu nahi den helburua zein den, atal nagusiak zein izango diren, edota egunez egun gidoia nola osatuko den —atal finkoak, egunetik egunera aldatuko direnak, etab...—. Saio dramatikoek *planteamendua + korapiloa + ondorioa* motako eskema dute.

Irratsaioen garapena edo edukiak ondo zehazteaz gain, aurrera eramateko beharrezkoak diren bitartekariak —pertsonalak eta materialak— ere ezarri behar dira, eta baita hori guztia finantzatzeko erabil daitezkeen baliabideak ere. Esan beharra dago, irratian irratsaioen errealizazioa eta produkzioa askotan batera doazela eta ideia sortzen duen lan-taldeak berak hori errentagarri bihurtzeko baliabideak bilatu beharko dituela. Horretarako, oso ondo finkatu behar dira bai helburu zehatzak eta baita zein entzule-motari heldu nahi zaion ere.

3. Eskaleta

Irratsaioaren gidoiaren eskema egituratua da. Bertan, edukiak edo sekuenziak ordenan garatzen dira. Lehenengo pausoa aurretiko eskaleta edo pauta egitea da, ondoren denborak, iraupenak eta aspektu teknikoak gehitzen zaizkiolarik. Azkenengo eskaleta horri laburpen teknikoa deitzen diote batzuek.

Eskaletak honako egitura hauei erantzun ahal die:

- a) Egitura lineala: azalpena istorioaren garapen kronologikoari jarraitzen zaio.
- b) *Flash-back*: azalpenak iraganera egiten du salto.
- c) *Flash-forward*: azalpenak etorkizunerantz egiten du salto.
- d) Paraleloa: azalpena aldi berean garatzen diren bi ekintzei jarraitzen zaie, bata bestearen ondoan aurkeztuta eta puntu berean bukatuta.

4. Gidoia

Hurrengo pausoa irratsaioaren gidoia egitea da. Urrats hau sakonki aztertuko dugu hurrengo orrialdeetan.

5. Emanaldia

Gidoi osoa izan ondoren, irratsaioaren emanaldia da, zalantzarik gabe, unerik garrantzitsuena. Irratiaren ezaugarriak nagusiena zuzeneko komunikabidea izatearena da. Emanaldia zuzenean burutzen da. Dena dela, horrek ez du esan nahi zati batzuk aurretik grabatuta ez daudenik; baina oso gutxitan eskaintzen dira aurretik grabaturiko irratsaio osoak. Beraz, honako emanaldi-mota hauek aurki ditzakegu irratian:

- Zuzenekoa. Ohikoa izateaz gain, horretan datza irratia baliorik garrantzitsuena.
- Zuzenekoa, baina atal batzuk aurretik grabatuta. Zentzu horretan programazio guztietan errepikatzen diren elementu batzuk aurretik grabatuta daude: publizitate-taketak, sintoniak, adierazleak, etab... Horrez gain, irratsaio askotan aurretik grabaturiko kronikak, erreportajeak, esketak eta beste motatako muntaketak sartzen dira, zuzeneko garapenean integratuta.
- Diferitua: oso gutxitan erabiltzen bada ere, emanaldi batzuk diferituan ematen dira, batez ere entzule gutxiko ordutegietan —aurretik emandako irratsaioak errepikatzen dira— edo oporretan. Hori gertatzen denean, emango den irratsaioa grabatuta dagoela ohartarazten da aurretik.

6. Ebaluazioa

Saioa eman eta gero, entzulerik ez badu, zer gertatzen da? Kasu horretan, ia guztietan irratsaioa etorri den moduan desagertu egiten da, ia nabarmendu gabe, inoiz egon ez balitz bezala. Entzuleriak ezartzen du gehienetan irratsaioaren arrakasta edo porrota. Honek oso gutxitan du zerikusirik irratsaioaren kalitatearekin. Irrati pribatuetan ebaluazioan hartzen den ikuspuntutik garrantzitsuena, errentagarritasun ekonomikoa izaten da: entzulerik ez badu, irratsaioa ez da errentagarria, eta, beraz, ez dago programazioan mantentzerik.

Emandegi publikoetan, berriz, zerbitzu publikoaren kriterioak izan beharko luke nagusi, baina zerbitzua baliagarria izateko, entzuleengana heldu beharko litzateke; beraz, horrelakoetan ere entzule-kopurua izaten da kontuan hartzen den erreferentzia. Bestetan, errentagarritasun politikoak neurtzen du irratsaio baten baliogarritasuna. Kalitatea gutxitan izaten da irizpide nagusia. Dena dela, kalitate handiko irratsaioa ere publikoaren gustukoa izan ohi da, gehiengoaren izenean koste gutxi-ko irratsaio kaxkarrak egiten badira ere.

Beraz, laburbilduz, honako kriterio hauek hartu behar dira kontuan irratsaio baten ebaluazioa egiteko orduan: kalitate teknikoa, edukien kalitatea, entzuleriaren erantzuna eta, nola ez, errentagarritasun ekonomikoa edo soziala.

4.4. IRRATSAIO-MOTAK ETA GIDOIAK

4.4.1. Albistegietako gidioia

Orokorki, albistegietan ez da gidoi osoa egiten, pauta bat baizik. Albistegiak egunero errepikatzen diren irratsaioak direnez, egitura finkoa izaten dute, eta ez da aldaketa handirik izaten egun batetik bestera —izatekotan, amaieran elkarrizketa bat sar daiteke, edota albiste berezi bati tratamendu berezia eman dakioke—.

Irrati-albistea idazteko orduan, prentsako berriaren egitura baztertu behar da, irakurtzeko baino gehiago entzuteko idatzita egon behar baitu irrati-gidoiak. Beraz, irratian ez du buruz beherako piramidearen eskemak balio, eta erreduantzia eta errepikapena erabiltzea zilegi da; are gehiago, oso beharrezkoa da, entzuleak informazioaren haria gal ez dezan. Horregatik, albistean zehar, datu berriekin batera, aurretik esandako batzuk errepikatu behar dira, alde batetik entzuleen arreta mantentzeko eta, bestetik, datu berriak aurrekoekin lotzeko.

Erabili ahal den eskema, honako hau litzateke Ramón Barea-ren ustez (BAREA eta MONTALVILLO: 1992, 47. or.):

1. Sarrera edo hasiera: azken orduko datuak (datu berriak). Ez da hasiko aurrean emandako datuekin.
2. $2/3$ W galderei erantzungo lieke: nor?, zer?, non?, noiz? edo nola? (momentuz momentu garrantzitsuenak).
3. Datu erredundanteak + datu berriak.
4. Datu erredundanteak + datu berriak.
- 5...
6. Itxiera, $2/3$ W. Informazioan zehar garaturiko eduki edo ikuspuntuaren arabera, datuak emango lirateke, entzuleak albistearen osotasunean uler dezan.

Normalean, albistegietako gidoia egin baino lehen, sartuko diren albiste edo informazioak aztertzen eta ordenatzen dira. Ordena ezartzeko kriterioak ezberdinak izaten dira:

- albisteen garrantzia;
- hurbiltasuna edo urruntasuna;
- gaurkotasan edo berehalakotasuna;
- lekuko edo protagonisten adierazpenak izatea ala ez;
- atalen banaketa, emandegiaren estrategia edo politikaren arabera.

Ordena ezarrita egon ondoren, albisteak zenbatu eta hizlari bakoitzari dagozkionak banatzen dira. Era berean, sartuko diren titularrak edo esaldi nagusiak idazten dira sumario edo laburpenean. Lan hori guztia editorearen esku egoten da, baina honek lan-taldean delegatu ahal du, berak azken hitza edo erabakia izan arren.

Aurkezpenari dagokionez, honako hauek dira kontuan hartzeko ezaugarriak:

- albiste bakoitza orrialde banatan joango da, zenbatuta eta ondo sailkatuta, albistegian zehar ordena alda ez dadin;
- azalpen teknikoak ondo adierazi behar dira, bai editorearen eta kontrol-arduradunaren pautetan, bai hizlari bakoitzari dagozkion albiste-orrialdeetan —informazioan bertan, ondo adieraziko da grabaturiko adierazpenak sartu behar direla, edota sintonia edo musika-boladak aurretik edo ondoren doazela—.

Editorearen pautak

Albistegi Nagusiko editoreak zuzentzen du saioa. Beraz, editoreak duen pautan, zehaztapen teknikoez gain, hizlarien eta korresponstalen partehartzea eta berak ida-

tzitako aurkezpenak —atalak, albisteak edo esatariei pasabidea ematekoak— azaltzen dira.

Kontrol-arduradunari emandako pautak

Kontrol-lanetan ari den pertsonari emandako pautan, honako datu hauek agertu behar dira:

1. Zehaztaperen teknikoak: sintoniak, kareta, boladak, telefono-konexioak, zintak, ebakiak, etab...
2. Hizlarien partehartzea. Komenigarria izaten da informazioen edo partehartze guztien azkenengo esaldiak azaltzea; hori posiblea ez balitz, gutxienez hizlari bakoitzaren albisteen izenburua edo gaia azalduko da, eta hizlariak ondoren azaldu beharko du —keinuen bidez— non sartu behar den dagoen azalpen teknikoa.

Albistegiko atalak

a) Atal finkoak

- Karetak: albistegiaren hasieran ematen den sintoniari esaldi laburra gehitzen zaio —informazio-zerbitzuak, albistegiak, albisteak...—. Irrati-emandegiaren estilo-liburuaren arabera egiten da hori, eta irratsaioa —eta zein kate edo irrati den— ondo identifikatu behar du; beraz, azalgarria eta ezaguna izan behar da, entzuleak aditu bezain laster ezagut dezan. Esan dugunez, irrati konbentzionaletan, albistegiak izan ohi dira kate edo enpresaren marka.
- Sumario edo titularren atala: aurkezpen ezberdinak izan ditzake. Ohikoa, sintoniaren gainean titularren bateria azaltzea izaten da:

KONTROLA: TITULARREN SINTONIA LP ETA LAGUNTZEN

1. HIZL.: lehenengo albistearen titularra

KONTROLA: TITULARREN SINTONIA LP ETA LAGUNTZEN

2. HIZL.: bigarren albistearen titularra

...

Bestetan, hizlarien arteko gurgil batean ager daitezke titularrak: bakoitzak albiste garrantzitsu baten laburpena azaltzen du: gehienetan, bakoitzari dago(z)kion atalaren albiste nagusia(k) aipatzen d(it)u.

Taxuera mistoak erabiltzen dira beste albistegietan: albiste batzuk garaturik aurreratzen diren bitartean, beste batzuk titularren batera batean azaltzen dira. Garatzen diren albisteak, ondoren sakonduko direnak dira.

- Sailak: egunkarietan gertatzen den legez, irrati-albistegietan ere berriak sail ezberdinetan banatzen dira. Honako atal hauek bereizten dira: lokala/bertako albisteak, errejionala/herrialdeetako berriak, nazionala, estatuala, nazioartekoa, gizarte/kultura, gertaerak, ekonomia, kirola, eguraldia eta agenda edo zerbitzuak.

Sail hauen agerpen-ordena irrati-emandegiaren politika estrategikoaren arabera ezartzen da. Esaterako, irrati lokaletan, informazio lokalari lehentasuna eman ohi zaion bitartean, estatuko emandegietan, estatu edo nazioarteko albisteak dira nagusi.

Batzuetan, hasierako albistea ez dagokio lehenengo atalari; beraz, editoreak edo albistegiaren gidariak kokatu beharko ditu albisteak, eta ondoren, ohiko ordenari ekin, behar dituen aipamenak eginez.

Sailak bereizteko baliabideak honako hauek izaten dira:

- Editore edo hizlarien aurkezpena, zein atalean gauden kokatzen gaituen.
- Boladak edo kolpe musikalak. Honez gain, zenbait ataletan sarrera-karetak aurkitu ahal dira, Eguraldia, Kirola edo Burtsako informazioa iragartzeko, besteak beste.
- Itxiera-kareta. Aurreko edo sarrera-kareta modukoa izaten da, baina helburua irratsaioaren amaiera azaltzea da, baita agurtzea ere. Batzuetan, kareta honetan lan-taldearen izenak aipatzen dira, bai aurretik grabatuta, bai sintoniaren gainean zuzenean azalduz.

b) Atal gehigarriak.

Aurreko atalak ia albistegi guztietan aurkitu ahal diren bitartean, honako atal hauek ez dira beti agertzen.

- Publizitatea. Gero eta gehiago sartzen ari da albistegietan. Gidoian azaldu behar da, noiz sartu behar den jakiteko.
- Eguraldia, agenda, burtsa... eta beste atal batzuk, albistegitik bereizirik ager daitezke —batzuetan bere publizitate edo babesle propioa izanda—, bakoitzaren bere kareta edota sintonia bereziarekin.

Ondoko elementu hauek ere aurretik grabaturik egon daitezke, eta beraz, gidoian iturri bakarria balitz modura agertu:

...

KONTROLA: EGURALDIA

...

Edo, bestela, zuzenean egiten diren atalen modura agertu:

...

KONTROLA: EGURALDIAREN KARETA

Pello Zabala: Gaurko, eguraldi kaxkarra espero dugu...

KONTROLA: IBERDROLA-REN IRAGARKIA - EGURALDIAREN KARETA

...

- Ezohiko beste atal batzuk honako hauek izan daitezke: elkarrizketa edota erreportajeak. Hauek ere aurretik grabaturik egon daitezke edo zuzenean egin daitezke; beraz, kontuan hartu behar ditugu gidoia egiteko orduan. Iruzkinek ere lekua izaten dute albistegietan; hauetan ondo identifikatu behar da noren iritzia azalduko den: irrati-emandegiaren arduradunena (editoriala), editorearena (iruzkina) edo kolaboratzaile finkoena (zutabea).

4.4.2. *Magazinen gidoia*

Magazinak izaten dira irrati-emandegi guztietako irratsaio nagusiak. Programazio generalista edo konbentzionala eskaintzen dutenek ez ezik, irrati-formulan oinarritzen direnek ere magazinak eskaini ohi dituzte ordu nagusietan (oso arrakasta handia du *M-80k* goizero ematen duen *Gomaespuma* saioak, gainontzeko programazioan irrati-formula eman arren).

Magazina genero mistoa da eta bertan irrati-taxuera ezberdinak nahasten dira:

- informazioa
- denbora-pasakoak/aisialdia
- kultura/ikuskizunak
- iritzia

Era berean, magazinak taxuera mistokoak izaten dira, emanaldiari dagokionez; emisioa zuzenean eta denbora errealean ematen den bitartean, irratsaioan zehar eskainitako tarte batzuk aurretik grabatuta egon daitezke. Beraz, zuzeneko emanaldi eta zeharreko muntaketen teknikak erabiltzen dira magazinetan.

Magazinek programazioa mosaiko modukoa bihurtu dute, hau da, irratsaio isolatuek osatutakoa, blokeka eratuta —goizeko blokea, arratsaldekoa eta gauekoa...—

a) Magazinarene ezaugarriak:

- Eguneroko gaurkotasunarekin lotuta egoten dira magazinaren edukiak.
- Partehartzeak oso garrantzia handia du:
 - elkarrizketak
 - tertuliak
 - entzuleen partaidetza
- Malgutasuna: sekzio finkoek osatu arren, horiek ere alda daitezke, gaurkotasunak edo berri batek horrela eskatuz gero.

b) Jarraikotasuna lortzeko elementuak:

- Hizlari gidaria. Irrati-emandegi gehienetan, irratsaio hauen ardura pertsona batengan oinarritzen da.

Hizlari horrek sakabanaturik dauden tarte ezberdinak lotzen ditu, irratsaioari jarraikotasuna emanez. Era berean, hizlari hori izaten da mahai-inguru edota tertulien moderatzailea; entzuleen deiak ere antolatzen ditu eta atal ezberdinetan parte hartzen duten hizlari edo kronika-egileei ematen die bide. Honez gain, bere iritziak azaltzen ditu zenbait gairen inguruan; halaber, gonbidatuen elkarrizketak zuzentzen ditu —beste hizlari batzuek parte hartu arren, hizlari nagusiak elkarrizketaren zama bereganatzen du—.

Estiloa ere markatu ohi du irratsaioaren gidariak.

- Musika. Irratsaioari jarraikotasuna emateko elementu garrantzitsua izan daiteke musika. Magazin askotan musika-arduraduna izaten da, tarte musikalak aukeratzeko. Horrez gain, tarte ezberdinak bereizteko, boladak, sintoniak, kareta eta tema musikal finkoak erabiltzen dira, entzulea non dagoen kokatzeko.
- Lehiaketak eta entzuleen deiak irratsaioan zehar tartekatuz ere lortzen da jarraikotasuna.

Askotan, irratsaioaren hasieran tema edo gai bat proposatzen du hizlari gidariak, entzuleek beren iritziak azal ditzaten. Hasierako minutuetan gaiaren azalpen orokorra izango da; ondoren, irratsaioan zehar gogorazten da gaia; eta, azkenik, irratsaioaren azken ordu edo minutuetan, iritziak azaltzen dira.

Bestetan, hasieran planteaturiko lehiaketa batek ematen dio jarraikitasuna irratsaioari, noizbehinka datu berriak edo emandako erantzun ez-zuzenak emanaz, azken momentuan soluzioa argitu arte.

Jarraikitasuna eta entzulearen arreta mantentzeko, honakoa izaten da beste aukera bat, alegia, irratsaioan zehar telefonoak irekita izatea, gai baten aurrean entzuleek aldeko zein aurkako jarrera izan dezaten —zundaketa edo inkesta modukoa—. Irratsaioan zehar deiek azaltzen dutena aurreratu arren, azken unera iritsi arte itxaron behar izaten da emaitzak jakiteko.

Magazinak zuzenean garatzen badira ere, tarte batzuk aurretik grabatuta egon daitezke: umorezko esketxak, saio dramatikoak, elkarrizketa batzuk, inkestak, iruzkinak... Hauen grabaketan muntaketarako gidoia erabiliko da, parte hartzen duten soinu-iturriak ondo zehatzuz: disko trinkoak, ahotsak, bobinak...

Zuzenean, berriz, pauta bat baino ez da behar. Magazinetako lan-taldeak urte askotan elkarrekin egonak izaten dira, eta egunero egiten dute lan elkarrekin; era berean, egituraren aldetik ez dira oso aldaketa nabariak ematen —edukiak aldatzen dira, egunez egun batez ere— eta sintoniak, musika-boladak, kareetak... ere berdinak izaten dira egun batetik bestera, entzuleak berehala identifika ditzan. Horregatik, nahikoa izaten da, edukien eskema bat azaltzea, eskaleta edo pauta batean.

Honez gain, hizlari gidari edo zuzendariak aurkezpenak gehitu ahal dizkio pauta horri, informazio-saioetako editoreen pauta antzeko bat osatuz.

Irratsaioan zehar oso erraza izaten da tarte bat beste batez ordezkatzea; hori bai, teknikariekin hitz egin eta gero (esaterako, zerbait larri edo berezi gertatzen denean); zentzu horretan, irratia gaurkotasunarekin lotuta dago, eta erraztasun handia eskaintzen du programazioa aldatzeko orduan.

Magazina entretenigarria izan dadin, eta entzulearen arreta lortzeko asmoz, oso garrantzitsua izaten da oreka lortzea: interes-uneak irratsaioan zehar banatu behar dira, “hildako tarteak” egon ez daitezzen. Era berean, ondo nahastu behar dira denborak, taxuera ezberdinak eta soinu-elementuak (ahotsak eta musika batez ere):

- ahots ezberdinak entzutea komenigarria izaten da: gonbidatuak, beste partehartzaileak, entzuleak, gaurkotasuneko protagonistak. Horretarako, elkarrizketak eta erreportajeak sartu behar dira (ordu bakoitzeko bat edo...);
- lehiaketa planteatzen denean, gutxienez bi zatitan ematea komeni da (planteatu..., eta ondoren, emaitzak azaldu);
- kronika kultural laburrak (diskoak, liburuak, zine-estreinaldiak...) tartekatzen dira irratsaioan zehar;
- horri guztiari beste elementu batzuk ere gehitzen zaizkio: inkestak, esketxak, entzuleen partehartzea, etab.

Publizitateak leku garrantzitsua izaten du irratsaio hauetan; era ezberdinetan agertzen da:

- zuzenean: taketen itxuraz.
- zeharka: saio publizitario moduan edo babesturiko tarte isolatu eran —elkarriketa moduan edo—.

4.4.3. Irratiko saio dramatikoak

1923an BBC emandegiak irratirako espreski egindako lehenengo antzezlanak eman zuen, Shakespeare-ren *Erregeen gaua* obraren moldaketa hain zuzen ere. Hilabete batzuk pasatu ondoren, Richard Hughes-ek *Danger* lana idatzi zuen: hauxe izan zen irratirako pentsaturik egin zen lehenengo obra. Samuel Becket eta Bertolt Brecht idazle ospetsuek ere irrati-antzezlanak idatzi zituzten, besteak beste.

Baina, zalantzarik gabe, irratiaren historian leku berezia duen antzelana Orson Welles-en *Munduen arteko Gerra* izan zen, 1938an iparramerikarrak izutu zituen.

Pedro Barea-ren *La Estirpe de Sautier* liburuan islatzen den moduan, Espainiako estatuari dagokionez, Gerra Zibilaren ondoko lehenengo serialak zinema eta eleberrien egokipenak ziren. 1952tik aurrera, egokitu beharrean, irratirako zuzenduriko lanak idatzi ziren, horrela irrati-serialak jaio zirelarik. Beste generoetan errealtate berriak sortzen saiatzen ziren bitartean, irrati-serial hauek, berriz, errejimen frankistaren baloreak bultzatzen eta azpimarratzen zituzten. Epeka ematen ziren eleberrien taxuerak bereganatu zituzten, eta edukiak behin eta berriro errepikatu zituzten: protagonistak umezurtzak, senarrik gabeko amak eta holakoak izaten ziren, eta beti salbatzen zituen sendagilea edo apaiza. Guztiek, bekatuak ordaindu eta gero, barkamena eta zoriona lortzen zuten, aurretik zoritzar asko sufritu ondoren.

Irratsaio dramatikoak ekintza bat azaltzen du, bertan parte hartzen duten pertsonaien bidez, eta egokiak diren giroan eta eszenatokian kokatzen dira.

Entretenezko saioak dira irratsaio dramatikoak, ezaugarri berezia dutenak: entzuleak arretaz entzun behar dituzte, gertatzen denaz jabetzeko. Gaur egun, irrati laguntzen gaituen komunikabide bihurtu da eta, beraz, oso leku txikia dute saio hauek gure irrati-parriletan; hala eta guztiz ere, zenbait magazin edo irratsaiotan esketxak eta dramatizazio txikiak antzezten dira. Publizitate-taketen inguruan ere, saio dramatikoetatik hartutako zenbait elementu aurkitu ahal ditugu.

Irratsaio dramatikoaren motak:

Sailkapen bat egiteko orduan, honako irratsaio-mota hauek bereiz daitezke saio dramatikoaren artean:

a) Taxuerari dagokionez:

- Irrati-antzeria: irratorako idatzitako antzezlan da.
- Irrati-nobela: irratorako idatzitako eleberria da; normalean atalka eskaintzen da.
- Irrati-serialak: irrati-nobelak baino luzeagoak, sugetzar edo “kulebroi” modukoak. Hasieran, oso istorio dramatikoak azaltzen ziren; ondoren, umorezko serialak izan ziren emandegi batzuetan; ezagunena, zalantzarik gabe “*La saga de los porretas*” izan zen. Euskadi Irratiko *Goizean behin* magazinaren barruan ere, atalka banaturiko saio dramatikoak eskaini ohi dira.
- Egokitzapen edo moldaketak: zenbait antzezlan edo nobela egokitzen dira irratan emititzeko.
- Dokudramak: gertaera erreal baten antzekizunak dira. Informazio- eta fikzio-generoen artean kokaturiko irratsaioak dira. Gertaera bi moduz azal daiteke: narrazio-estiloa erabiliz edota pasadizo batzuk antzetzuz, azalpenaren bizipena azpimarratzeko xedez.
- Esketxak: normalean, umorezkoak izaten dira eta bertan fikziozko zein benetako bizitzako pasadizo bat antzetzten da. Magazinetan, esketx horiek askotan egunkariko komikiak izaten duen funtzio editorializatzailea izaten dute. Besteetan, berriz, hizlariaren kontrapuntua izaten dira, edo hizlariak ordezkatzeko duen gizarte-taldearen ahotsa bere egiten dute.

b) Emanaldi-denborari dagokionez:

- Antzezlan bakarra: autonomia propioa du, egun berean hasi eta amaitzen da, unitate bakarra sortuz.
- Serieduna: ekintza atalez atal garatzen da. Atal bakoitzean ekintza edo istorio berriak sartzen dira eta gidoi-egileek hurrengo atalean gertatuko denaren zain uzten dute entzulea, suspentsea sortzeko asmoz.

Manuel Espin-en ustez, saio dramatiko hauek arau finkoak dituzte (BAREA: 1994):

- Istorioa eta gertaerak aurrera jotzeko orduan, bi elementuk garrantzi handia dute: narratzaileak eta antzezleak.
- Narratzailearen ahotsak deskriptibo eta iradokigarria behar du izan. Oso garrantzi handia du, efektu bereziekin batera giro berezia sortzeko beharrezkoa baita.
- Antzezleen ahotsak, horien nortasuna adierazteaz gain, elementu garrantzitsuak dira ikusi ezin den ekintza imajinatzen. Ahots erakargarriak pertsonaia “onekin” lotzen diren bitartean, gaiztoek ahots “itxusia” izan ohi dute.

- Entzule eta pertsonaien arteko lotura edo hurbiltasun sentimentala oso garrantzitsua da, entzuleak pertsonaiaren bizipenak bizi behar baititu, bera-ekin sufritu eta alaitu...

Irratsaio dramatikoetako gidoia

Historia osoa idatzita dago. Beraz, gidoi literario batean oinarritzen da gidoi teknikoa. Era berean, azalpen teknikoez gain, bazterrean pertsonaien portaerak eta nortasun-zehaztapenak ere azaltzen dira.

Adibidez,

(AIMAR, AITZOL, KARMELE ETA NEKANE IKASTOLAKO PATIOAN DAUDE, 14-15 URTEKO NESKA-MUTILAK DIRA. BERAZ, MUTILEN AHOTSAK ORAINDIK EZ DIRA OSO GRABEAK)

KONTROLA: PATIOKO ZARATEN EFEKTUA

AIMAR: (URDURI DAGO, ARNASA HARTZEN DAGOELA NABARITZEN ZAIO, KORRIKA ETORRI DEN SEINALE) Gure lagun Mikel, bere arreba eta aita desagertu egin dira.

NEKANE: Egia al da hori?

KARMELE: (OIHUKA) Bai, ikusi egunkaria. Egunkariak albistea dakar.

AITZOL: (AHOTS SENDOAZ IRAKURRIZ) Ormazabaldar familia desagertu egin zen atzo gauean...

Pertsonaia bakoitza ondo deskribatu behar da aurretik. Baina ahotsa adierazten den ezaugarri bakarra izanda, batzuetan narratzaileak pertsonaien itxura azaldu behar du. Besteetan, elkarriketetan azaltzen dira ikusten ez diren ezaugarriak.

A. Narratzaileak azaltzen ditu ezaugarriak.

NARRATZAILEA: Goizean goiz, Aimar, Aitzol eta Nekane mendirantz abiatu dira beren lagunaren bila. Aimarren ile beltzean dutxaren hezetasuna geratzen den bitartean, Aitzol eta Nekaneren adats kizkur horiak haizeak astintzen ditu.

AIMAR: Gurasoei mendira goazela esan behar zaie, ez kezkatzeko.

AITZOL (IRRIBARREZ): Bai, neureari denda uzteko eta guzti eskatu diot.

B. Elkarrizketan zehar zenbait ezaugarri adierazten dira.

AITZOL: Ez al duzu zure ilea lehortu Aimar? Beltz-beltza ikusten da horrela bustita.

AIMAR: Gustatuko litzaidake zuek biok duzuen adats hori eta kizkurra izatea, baina...

KARMELE: Bai... Ni lisatzen saiatu arren, beti kizkurtzen zait dutxatu ondoren sikatzen ez badut. Zer zortea zurea, Aimar...

- Irratsaio dramatikoetan elkarrizketak oso garrantzia handia du, historia aurrera eramateko orduan, eta baita lekuak eta pertsonaiak deskribatzeko orduan (BAREA eta MONTALVILLO: 1992, 84. or.):
 - a) Historia aurrera darama.
 - b) Entzuleari datuak eta ikusi ezin dituen gertaerak azaltzen dizkio.
 - c) Pertsonaien ezaugarriak agerian uzten ditu (itxura eta portaera, edo nortasun-ezaugarriak).
 - d) Pertsonaien arteko harremanak ezartzen ditu.
 - e) Pertsonaiak errealak, naturalak eta sinesgarriak izan daitezela laguntzen du.
 - f) Pertsonaien eta historiaren arteko gatazka agerian uzten du.
 - g) Egintzak argitzen ditu.
- Soinu-efektuek eta musikak ere garrantzia handia dute, batez ere giroa edo eszenatokia sortzeko orduan. Egoera bakoitzari dagozkion soinuak jartzeak sinesgarritasuna ematen dio antzezten ari den istorioari; eta, era berean, kontakizuna aurrera eramateko orduan laguntzen du. Musikak bigarren funtzio bat ere izaten du: suspentsea, ikara, umorea... edota beste sentazio bat sortzea. Oso elementu garrantzitsua da.

Egokitzapenak edo moldaketak

Literatura-lanak irakurriak izateko idazten diren moduan, antzerki-lanak publikoaren aurrean antzezteko sortzen dituzte idazleek. Beraz, lehenengo kasuan, egileak narrazioan bertan azaltzen ditu pertsonaien ezaugarriak eta deskribapenak, eta irakurleak elementu horiekin irudi mentala egiten du.

Antzerkian, berriz, eszenatokia, pertsonaien itxurak eta ikus daitezkeen beste zenbait elementu ere izaten dira, eta horiek guztiak obra edo istorioa ulertzeko laguntzen dute.

Elementu horiek guztiak agertu behar dira, halaber, entzumenezko irratirako egokituriko lanetan. Zaila da, beraz, ikusi ahal duguna soinuen bidez adieraztea. Txorien abestiek udaberria heldu dela agerian uzten badute ere, nola berezi irratian oso egun argian gauden edo zerua lainoturik dagoen; nola azaldu pertsonaia batek duen keinu berezia...

Horrelako datu batzuk narratzailearen ahoan jartzen dira, baina ez gehiegi, azalpena astunegi ez bihurtzeko. Beraz, soinu-efektuen bidez edo elkarrizketan, agerian utziko dira azaldu ahal diren datu edo ezaugarriak —esaterako, kalean gaudela adierazteko, trafikoaren soinuak ager daitezke; pertsonaiek azal dezakete egun argia den ala ez; ...—.

Istorio edo azalpenean narrazio-jarraikitasuna ezarri behar da. Era berean, ekintza aurrera eramateko laguntzen ez duten elementu edo esaldiak kenduko dira. Testu literarioak irratirako idatzita ez daudenean, irradi-hizkuntzara moldatu behar ko dira, ulergarriak suertatzeko, baina jatorrizko lanaren zentzua galdu gabe. Informazio berririk ematen ez duen edo egintzan adierazten dena errepikatzen duen narratzailea kentzea komenigarria izaten da; eta, ahal den neurrian, elkarrizketak edo soinuak berak egoera azal dezan utzi behar da.

Errealizatzaile edo zuzendariak beharrezkoak diren akotazio edo ohar guztiak azalduko ditu bazterrean, antzezleek agertu behar duten portaera eta beren pertsonaien erreakzioak ezagut ditzaten. Era berean, soinu-efektuak eta une bakoitzari dagokion musika ere azaldu beharko du errealizatzaileak testuaren gainean.

Horretarako oso garrantzitsuak dira:

- a) Eszenografia: ekintza gertatzen deneko lekua eta unea kokatzen ditu. Irratian soinu-planoen bidez lortzen da hori.
- b) Narrazioa: egoera azaltzen du, hots, zer gertatzen ari den. Halaber, gertatutakoa gogorarazten du eta, batzuetan, etorkizuna aurreratzen du.
- c) Elkarrizketa: pertsonaiek istorioan duten papera ezartzen du; eta gertatzen denarekiko erlazioa ere bai. Era berean, pertsonaien arteko gatazkak eta harremanak uzten ditu agerian.

4.4.4. Gidoirik gabeko irratsaioak

Batzuetan, irratsaioetan inprobisatzerako momentuak izaten dira. Beste zenbait saiotan, aldiz, inprobisazioa nagusi izan daiteke hasiera-hasieratik. Irrati-hizlariak edo egileak ez daki zer gertatuko den airean jartzen denean. Hala ere, mikrofono aurrean jartzeko unean, zenbait baldintza edo premisa hartu behar dira kontuan:

a) Denboraren —iraupenaren— kontrola: elkarrizketetan, dei telefonikoetan...

b) Nondik-nora joan nahi den ezartzea:

- ibilbide bat egin;
- giltzarriak diren hitz edo esaldiak azpimarratu;
- helburua —lortu nahi den informazioa, datuak...— ondo zehaztu.

c) Esandakoa behin eta berriz jaso eta laburtu, entzuleak hizlaria zertaz ari den jakin dezan; beraz, hizlariak oso arreta handiz jarraitu behar du gertatzen dena eta bertan esaten ari den guztia.

d) Inprobisazioa bai, baina beti jakin behar da zer esan nahi den une bakoitzean; horretarako ezinbestekoa izaten da pertsonaia edo gaiei buruz ahal den dokumentazio gehien jasotzea.

Elkarrizketa

Elkarrizketa-mota ezberdinak bereizi ahal dira, gai nagusiaren arabera:

- Pertsonaiari buruzko elkarrizketa: garrantzitsuena pertsonaia bera da.
- Eduki edo gaiari buruzko elkarrizketa: aditu batek gai garrantzitsu bati buruz erantzuten duenean; interesgarriena gaia da eta ez elkarrizketatua bera.
- Deklarazio edo azalpenak: zenbait gairen inguruan protagonista, lekuko, jakintsu edo bozeramaleen azalpen edo adierazpenak bilatzen dira.
- Inkesta: gai bati buruz jende askori galdetzen zaionean, inkesta dugu. Ez da zundaketarekin nahastu behar; inkestak ez ditu datu zientifiko edo definitiboak eskaintzen; zundaketak, aldiz, oinarri zientifikoaren arabera egiten dira, eta ondorioak ezartzeko balio dute.

• Zuzeneko elkarrizketak (gidoirik gabe)

Zuzeneko elkarrizketetan, ezin da aurretik jakin zein izango diren erantzunak, eta batzuetan, galdera batzuk planteatu arren, elkarrizketatuak beste gai interesgarriago batez hitz egin dezake, edo datu berriak eman ahal ditu. Beraz, oso prestatua

eraman ez arren eta ustekabeko elementuak agertu arren, aholku batzuk kontuan hartu behar dira:

a) Pertsonaiaren edo gaiaren inguruan ahal den dokumentazio gehien bildu behar da. Ezin da ezagutzen ez denari buruz galdera onik egin; batzuetan kazetariak irakurri ez duten lan edo liburu bati buruz galdetzen dute, beren ezagutza-falta nabarmenduz: galdera orokorregiak, interes gabekoak edota askotan erantzun direnak egiten dira.

Beraz, dokumentazioak balio handia izango du pertsonaien aurkezpena egiteko orduan eta taxuzko galderak planteatzerakoan.

b) Galdera garrantzitsuenak idatzi egin behar dira, hitz egiten ari den bitartean ez ahazteko.

c) Lortu nahi den helburua azpimarratu behar da: elkarrizketatuak zein galderari erantzutea nahi den jakin behar da argi eta garbi.

d) Elkarrizketan zehar, elkarrizketatuak azaldukoak jaso behar da. Material hau oso baliogarria izango da galdera berriak planteatzeko orduan eta baita esandakoaren laburpenak egiteko (entzuleak esaten ari denaren haria gal ez dezan).

- Grabaturiko elkarrizketak.

Muntaketa dagoenean, elkarrizketa entzun eta gero muntaketa-gidoia egin ohi da. Batzuetan ez da galdera-erantzunen ordena kronologikoa gordetzen; hots, ordena berria ezartzen da. Dena dela, horrek ez du esan nahi adierazpenen zentzua aldatu ahal denik.

Elkarrizketaren gidoia egiteko orduan, honako ekintza hauek hartuko ditugu kontuan:

- Azalpenen ordena erabaki.
- Adierazpen luzeegiak emandako iraupenari egokitu.
- Batzuetan, galderak birplantea daitezke erantzunen arabera.
- Bestetan, elkarrizketan zehar zenbait material tartekatu behar dira —dis-koak, adierazpenak, oroitzapenak, etab...—. Komenigarria izaten da agertuko den ordena zehaztuko duen pauta bat egitea; hori bai, ordenaren aldatketak teknikariari ohartaraziko zaizkio, hasi baino lehenago.

Mahai-inguruak

Moderatzaileak dokumentazioa izan beharko du eskuetan, mahai-ingurua

ondo bideratzeko. Honez gain, gidoi baten gainean aritu ez arren, honako hau hartu beharko du kontuan, mikrofonoan jarri baino lehenago.

- Parتهartzaileen izenak (izen-abizen zuzenak; askotan inisialak baino ez dira idazten eta nahasketak suertatzen dira), karguak eta hor egoteko merituak. Beste batzuetan, horien lanak ere ezagutu beharko dituzte. Material hau oso garrantzitsua izaten da aurkezpenak egiteko.
- Galdera eta gai garrantzitsuenak idatzita eramango ditu moderatzaileak; batzuetan, hitz eta giltzarri nagusiak azpimarratuko ditu.
- Eztabaidan zehar txandak apuntatzeaz gain, debatea bizirik mantentzen saiatu behar du moderatzaileak:
 - Erritmoa moteltzen denean berpiztuz: galdera berriak eginez, hitz egin ez duen gonbidatuari galdera zuzenduz...
 - Parte hartzen ez duten gonbidatuak integratuz eta hitza emanez: galdera zuzenak eginez edo pertsonaiaren lana gorai patuz.
 - Helburua azpimarratuz: nora heldu nahi den kontuan hartu behar da.
- Horrez gain, noizbehinka esandakoaren laburpena egin behar da, entzulea eztabaidaren harian kokatuz. Amaieran beti egingo da esandakoaren eta iritzien laburpen osoa.

Esan dugunez, dokumentazio-lana oso garrantzitsua izaten da mahai-ingurua ondo bideratu ahal izateko. Moderatzaileak berak edo berarentzako lan egiten duen taldeak egin behar du lan hori; bertan honako informazio hauek bilduko dira:

- Gaurkotasunean dauden gai garrantzitsuenak.
- Aztertuko den gaiaren inguruan azken egunetan argitaraturiko materiala (prentsa-dosierak egin, beste irrati edo telebistetan esandakoa entzun...).
- Gonbidatuen iritziak eta jarrerak ezagutu.
- Anekdotarioa prestatu (gaiaren edo gonbidatuen inguruan).

Tertuliak

Mahai-inguruetako gonbidatuak gaiaren arabera aukeratzen diren bitartean, tertulietan parte hartzen duten hizlariak emandegiko kolaboratzaile finkoak izan ohi dira, denetariko gaiei buruz ari direnak —batzuetan gehiegi jakin ez arren—. Horren helburua editorializatzea izaten da, baina ez gertaeren azalpenaren bidez, emozioetan eragiten duten argudioen bitartez baizik. Tertulietan gaiak arinago tratatzeaz gain, inprobisazioa ere askoz handiagoa izaten da, Gotzon Toral-ek “*Tertulias, Mentideros y Programas de Radio*” liburuan azaldu duen legez.

Entzuleen partehartzea

Irratsaio batzuetan entzuleei parte hartzeko aukera ematen zaie. Entzuleek parte hartzeko modurik errazena, dei telefonikoak izaten dira.

Dei hauek aleatorioak badira ere, iraupena neurtu beharko da, batzuek gehiegi hitz egin ez dezaten edota beste dei batzuk kanpoan gelditu ez daitezten. Hori izaten da moderatzaile-hizlariaren lana. Komenigarria izaten da arauak —iraupenak, baldintzak...— aurretik azaltzea, ondoren gaizki-ulertzeak egon ez daitezten, hau da, inor baztertuta senti ez dadin.

Talk-show izeneko irratsaioetan, hizlariak gidatuta, kaleko pertsona anoni-moek beren esperientzia pertsonal eta intimoak azaltzen dituzte lehenengo pertso-nan. Azalpenaren indarra protagonistaren ahotsean oinarritzen da batez ere; horren bidez, honek bere sentimenduak adierazten ditu, bere pasioak edota sufrimenduak... Entzuleak berarekin bat egiten du, bere esperientziakin konparazio zuzena eginez, eta bizipen horiek bereganatuz.

4.4.5. Publizitate-taxuerak

Entzuleriaren ohiturei egokitzeko beharrak denbora-tarteen menpean jarri du irrati-programazioa. Entzuleriak ezartzen du noiz emititu behar den irratsaio zehatz bat, edota zein motatako publizitatea den entzuleriaren gustu eta estiloei ondoen egokitzen zaiena.

Irrati-publizitatea programazioaren barruan sartzen da, hots, programazioaren barnean integratzen da.

Emandegi batzuetan tarte komertzialak batera ematen dira sailkatuta —egun-karietako “iragarki sailkatuak” bezala—, baina normalena iragarkiak programa-zioan zehar emititzea da.

- Honako hauek ditugu gehien erabiltzen diren irrati-iragarkiak aurkezteko erak edo taxuerak:

Taketa

Emanaldi edo irratsaioan zehar tartekaturiko iragarki isolatuak ditugu taketak. Grabaturiko produktu banakakoak izaten dira eta bertan hitza, musika eta efektuak konbinatzen dira. Neurri-unitatea segundoa da. Ohiko ziri-motak honakoak ditugu, iraupenaren arabera: 15”, 20” (gehienak), 30”, 45” eta 60”. Tarte labur horretan istorio osoa azaldu behar da: produktuaren deskribapen osoa, bizitza-tartetxo txikia, etab.

Edukiaren aldetik, honako taket-mota hauek sailka ditzakegu:

1. Bizitza errealaren pasadizo baten dramatizazioa. Irratian gaur egun oso gutxitan erabilitako generoa erabiltzen du: dramatikoa, alegia.
2. Deialdia. Entzulea egintza komertzial batean parte hartzera deitzen duten mezuen bilduma da. Horren sorrera erreklamoan bilatu behar da, eta bere lengoia eskaintza bereziei, promozioei eta konpetentziarik gabeko salneurriei dagokie. Mota honetako iragarki gehienak soinu-adierazleen tartean kokatzen dira.
3. Testigantza. Iragarleek hitza kontsumitzailei ematen diete, hauek produktuei buruz hitz egin dezaten. Lekukoan adierazpenak errealak zein asmatutakoak izan daitezke.
4. Azalpena edo argumentazioa. Produktuaren deskribapenaren logikari erantzuten dioten mezuak dira; arazo bati erantzun teknikoa ematen saiatzen dira, eta errealitateari egokituriko irtenbidea eskaintzen dute. Garrantzitsuenak produktuaren ezaugarriak dira.
5. Deskribapena. Produktuaren itxura, osatzen duten elementuak edota zatiak objetiboki aurkezten dituzten mezuak dira. Irrati-hizkuntzaren bidez beste komunikabideek —telebistak, kartelek, prentsak...—irudien bitartez erakusten dutena deskribatu behar da.
6. Umorea. Publizitate-komunikazio honek mezua atsegin bihurtzen du. Irargarriek eskaintzen dituzten sentsazio optimistek eta positiboek markatzen dituzte produktuak.
7. Gogoratzea, ebokazioa. Agindu baino gehiago, iragarleak liluratu egin nahi du; entzuleari argudioak eskaintzen baino gehiago, entzulea irudi baten partaide bihurtzen saiatzen da. Soinuaren ahalmenarekin itxurazko mundu osoa eraikitzen saiatzen da.
8. *Jingle*. Lehenengo iragarkiak abestuak ziren. Musikari eta abeslari ospetsuek beren musika eta ahotsa publizitatearen zerbitzuan jartzen zituzten eta garai hartako abesti batzuk oso ezagunak izan ziren. Gaur egun, musika oso beharrezko elementua da irrati-taketetan, baina gehienetan lagungarri modura; hala ere, oraindik taket abestuak egiten dira, mezua musikan bertan dagoelarik.

Produktore gehienek liburutegiko musika deitutakoa erabiltzen dute, merkeagoa eta eskuratzeko errazagoa baita. Erabilpen honek arrisku bat du: beste iragarle batek musika edo abesti bera erabil dezake bere publizitatean.

9. Irrati-esketxa. Irrati-nobelaren itxura duen elkarrizketa edo dramatizazioaren imitazioa da.
10. Telesaioen imitazioa. Taket batzuetan telesaio ezagunak imitatzen dira, lehiaketak batez ere. Honek entzuleak ezagut eta gogora dezan lortzen du, telebistan ikusitako zerbaitekin erlazionatzen baitu.
11. Hizlarien arteko elkarrizketa. Bi hizlarik produktu edo zerbitzu bati buruz hitz egiten dute, haien abantailak eta etekinak azalduz.
12. Itxurazko albiste. Taketak albiste itxura du. Batzuetan albistegietako bola-da edo sintonia erabiltzen da, entzulearen aditasuna erakarriz. Berria, produktu berriaren aurkezpena, promozioa edo horrelako zerbait dugu.
13. *Spot* baten audioa. Publizitate-egile askorentzat telebistako *spot* baten audio erabiltzeak arrakasta ziurtatzen du, entzuleak aditzen duena telebistan ikusitako irudiarekin erlazionatzen du eta. *Spota* irrati-hizkuntzari egokitzea komenigarria da.
14. Kale-inkesta. Inkestaren itxuraz, produktuaren aldeko iritziak, horren beharra edo onurak azaltzen dituzten pertsonen erantzunak biltzen dira. Bestetan, hurrengo iragarkietan konponbidea —produktu konkretu baten bidez— emango zaion arazoa edo kezka planteatzen da.
15. Zinemaren audioa. Iragarle batzuek ospetsuak diren filmen soinu-bandak egokitzen dituzte, entzuleak azkar identifikatzeko modukoak.

Komunikatua

Erakunde edo elkarte publikoak igorritako testu publizitarioa da. Merkataritza-gida osatzen duen testu bakoitzari ere komunikatua deritzo.

Normalean, testua bezeroak igortzen du, eta irrati emandegiko pertsonalak irakurtzen du.

Neurri-unitatea hitza da. Komunikatuaren emisioa ziurtatu nahi bada, ordaindu egin behar da, baina eskuarki dohainik izaten dira eta talde, elkarte edo erakunde batek igorritako informazioaren tratamendua ematen zaie.

Komunikatuaren helburua iragartzen duen erakundearen aldeko informazioa ematea izaten da, komunikabideetan eta publikoarengan eragiteko asmoz. Era berean, erakundeek beren jarrera azaldu edo zerbait berri ezagutzera emateko erabiltzen dituzte komunikatuak.

Komunikatuak zerbait berri esan behar du eta komunikabideek interesgarri jo behar dute, emititzea erabaki dezaten.

Iragarki-mota hau beste publizitate-era askorekin konbinatzen da kanpainetan.

Merkataritza-gida

Irratsaio batean edo egun osoko programazioan zehar banatzen diren taketen edo testuen bilduma da merkataritza-gida. Bertan, zuzenean eman behar diren edukiak eta grabaturik daudenak azaltzen dira.

Merkataritza-gidan eskaintza komun baten barruan bilduriko zerbitzuen zerrenda sartzen da; adibidez “gida medikoa”, “merkataritza-gida”, “gida gastronomikoa” e.a...

Publizitate-bolada

Publizitate-bolada emandegiko langileek zuzenean aipaturiko esloganen edo marken emisioa dugu. Asko erabiltzen da zuzeneko kirol-saioetan, baita zuzenean eskaintzen diren gertaeren azalpenean ere.

Neurri-unitatea intseztzioa da —programazioan sartzen duten emanaldi-kopurua—.

Pitx izenekoa

Entzulea eroatera bultzatzen duen elkarrizketa da, zuzenean eginda zein aurretik grabatuta.

15 eta 30 minutu bitarteko iraupena du, eta gehienetan postaz edo telefonoz saldutako produktu merkeei dagokie.

Psas izenekoa

Emandegiak edo kateak ordaindutako saioak dira. Zerbitzu publiko izateagatik zergarik ordaindu behar ez duten erakundeei mugatzen diete irratiek.

- Publizitate-era hauek banaka zein kanpaina baten barruan erabil daitezke. Egintza publizitarioaren iraupenaren arabera, honako bereizketa hau egin daiteke:

— Noizbehinkako publizitatea: askotan emititzen diren iragarki isolatuak, taxuera, emisio-ordu edo irratsaioen planifikaziotik kanpo.

- Kanpaina: denboraldi jakin batean zehar planifikaturiko mezu publizitarioak dira.
- Aurkezpenari dagokionez, irratiko iragarkiak honelako motetakoak izan daitezke:
 - Azalgarriak: Komunikatu eta ikuskizun-karteldegien kasua, eta, oro har, era linealean idatziriko iragarkiak. Datuak edo ekintzak azaltzen dira horrelakoetan.
 - Eragin- edo inpaktu-iragarkiak. Erne jartzen dituzte entzuleak, haiekiko arreta osoa erakarrit. Hori da haien helburua eta horretarako ahots-enfasi, interjekzio, hitz-joko edo soinu eranskorrez baliatzen dira.
 - Suspentsedunak. Inkognita edo galdera baten bidez jakin-mina eragiten dute. Gero beste iragarki batek erantzuna edo irtenbidea emango digu.
- Agerpen-erari dagokionez, irrati-publizitatea honelakoa izan daiteke:
 - Zuzena: Produktuaren erreklamoa, marka edo zerbitzua mezuan bertan dago eta irrati-programazioaren edukietatik bereizten da.
 - Zeharkakoa (ez-zuzena). Bi era daude: ohikoa, babesturiko irratsaiioetan agertzen dena, eta publi-erreportajeena, ez hain erabilia. Azken honetan entzuleak publizitate-erreportajea dela jakin dezan —informazioa eta publizitatea bereizteko—, hondo musikalak, sintoniak edota audio-baliabi-deak erabil-tzen dira.
 - Ostendua (ezkutua): Publizitate-informazioa kultura edo saio entretenigarriaz maskaritzen dena. Publizitate-mota hau debekaturik egon arren, asko erabiltzen da. (Irrati gehienetan)
 - Subliminala: Irratian egintza subliminala jasogaitzak diren soinuetatik etor liteke, musikaldi edo elkarrizketa baten bigarren planoan agertzen diren soinuetatik hain zuzen ere, azpikontzientean eragiten duten soinuen bidez.

Iragarki bat gogora dadin sarritan errepikatu behar bada ere, entzulea ez nekatzeko, komenigarria izaten da taketaren edukia aldatzea. Iragarki ezberdinak egin ahal dira. Ogilvy publizitate-sortzaile ezagunaren ustez, honako aholku hauek hartu behar dira kontuan iragarki on bat egiteko orduan:

1. Ez luzatu aurkezpenetan: datu gutxi eta interesgarriak eman. Irratian, denbora mugatuta dago, eta azkar ulertu behar denez, ez da iragarki luzeegirik egin behar. Hala ere, produktuaren ezaugarriak eta hauen erabilgarritasuna azaldu behar dira.
2. Irudien proiektzioa: Ahal denean, irrati-iragarkiak entzumen eta ikusmenera zuzendu behar dira.

3. Zeure burua imajinatu. Iragarkiko ahotsak norberari hitz egiten dio, egoera konkretu batean bakoitzak bere burua imajina dezan. Ogilvy-ren aburuz, ez dugu egin behar gure familiak entzutea nahi ez genukeen iragarkirik.
4. Ez esan gezurrik produktu bati buruz, entzuleak kontura daitezke eta. Produktuaren ontasunaz sinesten ez badugu, ez dugu iragarri behar.
5. Bihotzera zuzendu. Ezinezkoa da 30 edo 15 segundotan hausnarketa eragitea. Iragarkia gogora dezagun, emoziozko erantzuna eragin behar du.
6. Ohiko hizkuntza erabili, guztiek uler dezaten.
7. Umorea, bi aldeetako arma. Askotan, umorea oso baliabide egokia da. Dena den, umorezko iragarkiak ez dira egiteko errazak, “arruntegiak” gerta daitezke eta.

Gehigarria:

gidoi batzuen adibide praktikoak

I. AURRETIKO PAUTA

9.03: SINTONIA

9.03: Agurra eta aurkezpena

9.04: Mikel Markez-ekiko elkarrizketa: MIKEL MARKEZ-EN ZINTA

9.12: Musikari buruzko kronika eta diskoaren aurkezpena

9.12: DISKOA (BROTHERS IN ARMS DIRE STRAITS)

9.15: Albiste bitxiak: (3 albiste)

9.16: Negu Gorriak taldeari buruzko erreportajea: NEGU GORRIAK TALDEAREN ZINTA

9.20: Inkesta: INKESTAREN ZINTA

9.24: EMANDEGIKO ADIERAZLEA

9.25: Agurra

9.26: IRTEERA-KARETA

9.27: PUBLIZITATEA

9.30: ORDUERDIROKO ALBISTE-LABURPENA

II. ESKALETA OSOA

9.03.00: KONTROLA: SINTONIA L.P. 15" ETA LAGUNTZEN, TESTUA-REKIN AMAITZEKO

9.03. 15: 1. HIZL.: Agurra eta aurkezpena (1')

9.04.15: KONTROLA: 1. ZINTA (MIKEL MARKEZ-EN ADIERAZPENEN LABURPENA) (2' 23") ETA AMAITU

9.06.48: 1. HIZL. ETA 2. HIZL.: Mikel Markez-ekiko elkarrizketa (4')

9.10.48: KONTROLA: BOLADA (5")

9.10.53: 2. HIZL.: Musikari buruzko kronika eta diskoaren aurkezpena (30")

9.11.23: KONTROLA: DISKOA 1/525 A ALDEA, BROTHERS IN ARMS DIRE STRAITS L.P. ETA BUKATU (3' 22")

9.14.45: 1. HIZL.: Albiste bitxiak (1')

9.15.45: 2. HIZL.: Negu Gorriak taldeari buruzko erreportajearen aurkezpena. (20")

9.16.05: KONTROLA: 2. ZINTA (Negu Gorriak... Kortatu-ren heriotzaz) (4')

9.20.05: 2. HIZL.: Erreportajeari buruzko komentarioa. (15")

9.20.20: KONTROLA: BOLADA (5")

9.20.25: 1. HIZL.: Inkestaren aurkezpena. (15')

9.20.40: KONTROLA: 3. ZINTA (Nik uste dut... erratuta dagoelakoan gaude) (4')

9.24.40: KONTROLA: EMANDEGIKO ADIERAZLEA (30")

9.25.10: 1. HIZL. eta 2. HIZL.: Agurra (45")

9.25.55: KONTROLA: IRTEERA-KARETA LP (1'), ETA AMAITU

9.26.55: KONTROLA: PUBLIZITATEA (3' 5")

9.30.00: KONTROLA; ORDUERDIROKO ALBISTE-LABURPENA

III. GIDOI LITERARIOA

SARRERA-KARETA (45")

1. HIZL.: Egun on. Berriro ere zuekin gaituzue. Goizeko bederatziak dira eta eguraldiak hobera egin du. Beraz, goiz argia eta alai dugu maiatzeko egun zoragarri honetan. Beti bezala, irratsaioa ondo hasteko, kafe goxo-goxo bat hartuko dugu, oso konpainia onean.

2. HIZL.: Gaur, Amaia Etxebeste dugu gurekin. Amaia umeen begiralea da eta uda honetan zerbait berezi egingo du, baina hori berak kontatzea nahi dugu. Lehenik, Aitziberrek esan duenez, kafea dastatuko dugu. Amaiari beltz-beltza gustatzen zaio, azukrerik gabe. Ummm... Bitartean, Benito Lertxundi-ren azken lana entzungo dugu.

MUSIKA

1. HIZL.: Aitorrek esan duenez, gurekin dagoen Amaia Balerdi-k misio berezia beteko du uda honetan. Bera begiralea izanda, umeentzako aisialdia antolatzen du eta aurten hemengo haurrek aukera asko dutela pentsatu du eta, beraz, urrutira joango da: Peruko Juliaca herrialdera hain zuzen. Hortaz hitz egingo dugu berarekin hurrengo minutuetan.

1. HIZL. ETA 2. HIZL. ETA GONBIDATUA: (Elkarrizketa. Galdera batzuk: zergatik aukeratu Peru? Zer egingo du konkretuki Juliaca-n? Aurretik ezagutzen ote zuen lekua? Nola antolatu duen udalekua eta noren laguntza edo babesa duen. Zenbat denboraz egongo den eta zein ekitaldi antolatuko duen... Ea beste antzeko iniziatibak ezagutzen dituen...)

MUSIKA

2. HIZL.: Amaia agurtu eta gero, gure hiriburuetan izango diren ekitaldi kulturalen berri izango dugu, gure korrespontsalen eskutik.

3. HIZL.: Donostiako kronika.

4. HIZL.: Iruñeko kronika

(...)

IV. GIDOI TEKNIKOA

KONTROLA: SARRERA-KARETA LP (45") ETA AMAITU

1. HIZL.: Egun on. Berriro ere zuekin gaituzue. Goizeko bederatzia dira eta eguraldiak hobera egin du. Beraz, goiz argia eta alaia dugu maiatzeko egun zoragarri honetan. Beti bezala, irratsaioa ondo hasteko, kafe goxo-goxo bat hartuko dugu, oso konpainia onean.

2. HIZL.: Gaur, Amaia Etxebeste dugu gurekin. Amaia umeen begiralea da eta uda honetan zerbait berezi egingo du; baina hori berak kontatzea nahi dugu. Lehenik, Aitziberrek esan duenez, kafea dastatuko dugu. Amaiori beltz-beltza gustatzen zaio, azukrerik gabea. Ummm... Bitartean, Benito Lertxundi-ren azken lana entzungo dugu.

KONTROLA: BENITO LERTXUNDI C.D. 623- 2. ABESTIA, LP (3' 25") ETA AMAITU

1. HIZL.: Aitorrek esan duenez, gurekin dagoen Amaia Balerdi-k misio berezia beteko du uda honetan. Begiralea izanda, umeentzako aisialdia antolatzen du eta aurten hemengo haurrek aukera asko dutela pentsatu du eta, beraz, urrutira joango da: Peruko Juliaca herrialdera hain zuzen. Horri buruz hitz egingo dugu berarekin hurrengo minutuetan.

1. HIZL. ETA 2. HIZL., ETA GONBIDATUA: Elkarriketa (15')

KONTROLA: BENITO LERTXUNDI C.D. 623- 4. ABESTIA, LP (4' 15") ETA AMAITU

HIZL.2.: Amaia agurtu eta gero, gure hiriburuetan izango diren ekitaldi kulturalen berri izango dugu, gure korresponentsalen eskutik.

KONTROLA: TELEFONO-KONEXIOA (DONOSTIA)

3. HIZL.: Donostiako kronika.

KONTROLA: TELEFONO-KONEXIOA (IRUÑEA)

4. HIZL.: Iruñeko kronika

...

V. GIDOI AMERIKARRA

KONTROLA: SARRERA-KARETA LP (30") ETA AMAITU

KONTROLA: DISKOA 1/331 – 2. ABESTIA: ABESLARI IRLANDARREN MUSIKA L.P. (15") ETA LAGUNTZEN

HIZLARIA: Jon Casenave-k Erdi Arora eramango gaitu, gizarte misteriotsu bateko sekretu eta jazoerak azaltzeko.

KONTROLA: DISKOA 1/331 – 2. ABESTIA: MUSIKA L.P. (20"), LAGUNTZEN ETA BUKATU TESTUAREKIN

JON: Gortean iragan denborako bertsoetarik ez zait anitz gelditu. Alde batetik nagusi batentzat ari bainintzen, bestalde orduko buruhauste eta olerki-gaiak, biziaren nekeen bidez, burutik joan zaizkidalakoan.

Oroitzapenak, aldiz, multzoka heltzen dira gogora.

KONTROLA: DISKOA 2/672 – A ALDEA, 1. ABESTIA BENITO LERTXUNDI-REN KANTA L.P. DISKOA 40" ETA LAGUNTZEN ETA BUKATU

JON: Jada gizon xahartuxea zen, gortean sartu nintzenean; gorputz luze eta indartsua halarik ere. Ileak kopetan eta sorbaldetan laxoan utziak, filosofoen bizar motza kokots eta masailetan. Bilkura eta batzarretan geldi-geldirik egon ohi zen bere kadiran, mintzo zenari errotik behatzen ziola; anitzetan nengoen zein zailak zitezkeen jarlekuan egoitze luze horiek, bere bizi guzian zaldian ixtaklok ibilia zen gizon horrentzat.

Denak ikaraturik atxikitzen gintuen eta denborarekin, bere jendaki eta zerbitzariarik arroztua zen.

KONTROLA: EFEKTU BEREZIAK: ZINTA 1, OIN-HOTSAK L.P. ETA LAGUNTZEN

JON:...

VI. GIDOI EUOPARRA

KONTROLA: SARRERA KARETA LP (30") ETA AMAITU

KONTROLA: DISKOA 1/331 – 2. ABESTIA: ABESLARI IRLANDARREN MUSIKALA L.P. (15") ETA LAGUNTZEN

HIZLARIA: Jon Casenave-k Erdi Arora eramango gaitu gizarte misteriotso bateko sekretu eta jazoerak azaltzeko.

KONTROLA: DISKOA 1/331 – 2. ABESTIA: MUSIKA L.P. (20"), LAGUNTZEN ETA BUKATU TESTUAREKIN

JON: Gortean iragan denborako bertsoetarik ez zait anitz gelditu. Alde batetik nagusi batentzat ari bainintzen, bestalde orduko buruhauste eta olerki-gaiak, biziaren nekeen bidez, burutik joan zaizkidalakoa. Oroitzapenak, aldiz, multzoka heltzen dira gogora.

KONTROLA: DISKOA 2/672 – A ALDEA, 1. ABESTIA BENITO LERTXUNDI-REN KANTA L.P. DISKOA 40" ETA LAGUNTZEN ETA BUKATU

JON: Jada gizon xahartuxea zen, gortean sartu nintzenez, gorputz luze eta indartsua halarik ere. Ileak kopetan eta sorbaldetan laxoan utziak, filosofoen bizar motza kokots eta masailetan. Bilkura eta bazarretan geldi-geldirik egon ohi zen bere kadiran, mintzo zenari erroitik behatzen zitziola; anitzetan nengoen zein zailak zitezkeen jarlekuan egoitze luze horiek, bere bizi guzian zaldian ixtaklok ibilia zen gizon horrentzat. Denak ikaraturik atxikitzen gintuen eta denborarekin, bere jendaki eta zerbitzarietatik arroztua zen.

VII. ALBISTEGIEN GIDOIA

a) Aurretiko pauta

KONTROLA: ORDU-SEINALEAK – ALBISTEGIAREN KARETA – SINTONIA LP ETA LAGUNTZEN

Editorearen aurkezpena. Lehenengo albistearen laburpena.

KONTROLA: TITULARREN SINTONIA

Titularrak (6 albiste nagusiak)

Lehenengo albistearen garapena: ZINTA

BOLADA

2. albistea: ZINTA

3. albistea: TELEFONO-KONEXIOA

4. albistea

BOLADA

5. albistea: ZINTA

6. albistea: ZINTA

7. albistea: KORRESPONTSALAREN KRONIKA

BOLADA

8. albistea

9. albistea: KORRESPONSALAREN KRONIKA

10. albistea

BOLADA

Agurra

TITULARREN SINTONIA

Albiste-laburpena

KIROLAK

Kirol-albisteak

EGURALDIA; GRABATURIKO AURRERAPENA

Agurra

IRTEERA-KARETA

b) Editorearen pauta

KONTROLA: ORDU-SEINALEAK – ALBISTEGIAREN KARETA – SINTONIA LP ETA LAGUNTZEN

EDITOREA: Arratsalde on, ordu biak dira; zuekin Leioa Irratiaren albisteak.

KONTROLA: SINTONIA LP ETA AMAITU

EDITOREA: Unibertsitateko tasen igoeraz hitz egin beharko dugu gaur ere. Horretaz mintzatuko gara Pello Salaburu errektorearekin. Eta ikasleen iritziak jasoko ditugu, gure lankide Nerea Urkijo-k eta Santi Ugarte-k *campus* ezberdinetan egin duten inkesta baten emaitzak azalduz.

Baina lehenago azken orduetan gertatu diren beste berriak ere laburki azalduko dizkizuegu titularretan.

KONTROLA: TITULARREN SINTONIA LP ETA LAGUNTZEN

1. HIZL. Lehenengo albistearen titularra

KONTROLA: TITULARREN SINTONIA LP ETA LAGUNTZEN

2. HIZL. Bigarren albistearen titularra

KONTROLA: TITULARREN SINTONIA LP ETA LAGUNTZEN

1, 2, 3, ... HIZL. Horrela titular nagusiak azaldu arte (Titularren bateria deritzo honi)

KONTROLA: TITULARREN SINTONIA LP ETA AMAITU

EDITOREA: Hasieran esan dugunez, unibertsitateko tasen igoera iragarri du gobernuko bozeramaleak. Hain zuzen ere, igoera hau ehuneko hogeikoa izango da (...) Horri buruz hitz egiteko, zuzenean dugu Pello Salaburu errektorea. Arratsalde on, ...

KONTROLA; TELEFONO-KONEXIOA (PELLO SALABURU).

EDITOREA: Ikasleek, berriz, ez dute begi onez ikusi iragarri berri den igoera hori. Nerea Urkijo-k eta Santi Ugarte-k Donostiako Ibaeta, Gasteiz eta Bilboko Sarrikoko *campusetan* egon dira, bertako ikasleen iritziak jasotzeko.

KONTROLA; NEREA URKIJO-REN KRONIKA

(Donostian, aldeko iritzirik ez dugu aurkitu...

... Nire ustez guztiz dohainik izan beharko zen eta).

EDITOREA: Hementxe dugu Santi, eta berak Gasteizen eta Bilbon ikasleek tasen igoera txarto hartu dutela jaso du egin duen inkestan. Ez al da horrela?

SANTI: (...) Baina entzun ditzagun azaldu diren arrazoiak:

KONTROLA; ZINTA: ADIERAZPENAK (...beraz, azkenean merkeago izango zaigu unibersitate pribatuan ikastea).

KONTROLA; BOLADA

EDITOREA: Unibertsitatetik Euskal Herriko errepideetara goaz, oso istripu larria izan baita; horren kronika, Amaia López-ek prestatu du.

AMAIA LOPEZ: Istripuaren kronika....

VIII. MAGAZIN BATEN PAUTA

Herriz Herri irratsaioaren pauta

1998ko ekainaren 6an, Urretxu herriari buruz

KONTROLA: SARRERA-KARETA

HIZL.: Aurkezpena

KONTROLA: ZIRKINPEZ (K. JUNKERA). C.D.-7: IBON KOTERON - KEPA JUNKERA. LP ETA LAGUNTZEN ETA AMAITU TESTUAREKIN

HIZL.: Argazkia: Urretxuko pasarte historikoak

KONTROLA: PUBLIZITATEA (Trantsizio-taketa)

KONTROLA: IÑAKI ETXEZARRETA-REN ADIERAZPENAK (IKASTOLA BATEKO ZUZENDARI OHIA, EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEKO ZUZENDARI) (5") LOTU 2. DISKOAREKIN (URRETXUKO SEMEALABEI. J.M. IPARRAGIRRE "ZURE OROIZ" L.P (2') ETA AMAITU

KONTROLA: PUBLIZITATEA (Trantsizio-taketa)

KONTROLA: BOLADA (IBIALDIA)

KONTROLA: ZINTA (J. R. OKARIZ. SANTA BARBARA ZONALDETIK BARRENA) (7')

KONTROLA: BOLADA (IBILALDIA)

HIZL. Gonbidatuen aurkezpena eta elkarrizketa: Gonbidatuak: Jon Zabaleta, *Merkataritza-Ganberako* kanpo-zerbitzuetako arduraduna (943..... TELEFONOAREN BIDEZ), Joxe Eulogio Berezibar, *Ugasako* zuzendaria; Mila de Pedro, *Bitartean merkataritza-ganberako* diruzaina; Jon Lejaristi, *Urretxu optikako* arduraduna eta Arantxa Eizagirre, *Artoro Decoración* merkataritza-etxekoa.

KONTROLA: MINI-DISKOA (RAMON ESNAOLA) (3'43")

KONTROLA: PUBLIZITATEA (Trantsizio-taketa)

KONTROLA: BOLADA (EKILAN)

HIZL.: Elkarrizketa. Gonbidatuak: Angel Rico, *Snap-on*-eko logistika-arduraduna eta Luis Mari Arrieta *Snap-on* enpresako komertziala. (8')

KONTROLA: BOLADA (EKILAN)

KONTROLA: PUBLIZITATEA (Trantsizio-taketa)

KONTROLA: BOLADA (HERRIA EZAGUTUZ)

KONTROLA; KONEXIO TELEFONIKOA - DEIA DAGOENEAN TELEFONO-HOTSAREN EFEKTUA

HIZL.: Lehiaketa (TELEFONOAREN bidez)

KONTROLA: BOLADA (HERRIA EZAGUTUZ)

KONTROLA: PUBLIZITATEA

KONTROLA: BOLADA (ZURE HERRIA EGUNEAN)

HIZL.: Elkarrizketa. Pello González, Urretxuko alkatea (12')

KONTROLA: BOLADA (ZURE HERRIA EGUNEAN)

KONTROLA: ZIRKIPINEZ (KEPA JUNKERA) CD-7 L.P. ETA LAGUNTZEN, TESTUAREKIN AMAITZEKO

HIZL.: - Agenda

- Zozketa

- Partaide guztiei agurra, eta irratsaioaren amaiera

KONTROLA: IRTEERA-KARETA

IX. IRRATSAIO DRAMATIKO BATEN GIDOIA**“Hiru Txerri” Txikiak ipuinaren egokipena irratirako**

KONTROLA: MUSIKA ALAIA LP (7") ETA LAGUNTZEN

NARRATZAILEA: Hiru txerri txikiak

KONTROLA: MUSIKA LP (4") ETA LAGUNTZEN

NARRATZ.: Behin batean, baziren hiru txerri txiki, baserri bateko txerri-korta batean bizi zirenak. Bakoitzak bere etxea izan nahi zuen, eta hirurek modu ezberdinetara eraiki nahi zuten.

KONTROLA: MUSIKA LP (3") ETA AMAITU. BASERRIKO HOTSAK LP (2") ETA LAGUNTZEN ELKARRIZKETAN ZEHAR, TESTUAREKIN AMAITZEKO (...neguan ere).

1. TXERRIA: (AHOTS ZORROTZA ETA FINA, URDURI ETA DARDAKA) Nik, nik, nik, lastozkoa egin nahi dut, oso egokia udako beroa gainditzeko.

2. TXERRIA: (AHOTS ZORROTZA ETA ALAIA, IRRIBARRETSU) Ba, nik egurrezkoa egingo dut, horrela udan hotza eta neguan beroago izango dut. Ikusiko duzue, egurra oso gai noblea da eta.

3. TXERRIA: (AHOTS GRABEAGOA ETA SEGURTASUNA ADIERAZTEN DUENA). Nik, berriz, adreiluzkoa egingo dut. Lan gehiago emango dit, baina sendoa izango da, aterpe ona bai udan eta baita neguan ere.

NARRATZ.: Hiru txerritxoak basoan barrena abiatu ziren. Txerri txikiak lasto pila zekarren gizon batekin topo egin zuen.

KONTROLA: GURDIA GELDITZEAN EGINDAKO HOTSIA (2")

1. TXERRIA: Aizu, zure lastoa salduko al zenidake?

GIZONA: (GIZON ZAHARRAREN AHOTSA) Bai, noski; nik ez dut ezertarako behar.

KONTROLA: LASTOAREN HOTSIA (2")

NARRATZ.: Poz-pozik joan zen lehenengo txerria, lastoa bizkarrean zeramala.

...

Bibliografía

- AGUILAR NACHER, Inmaculada (1992) “El silencio radiofónico”. *Comunicación y estudios universitarios, revista de Ciencias de la Información*. Universidad San Pablo, CEU. Valentzia.
- ARHEIM, Rudolf (1980). *Estética radiofónica*. GG. Mass Media. Bartzelona.
- ARRASATE, Manu (1990). *Euskarazko albistegiatarako esku-liburua*. EITB. Bilbo.
- BALSEBRE, A. (1994). *El lenguaje radiofónico*. Cátedra. Madril.
- BAREA, Pedro eta MONTALVILLO, Roberto (1992). *Radio: Redacción y guiones*. UPV-EHU. Bilbo.
- BAREA, Pedro (1994). *La estirpe de Sautier, la época dorada de la radionovela en España*. Román Gubern. El País-Aguilar. Madril.
- CEBRIAN HERREROS, Mariano (1981). *Diccionario de radio y televisión*. Alhambra. Madril.
- CEBRIAN HERREROS, M. (1994) *Información Radiofónica. Mediación Técnica, Tratamiento y Programación*. Síntesis. Madril.
- FAUS BELAN, Angel (1981). *La Radio. Introducción a un medio desconocido*. Latina Universitaria. Madril.
- HARRISON, T. (1990). *Técnicas de Publicidad*. Ed. Deusto. Bilbo.
- HUERTAS BAILEN, A. eta PERONA PAEZ, J.J. (1999). *Redacción y locución en medios audiovisuales: la radio*. Bosch. Bartzelona.
- KEITH. Michael C. (1992). *Técnicas de Producción de Radio*. Instituto Oficial de RadioTelevisión Española. Madril.
- LEWIS Peter M. eta BOOTH, Jerry (1992). *El Medio Invisible. Radio pública, privada, comercial y comunitaria*. Editorial Paidós Comunicación. Bartzelona.
- MARTI i MARTI, J. (1990). *Modelos de programación radiofónica*. Feed Back.

Bartzelona.

MCLESISH, Robert (1985). *Técnicas de creación y realización en radio*. IORTV. Madril.

MERAYO PEREZ, Arturo (1992). *Para entender la radio. Estructura del proceso informativo radiofónico*. Publicaciones Universidad Pontificia. Salamanca.

MUÑOZ, José Javier eta GIL, César (1986). *La Radio. Teoría y Práctica*. Instituto Oficial de Radio y Televisión. Madril.

OGILVY, David (1984). *La Publicidad*. Folio.

ORTIZ, M.A. eta MARCHAMALO, J. (1994). *Técnicas de comunicación en radio. La realización radiofónica*. Paidós. 1. argitalpena. Bartzelona.

ORTIZ, Miguel Angel eta VOLPINI, Federico (1995). *Diseño de programas de radio. Guiones, géneros y fórmulas*. Paidós Papeles de Comunicación 11.

POLO DE GUINEA, Emilio eta MONTESDEOCA, Francisco (1995). *Locución y presentación televisiva*. IORTV; Madril.

PRADO, Emili (1985). *Estructura de la Información Radiofónica*. Mitre.

REDFERN, Barrie (1984). *Radio emisoras locales*. Hispano Europa SA. Bartzelona.

REY, Juan (1996). *Palabras para vender, palabras para soñar. Introducción a la redacción publicitaria*. Paidós. Bartzelona.

TORAL, Gotzon (1998). *Tertulias, mentideros y programas de radio*. Alberdania. Irun.